



***BAKEAREN ETA GIZA
ESKUBIDEEN ALDEKO
HEZKUNTZAKO EUSKAL PLANA
(2008-2011)***

2007ko abendua

AURKIBIDEA

I – SARRERA	5
II – DESKRIPZIO ZATIA	11
2.1.- DEFINIZIOA ETA ESPARRU OROKORRA	12
2.2.- NAZIOARTEKO TESTUINGURUA	18
2.3. – ESTATUKO TESTUINGURUA	22
2.4.- EUSKADIKO BERARIAZKO TESTUINGURUA	27
2.4.1.- GIZARTE TESTUINGURUA	27
2.4.2.- POLITIKAREN ETA ERAKUNDEEN TESTUINGURUA	28
2.4.3.- ARAU TESTUINGURUA	35
2. 5. EAE-KO BIZIKIDETZARAKO ETA BAKERAKO HEZKUNTZAREN EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA	37
2.5.1 HITZAURREA	37
2.5.2 LAN PROZESUA	39
2.5.3 ONDORIO NAGUSIAK	42
III – ZATI SUBSTANTIBOA	60
3.1.- HELBURUA	64
3.2.- PRINTZIPIO GIDARIAK	66
3.2.1 ARAU OROKORRAK	66
3.2.2. FUNTSEZKO PRINTZIPIO GIDARIAK	70
3.2.3 ANTOLAMENDU PRINTZIPIO GIDARIAK	73
3.3.- ILDO ESTRATEGIKOAK	78

IV – ZATI OPERATIBOA	82
4.1.- EKINTZAK: ERAGILE ETA PROGRAMA ESTRATEGIKOAK ETA SEKTORIALAK	82
4.1.1. ERAGILE ESTRATEGIKOAK	82
4.1.2. PROGRAMA ESTRATEGIKOAK ETA SEKTORIALAK	85
4.1.2.1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren programa sektoriala.	89
4.1.2.2. Kultura Sailaren programa sektoriala.	97
4.1.2.3. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailaren programa sektoriala.	100
4.1.2.4. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren , Herrizaingo Sailaren eta Lehendakaritza Sailaren programa sektorialak.	101
4.1.2.5. Ekintzen zerrenda sektorialak.	102
4.2.ANTOLAMENDU EREMUA	141
4.2.1. PLAN EREDUA	141
4.2.2. PLANAREN EGITURA ORGANIKO BATERANTZ	144
4.3. – PLANAREN KUDEAKETA	154
4.3.1. EBALUAZIOA: ERANTZULEAK ETA KONTROLA	154
4.3.2. EBALUAZIOA: JARRAIPENA ETA ADIERAZLEAK	156
4.3.3. AURREKONTUA	162
I. ERANSKINA – EKINTZEN ZERRENDA ILDO ESTRATEGIKOEN ARABERA	164

II. ERANSKINA – EKINTZEN ZERRENDA PROGRAMA ESTRATEGIKOEN
ARABERA 185

III. ERANSKINA – EITB-REKIKO HITZARMENA ETA PLANGINTZA
ESTRATEGIKOA 217

I – SARRERA

I.- SARRERA

Dokumentu honek *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako lehen Euskal Plana* biltzen du. Plan hori justifikatzen duena, lehenik eta behin, Eusko Legebiltzarraren agindua da, Terrorismoaren Biktimei buruzko 2005eko otsaileko (eta 2003ko ekaineko) Legebiltzarreko Erabakietan txertatzen dena, alegia. Erabaki horien 3.c idatz-zatian, honako hau eskatzen zaio Eusko Jaurlaritzari:

“Legealdi hau amaitu baino lehen bakean eta balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntza xede izango duen Sailarteko baterako lan bat aurkeztea.”

Biktimen arloan Legebiltzarrean hartu diren akordioak betebeharrak garrantzitsuenetako bat osatzen dute, eta Plana bultzatzeko eragile nagusien artean daude. Batetik, bakearen aldeko hezkuntzako lan-inertzia jasotzen du eta jauzi kualitaboa eragiten du eta, horren bidez, Eusko Jaurlaritzak gero eta gehiago sustatu duen biktimen ikuspegia hartzen du, guztiz agortu gabe. Horrela, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzari antolaketa- eta egitura-sare integrala, sistematikoa eta iraunkorra ematea da plan honen xedea. Bestalde, giza eskubideen aldeko erakunde ofizialek eta nazioartekoek (besteak beste, NBEren Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa, UNESCO eta Europako Kontseilua) gai horretan dituzten lan-eskakizunei berriazko erantzun zuzena ematen die. Eta, azkenik, Eusko Jaurlaritzak 2006ko maiatzean onartutako Bake eta Bizikidetzaren Planaren konpromiso garrantzitsu eta nagusietako bat betetzen da. Plan hori giza eskubideen arloko ekimenak bildu, koordinatu eta bistaratzen ditu, eta bere sei ardatz nagusietako bat, hain zuzen ere, bakearen eta bizikidetzaren aldeko hezkuntza da, adiskidetzera iristeko urratu beharreko bide gisa.

Gizarte demokratiko guztiek dute giza eskubideen eta bakearen ezagutza eta errespetu sakona herritarren artean sustatzeko betebeharra. Euskal gizartearen kasuari dagokionez, gaur egungo betebeharrak unibertsal horri, biolentziaren iraunkortasunak eta bereziki, ETaren terrorismoaren iraunkortasunak oztopaturiko gizartearen berezitasuna erantsi behar zaio. Gurearen moduko gizarte batean pertsona guztien bizitza, duintasuna eta eskubideak salbuespenik gabe babesteko hezkuntza-lan handia behar da. Lan horretan gizarte sektore askok parte hartu beharko dute eta erakundeek buruzagi izan, bultzatu eta koordinatu egin beharko dute, betiere aintzat hartuz benetako protagonismoa gizarteari berari dagokiola.

Dokumentu honen egitura hainbat gauzak baldintzatu dute: alde batetik, Ekintza Plan bat izateak, eta, bestetik, nahitaez izatera pedagogikoa edukitzeak eta planaren ezarpenean parte hartu behar duten hainbat sektorerentzat ulergarria izateko beharrak. **Lehen zatian**, Planaren erreferentzia izango den erakunde-, gizarte- eta arau-esparrua aurkeztuko da. Lehen zati horretan, horrelako Plan baten justifikazioa ulertzeko gakoak emango dira eta, nolabait ere, haren profila eta filosofia aurreratuko dira. Lehen zatian, halaber, Giza Eskubideen Zuzendaritzak 2007. urtean bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzak Euskadin duen egoerari buruz egin duen diagnostikoaren emaitzen laburpena jasota dago (hezkuntza formalari, ez-formalari zein informalarri dagokionez). Gure gaitasunen (erakundeenak eta gizartearenak) eta gure bilakaeraren diagnostiko eguneratua ezinbestekoa da hurrengo lau urteetarako xedea ganoraz eta gaiaz erabat jabetuta zehazteko.

Bigarren zatian, dokumentua egituratzen duten oinarrizko aukera politikoak deskribatu dira. Helburu nagusia, printzipio gidariak eta ildo estrategikoak zehaztu dira, hain zuzen.

Azkenik, **hirugarren zati** operatibo batean, zehaztasun-maila sakonagoan, erakundeen (Eusko Jaurlaritza, foru-aldundiak eta udalak) esku hartzerako programa sektorialak jasotzen dira. Programetan eragile arduradunak identifikatzen dira, eta bakearen eta giza eskubideen aldeko kultura zabal eta indartsuagoa arian-arian errotu dadin garatuko diren ekintzen multzoa zehazten da. Horrez gain, hirugarren zati honetan egitura organiko zehatza ezartzen da eta batetik, Giza Eskubideetan oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Sailarteko Batzordeak (Eusko Jaurlaritza) eta, bestetik, Giza Eskubideetan Oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Kontsulta Kontseiluak osatzen dute. Egitura horrek bere gain hartuko du Plana egoki betetzeko ardura. Eta planaren jarraipenaren ardura ere izango du; izan ere, Plana iraunkorra izateko asmoarekin sortu da, eta horretarako beharrezkoa da egitura sendoak izatea, eboluzio positiboak eta negatiboak identifikatzeko, beharizan berriak detektatzeko, jarduera-ildo berriak ezartzeko eta, finean, Planak denboran kudeaketa, ebaluazio eta eguneratze egokia izateko. Horregatik, azkenik, Planaren jarraipen eta ebaluaziorako irizpideak eta arduradunak eta bideragarria egingo duen aurrekontua aipatzen dira.

Planak, amaitzeko, hiru eranskin ditu. Lehenengo bietan burutuko diren ekintzak bistaratzen dira, betearazpen sektorialaren arduradunen arabera (Eusko Jaurlaritza, aldundiak eta udalak-Eudel) eta ildo estrategikoetan (I. eranskina) duten sailkapenaren arabera edo zerbitzatzen dituzten programa estrategikoen arabera. Azkenik, III. eranskinak euskal hedabide publikoen (Euskal Irrati Telebista EITB) 2008. urterako arauak eta berariazko plangintza sektoriala jasotzen ditu.

Ezin zaio amaiera eman sarrera honi aintzat hartu beharreko bi puntu azpimarratu gabe.

Lehenengo aipamena Plana egiteko lanean inplikazio zuzenena izan duten eragileei buruzkoa da. 2006ko urrian Eusko Jaurlaritzan Giza Eskubideetan oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Sailarteko Batzordea zenetik, era askotako ekarpen ugari jaso dira. EAEko erakunde-eragileez gain (Eusko Jaurlaritzako sailak, foru aldundiak, udalak —EUDEL—, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordea, Arartekoa, Emakunde, Gazteriaren Euskal Kontseilua, Euskal Herriko Unibertsitatea —UPV-EHU—, Deustuko Unibertsitatea, Mondragon Unibertsitatea...) honako erakundeek ere ekarpenak egin dituzte: Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Euskadiko Elkarten Foroa (governuz kanpoko 30 erakunde baino gehiagok osatua), Amnesty International, Baketik, Covite, Escola de Cultura de Pay, Gesto por la Paz, Eliza Katolikoa, Unescoetxea, INICEF, UNESCO, NBERen Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa eta Giza Eskubideen Komisarioa (Europako Kontseilua).

Horretaz gainera Planaren lehen zirriborro osoaren azterketa monografikoa eta xehea egin zen Bakearen aldeko Hezkuntzari buruzko Nazioarteko Biltzarrean. Biltzar hori New Yorkeko Columbiako Unibertsitateko Bakearen aldeko Hezkuntzaren Nazioarteko Erakundeak eta BAKETIK erakundeak antolatu zuten eta munduko hirurogei espezialista baino gehiago bildu zituen. Azkenik, azpimarratu behar da, baita ere, Planak Euskadiko Eskola Kontseiluaren irizpena —ez derrigorrezkoa— ere jaso duela. Horiei guztiek zinez eskertzen dizkiegu egindako ekarpenak eta, batez ere, egin duten ahalegina eta erakutsitako ardura.

Sarrera amaitu aurretik, teknikoagoa den zehaztapen bat egin behar dugu. Planak hartzen duen denbora luzatzea erabaki da (2008-2009 bitartekoa izatetik **2008-2011** bitartekoa izatera pasa da) hainbat gizarte-

erakundek eta erakunde ofizialek ongi oinarrituta egindako iradokizunengatik; izan ere, azpimarratzen zutenez, plangintzan eta aurrekontuan egiten den horrelako ahaleginak hedatzeko epe kritiko zabalagoa izan behar baitzuen. Alabaina, epea zabaldu dela eta gai horri buruzko lehen Plana dela kontuan izanik, egokitzat jo da burutu beharreko ekintzen kronograma zehatzik ez sartzea. Gabezia hori konpentsatu egiten da, ordea, Plana behin betiko onartu eta urte betera lehen eraginari buruzko ebaluazioa egiteko asmoarekin. Ebaluazio horretan, batez ere, sektore guztietako ekintzetan egin beharreko doikuntzak, zuzenketak edo osaketak bilatuko dira. Horri esker, Planaren betearazpenaren lehen urtean betearazpen-kronograma eta aurrekontu-doikuntza zehatzagoa egin ahal izatea aurreikusten dugu.

II – DESKRIPZIO ZATIA

II – DESKRIPZIO ZATIA

2.1.- DEFINIZIOA ETA ESPARRU OROKORRA

Justizia, askatasuna, berdintasuna eta elkartasunaren oinarrien gainean eraiki nahi den edozein gizarte- eta politika-antolamendu eredurentzat **giza eskubideak eta bakea** ezinbesteko erreferentea dira. Pertsona guztien giza duintasuna da balio gorena eta gizabanako bakoitzak gizartean dituen eskubide eta betebeharrak guztiak lotzen hasteko abiapuntua. Betiere gizabanakoen gailentasuna zalantzan jarri gabe, eta gizarte- eta erakunde-arkitektura gizakien garapenera eta sustapenera bideratuz.

Honako hau izan daiteke **Giza Eskubideetan oinarritutako –eta Giza Eskubideetarako– Hezkuntzaren** definizioa: *“Giza eskubideen arloan kultura unibertsala sortzera bideratutako trebatzeko, hedatzeko eta informatzeko jardueren multzoa. Jarduera horiek jakintzak transmitituz eta jarrerak moldatuz egiten dira, eta honako helburu hauek dituzte:*

- a) *Giza eskubideak eta funtsezko askatasunak ezagutzea eta horien errespetua indartzea;*
- b) *Giza nortasuna eta gizakiaren duintasunaren zentzua erabat garatzea;*
- c) *Sexuen arteko elkar ulertzea, tolerantzia eta berdintasuna sustatzea, eta herrialde, herri indigena eta talde guztien arteko adiskidetasuna bultzatzea, edozein arraza, nazio, etnia, erlijio eta hizkuntza edukita ere;*
- d) *Pertsona guztiek gizarte aske batean parte hartzeko aukera izan dezaten erraztea;*
- e) *Nazio Batuek bakeari eusteko abian jarritako jarduerak areagotzea.”*

Bakearen aldeko Hezkuntzak, zentzu zabalean, barnean hartzen du eta bat egiten du Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarekin. Izan ere, bakearen aldeko hezkuntza, bake positibo gisa ulertua, zuzeneko indarkeriarik eza (bake negatiboa) baino askoz gehiago da. Horrela, beraz, zuzeneko indarkeriaren maila txiki baterako eta justiziaren eta adiskidetze-kulturaren maila handi baterako joera sustatzera zuzenduta dago bakearen aldeko hezkuntza. Ildo horretan, indarkeria estrukturala eta kulturala desagerraraztea bilatzen da eta, aldi berean, gizarte-oreka eta guztien eskubideekiko errespetua lortu nahi da, berdintasunaren, justiziaren eta elkartasunaren lehentasunezko balioetan oinarrituta.

Bakearen aldeko Hezkuntzak askotariko hezkuntza-alderdi osagarriak biltzen ditu:

- Balioetan oinarritutako hezkuntza eta hezkuntza etikoa.
- Hezkuntza soziala eta pertsonala.
- Gatazkan oinarritutako hezkuntza.
- Ulermen globalerako hezkuntza.
- Desarmearen aldeko hezkuntza.
- Kulturen arteko hezkuntza.
- Garapen iraunkorrerako hezkuntza

Honako helburu nagusi hau dute guztiek: pertsona baketsuak lortzea eta, era horretan, tolerantzian, errespetuan, pertsonen duintasunean eta garapenean, egian eta gizarte-justizian oinarritutako gizarte bat eraikitzea.

Kontzeptuzko oinarri horrekin, Hezkuntzako Euskal Planak estrategia konbergente bikoitza ezartzen du: programa orokor bat —ez zehaztugabea edo generalista— giza eskubideetan oinarrituriko —eta horien aldeko— hezkuntzan funtsezko etika-esparrua ezarri nahi duena, eta bestalde, programa espezifikokoago bat, Euskadiko errealitateari

egokituko zaion **bakean oinarrituriko hezkuntza**-estrategia pixkanaka zehaztuko duena, biolentziaren kulturaren gehiegizko presentziak —eta bereziki helburu politikoak lortzeko modu legitimo edo gutxienez onargarri gisa barneraturikoak— eragiten dituen hezkuntza-premiei ere egokituko zaiena.

Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza ez da era abstraktuan proiektatzen. Aitzitik, gizarte-errealitateak ezarritako premiei eta lehentasunei erantzun behar die. Ikuspuntu horretatik, Planaren funtsezko lehentasunetako bat **terrorismoaren deslegitimazioa** da.

Denbora luzean azpimarratu da hezkuntza-premia horri ihes egin gabe heltzeko beharra, gure errealitateari aurre eginez eta prebentzioko hezkuntza-estrategiak indartuz. Izan ere, hainbat hamarkadatan —eta gaur egun ere bai— demokraziaren eraikin sendoa eta demokraziaren funtsezko balioak hondatzen saiatu da terrorismoa (terrorismoaren alderdi historiko guztiak kontuan hartuta). Adierazitako estrategia bikoitzak (batetik, giza eskubideen aldeko hezkuntza eta, bestetik, bakearen aldeko hezkuntza) honako diagnostiko hau biltzen du: ez du espezifikoa dena orokorrean disolbatzea bilatzen, baizik eta espezifikoa dena hezkuntzako adituek (Betty Riordan) preskriptibitate edo erresonantzia-esparru deitzen dutenaz inguratzea, berariazko mezuak esparru orokor batean errotzeko.

Nolanahi ere, funtsezkoa da lehentasunezko helburuak eta erabili beharreko baliabideak ez nahastea. Irauteko sortutako hezkuntza-arloko esku-hartze estrukturalak ez dute zatiketa instrumentalik onartzen. Eta are gutxiago funtsezko eskubideekiko zuzeneko loturaren ondorioz giza eskubideen zatiezintasunari eta elkarren mendetasunari buruzko aginduak eskatzen duen arreta ezinbestekoa den arloetan. Horrela, beraz, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Planak ez du

izan behar eduki jakin batzuei buruzko informazio-kanpaina soila. Hezkuntza-arloko esku-hartzeak hainbat adin-tarte (lehen hezkuntza, bigarren hezkuntza, derrigorrezkoaren ondokoa, unibertsitate-irakaskuntza, helduaroa eta abar) eta hainbat eremu (hezkuntza formala, ez-formala eta informala) hartu behar ditu eraginpean. Hori dela-eta, indarkeriaren edozein kultura lantzean (nahiz eta kultura hori leku geografiko bakoitzean eta une historiko bakoitzean indar handiagoarekin edo txikiagoarekin gauzatzen den) gurutzatzen diren faktore eta dimentsio guztiak kontuan hartuko dituen esku-hartze egituratu bat behar da. XXI. mendeko Euskadik oraindik ere indarkeria terroristaren astindua jasaten badu ere, eta indarkeria horrekin eta legitimatzen dutenen sostenguekin amaitzea lehentasuna bada ere, hezkuntza-arloko esku-hartzearen barruko ekintzak eta programak ez dira indarkeriaren fenomenora monografikoki mugatu behar. Eta horren helburua ez da lehentasuna erlatibizatzea, esku-hartzean ahalik eta eraginkortasunik handiena lortzea baizik. Xede bati lehentasuna emanaz gero, programen esku-hartze instrumentalak egitura eta ekintza fokalizatuak zein fokalizatu gabeak konbinatu eta finkatu behar ditu. Bakearen eta giza eskubideen kulturaren arloan esku hartzeko eremu komuna sortu behar dugu, indarkeria terrorista edo bidegabeko beste edozein indarkeria lantzeko modua esanguratsua eta koherentea izan dadin. Horretarako, eraginpean hartutako dimentsio guztiak esku-hartzearen esparruan sartzeko premia finkatzen duten jarraibide zientifikoei eta pedagogikoei jarraitu behar diegu.

Horrela, beraz, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza lotutako hainbat kontzeptuzko planoren gainean proiektatu behar da, beharrezkoa den sinbiosi emankor bat lortzeko. Izan ere, globalizazioaren fenomenoek, nazioarteko pertsonen mugimenduek eta ingurumenean eragiteko dugun gero eta ahalmen handigoak Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntza fenomeno horietatik eratorritako giza

aldagaiekin osatzera behartzen gaituzte. Zentzu horretan, Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak **garapenerako hezkuntza, kultura arteko hezkuntza eta ingurumen-hezkuntza** izan behar du aldi berean, hiru adierazpenen zentzurik zabalenean.

Modu horretan, gaur egun ezinezkoa da Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren programa bat egitea Iparraldearen eta Hegoaldearen arteko bidegabekeriaren egiturazko arrazoiak aztertu gabe. Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzak **garapenaren alderdia** eransten du, eskubide ekonomiko, sozial eta kulturek, eskubide zibil eta politikoen adinako premia eta maila baitute, nazioartean adostu denaren arabera. Gaur egun ezinezkoa da giza eskubideetan hezteko nazioarteko elkartasunean eta elkartasun horrek eragiten duen tokiko adierazpenean hezi gabe, hau da, euskal gizartearen moduko gizarte garatuetan gertatzen diren laugarren munduko egoeren arretan.

Era berean, guztiz beharrezkoa da euskal gizartea gaur egun gizarte plurala dela aintzat hartzea, eta gero eta kultur, erlijio eta hizkuntza aniztasun handiagoa duela. Ezberdinen arteko bizikidetasunak gizarte eskubideen interpretazio tradizionala berriz aztertzeko beharra sortzen du. Interpretazio berri hori inklusiboa eta **kultura artekoa** izango da. Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzak ezin du multikulturaltasunaren aldagaia ukatu eta kulturarteko konponbideak bultzatu behar ditu ezberdintasunak errespetatu eta babestuz, eta gizartearen kultur adierazpen anitzen artean elkarrizketa bultzatuz. Aniztasuna, borroka eragiten duen alderdia izan beharrean, gure gizartean aberastasuna eta pixkanaka irekitzea eragingo duen faktore gisa hartu behar da, gatazkei heltzeko eta giza eskubideak betetzeko formula berriak baliatuz.

Azkenik, gaur egungo nazioarteko errealitateak Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntza gizakiok bizi garen ingurumenari buruzko parametroekin planteatzera behartzen gaitu. Hezkuntzak **ingurumen-hezkuntza** izan beharko du, bitzita ekologikora bideratutakoa, etorkizuneko belaunaldientzat ingurumena babesteko. Bestalde, naturarekiko errespetua balio sendoa da, eta horren gainean eraiki daiteke bizitzarekiko errespetuan eta bitzita defendatzen duten munduko kulturen jarrera desberdinekiko errespetuan oinarritutako kultura. Esparru horretan, gizarte garatuek, eta horien artean euskal gizarteak, bide garrantzitsua egin behar dute oraindik. Bide hori, hein batean, Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarekin hasten da.

Nolanahi ere, bakean, balio demokratikoetan eta giza eskubideetan oinarrituriko Hezkuntzaren balio nagusia **pertsonen duintasuna** da. Horrela, pertsonak, beren **existentziarekiko** errespeturik handiena bilatzen duen hezkuntza-politika horren balio nagusi dira. **Existentzia** gisa ulertzen da gizakion **bitzita** bera, giza eskubideek babestu beharreko lehenengo gauza eta berezko balioa baita. Bitzita izango da beraz, bakearen eta Giza Eskubideen aldeko edozein Hezkuntza-politika eraikitzeko oinarria. Kontzeptu horretan bilduko da ez pertsona guztien bitzita bakarrik, abiapuntu utziezin gisa ulertuta, baizik eta bizitzeko baldintza duinak eta horretarako ingurumen egokia aintzat hartuko dituen bizitzaren kontzeptu zabalago bat ere.

Gizakion **existentziak** aipatzen ditugunean, bizitzak bere alderdi sozialean, politikoan, zibikoan eta kulturalean hartzen dituen formez ari gara. Euskal gizartea osatzen dugun pertsonok pentsatzeko, sentitzeko, hitz egiteko edo kultura adierazteko hainbat modu ditugu. Denborarekin, gizartea gero eta askotarikoagoa da, eta, gizarte horretan, desberdinak direnen arteko elkarreraginak gero eta ohikoagoak dira. Gizarte horretan, elkarrekin bizi dira, gure mesederako, hainbat filosofia- eta

erlijio-ikusmolde, hainbat kultura eta dagozkien balio-eskalak, bakoitzaren jatorriaren edo gizarte-sektorearen arabera bereziak. Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren bidez, gizakion bizitza babestea ez ezik —bizitza hori existentzia huts gisa ulertuta—, gizarte ireki eta tolerante batean gizakiek dituzten bizimodu desberdinak errespetatzea eta babestea ere lortu nahi da.

2.2.- NAZIOARTEKO TESTUINGURUA

Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsala (1948) garrantzi handiko erreferentzia historikoa izan zen; izan ere, lehen aldia izan zen instantzia unibertsal batek denei errespetatu behar zaizkien eskubideak aldarrikatu zituen, eskubideetarako arrazoi bakarra gizakiak izatea izanik. Aldarrikapen horren ondoren, tresna zehatzagoak sortu ziren, hala nola 1966ko Nazioarteko Itunak. Itun horiek, eskubide zibil eta politikoez gain, ekonomikoak, kulturalak eta sozialak ere bildu zituzten. Berariazko hainbat Hitzarmen agertu dira aldi berean (genozidioari, arraza-diskriminazioari eta emakumeen aurkako diskriminazioari, torturari, haurren eskubideei, sexu-eskubideei eta abarri buruzkoak). Horri esker, batetik, giza eskubideen babesaren eremu substantiboa zabaldu da, eta, bestetik, eskubide horiek betetzea bermatzeko eta betetzera behartzeko mekanismoak hobetu eta zehaztu dira.

Baina eskubideak aldarrikatzeari eta eskubide horiek egiaz ezartzeko eta bermatzeko borrokari dagokionez, orain dela gutxi arte ez gara jabetu beharrezkoa dela giza eskubideen aldeko hezkuntzari buruzko lan *sistematiko, koordinatu eta iraunkorra* egitea. Gerra hotzaren garaiko blokeen arteko aurkaritza ideologikoa gainditzeak ekarri zuen, segur aski, aurreko mendearen 90eko hamarkadan, giza eskubideen kultura batera

bultzatzeko jokaleku egokia, betiere giza eskubideak eskakizun zatiezintzat, elkarren mendekotzat eta unibertsaltzat hartuta.

Nazio Batuek bultzatutako eta Vienan 1993an egindako Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia hartu behar da inflexio-puntutzat. Konferentzia horren azken deklarazioan eta ekintza-programan zehatz-mehatz bildu zen giza eskubideei buruzko hezkuntza, trebakuntza eta informazio publikoa ezinbestekoak direla komunitateen artean harreman egonkor eta harmoniatsuak ezarri eta sustatzeko, baita elkar ulertzea, tolerantzia eta bakea bultzatzeko ere. Horretaz gain, Konferentziak esanbidez eskatu zien Estatu eta erakundeei irakaskuntza akademikoa eta ez-akademikoa ematen duten erakunde guztien ikasketaprogrametan honako hauek biltzeko: giza eskubideak, zuzenbide humanitarioa, demokrazia eta legearen inperioa.

Vienako Konferentziaren ondorioz, NBEren Batzar Nagusiak, 1994ko abenduaren 23ko 49/184 Ebazpenean, **Giza Eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkada** izendatu zuen **1995-2004** aldia. Esparru horretan jardun-programa orokorra ezarri zen. Horren ardatz nagusia: Estatuak edo eskualde-erakundeek beren *Ekintza-plana* aurkeztu beharra. Hamarkadan honako helburu hau lortu nahi zen: jardun koordinatu eta homogeenetan oinarritutako munduko sare-egitura diseinatzea, hizkuntza, tresna eta xede berekin jarduteko. Gainera, egitura hori plangintza estrategiko baten bitartez garatu beharra zegoen, eta plangintza horren emaitzak ebaluatu behar ziren, giza eskubideen kultura hedatzearen aldeko ahaleginak berriz ere bideratzeko eta hobetzeko. Hamarkadaren jardun-programa orokorrak eta Ekintza Plan Nazionalen egiturak honako behar hau zuten abiapuntu: munduko eta tokiko premien diagnostikoa eta ebaluazioa ezartzea, jarraian giza eskubideei buruzko trebakuntzarako, sustapenerako eta hedapenerako programa zehatzak diseinatzeko.

Zehazkiago, koordinazio-zentroak eta baliabide-zentroak ezarri beharra adierazten zuen. Eta, azkenik, programak ebaluatzeko irizpideak ezartzen zituen.

Giza eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkadarekin hasitako lan eskerga horrek ez zuen denbora-mugarik ezarri nahi. Aitzitik, Nazioarteko Komunitatea mugiarazi nahi zuen, oinarri sendoak ezartzeko eta oinarri horien gainean etengabe eta iraunkortasunez aurrera egiteko. Horregatik, Hamarkada amaitzean eta programaren emaitzak ebaluatu ondoren, une honetan indarrean dagoen jardun-programa jarri zen abian. 2004ko abenduaren 10eko 59/113 Ebazpenean, NBEren Batzar Nagusiak **Giza Eskubideetan oinarrituriko Hezkuntzarako Mundu Programa** aldarrikatu zuen. Programa 2005eko urtarrilaren 1ean gauzatzen hasi zen, eta ondoz ondoko zenbait etapatan egituratu da, giza eskubideen esferako hezkuntza-programak sektore guztietan gauza daitezen sustatzeko. Zehazkiago, eta Mundu Programaren lehen etapari begira (**2005-2007** aldia), Batzar Nagusiak **Lehen eta bigarren hezkuntzako sistemetarako giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzarako Ekintza Plana** onartu du, 2005eko uztailaren 14ko 59/113B ebazpenaren bitartez.

Modu paraleloan eta osagarrian, Nazio Batuek **Bakearen aldeko eta munduko haurren aurkako indarkeriarik gabeko Nazioarteko Hamarkada (2001-2010)** bultzatu dute. Era unibertsalean adin-tarte guztietara zabaltzen bada ere, garrantzi handiagoa ematen die bakearen aldeko hezkuntzari eta haurren sektoreari.

Adierazitako korrante unibertsalak, gainera, oihartzun berezia du Europako eskualde-eremuan. Eremu horretan, herritartasunaren, balio demokratikoen eta giza eskubideen arloan hezkuntza-alderdiak indartzeko kontzientzia bereziki pizten ari da. 90eko hamarkadatik

aurrera, **Europako Kontseiluak** bereziki areagotu zuen jarduera, Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzarako 2000ko Gazte Programaren bitartez. Horren ondoren, beste ekimen askoren artean, 2005. urtea **Hezkuntza bidezko Herritartasunaren Europako Urte** deklaratu da. Giza Eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkadaren kasuan bezala, urte horren bidez ez zen ezarri nahi etenaldi bat esku-hartzean. Aitzitik, herritartasunaren aldeko hezkuntza eta giza eskubideen aldeko hezkuntza hezkuntza-politiken funtsezko helburu bihurtzeko lan jakin bat (handik aurrera irauteko pentsatua) egiten hasi nahi zen. Halaber, aipatu beharra dago Ministroen Kontseiluak herritartasun demokratikorako hezkuntzari buruzko 12. Gomendioan (2002) eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzari buruzko 1346. Gomendioan (1997) adierazitako bultzada politiko orokorra gauzatu dela.

Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planak berriaz, bete-betean eta behin betiko txertatu nahi du Euskadi aurrez deskribatutako nazioarteko korrontean. Dagoeneko premiazkoa da gure gizartean garatzen ari den lana areagotzea eta lan hori zabaltzea, giza eskubideen aldeko borrokan diharduten nazioarteko erakundeekin eta gainerako eragileekin batera jarduteko. Izan ere, giza eskubideen kultura unibertsala da, eta gure Erkidegoak nazioartean koordinatutako ikuspegi batetik heldu behar dio gai horri.

2.3. – ESTATUKO TESTUINGURUA

1978ko Espainiako Konstituzioan, Giza Eskubideen arloko nazioarteko tresnetatik bertako ordenamendurako trantsizioa 10. artikuluan txertatuta dago:

1. Pertsonaren duintasuna, datxezkion eskubide bortxaezinak, pertsonalitatearen garapen libre, legearekiko eta gainerako eskubideekiko errespetua ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarri dira.

2. Konstituzioak onartzen dituen funtsezko eskubideei eta askatasunei buruzko arauak Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalaren eta gai horiei buruz Espainiak berretsi dituen nazioarteko itunen eta akordioen arabera interpretatuko dira.

Espainiako Konstituzioak eta **Gernikako Autonomia Estatutuak**, **konstituzionaltasun-bloke** gisa, giza eskubideen ondare unibertsalaren lehentasun eztaba daezinean oinarritzen dituzte beren aginduak. Hortik ondorioztatzen denez (tazituki bada ere), ahalegin handiagoa egin behar da hezkuntza-arloko esku-hartzea bakearen eta giza eskubideen kulturaren arlora iristeko.

Bakearen Hezkuntza eta Kultura Sustatzeko azaroaren 30eko 27/2005 Legearen arrazoien azalpenak azpimarratzen du, eta ongi azpimarratu ere, XX. mendearen ezaugarri nagusia biolentziaren kulturaren nagusitasun onartezina izan dela. Kultura horrek agerian utzi ditu zazpi ziurtasun-gabezia larri. Gabezia horiek sarritan eragiten dute frustrazioa, eta ondorioz, biolentzia hainbat mailatan. Zazpi gabezia horiek Nazio Batuen Garapenerako Programak (UNDP) jarri zituen agerian 1998. urtean. Gehienbat ekonomia- eta finantza-gabeziak dira, baita errenten, kulturaren, osasunaren, gabezia pertsonalen, ingurumenaren, politikaren eta komunitatearen alorrekoak ere. Ziurtasun-gabezia horiek toki-

eremuan zein eskualdekoan, baita mundu-eremuan dauden hainbat bidegabekeriaren oinarrian daude.

Nazio Batuek aldarrikatutako Bakearen Kulturarako Nazioarteko Hamarkadaren (2001-2010) esparruan, hezkuntzak gizarte baten bilakaeraren motor gisa duen ezinbesteko zeregina aintzat hartuta, lege horrek, XX. mendea definitu duen indarkeriaren kultura bakearen kulturarekin ordeztu nahi du, hori izan dadin mende berriaren ezaugarri nagusia.

Bakea osatzen duten balio, jokabide, jarrera, praktika, sentimendu eta sinesmen guztiek osatzen dute bakearen kultura.

Bakearen kultura hori ezartzeko, bakean eta giza eskubideetan oinarritutako, eta indarkeriaren aurkako hezkuntza bultzatu behar da, bakearen aldeko ikerketa bultzatuz, tolerantziarik eza ezabatuz, eta elkarizketa eta indarkeriarik eza sutatuz, gatazkak kudeatzeko eta eraldatzeko hedatu beharreko praktika gisa.

Lege horrek –Nazio Batuen Batzar Nagusiak 1999an onarturiko Bakearen Kulturari buruzko Ekintza Planaren a.2 puntua aintzat hartuta— hezkuntzaren eta ikerketaren esparruari zuzenduriko hainbat neurri ezartzen ditu, Espainiako gizartean bakearen eta indarkeriarik ezaren kultura ezartzeko helburuarekin.

Bere artikuluetan, Espainiako Gobernuak helburu hori zer modutan lortuko duen azaltzen da:

1. Espainiak Nazio Batuen Gutunaren arabera eta gainerako nazioarteko tresnak erabiliz —tresna horien zati baita— konponduko ditu bere nazioarteko gatazkak, Nazioarteko Bake

eta Segurtasuna, Lankidetzeta eta Giza Eskubideak indartzen lagunduz.

2. Gobernuak bakea sustatuko du elkartasun, kultura, ikerketa, hezkuntza, lankidetzeta eta informazioko ekimenen bitartez.

3. Helburu horiek lortzeko Gobernuak lankidetzeta-mekanismoak ezarriko ditu Autonomia Erkidego, Tokiko Erakunde, eta Estatuaren bestelako erakundeekin. Era berean, eta helburu berarekin, gainerako nazioarteko erakunde, eta bakearen esparruko erakunde eta GKEe nagusiekin lankidetzeta-hitzarmenak ezarriko ditu.

Bakearen kulturaren arloan adierazitako helburuak gauzatzeko, Espainiako Gobernuak honako konpromiso hauek hartu ditu:

1. Hezkuntza-sistemaren maila guztietan irakasgaiak bakearen kulturaren balioen arabera irakats daitezzen sustatzea, eta bakearen eta balio demokratikoen aldeko hezkuntzarekin zerikusia duten gaiak berariaz jorratuko dituzten irakasgaiak sortzea.

2. Bakearen ikuspegitik indarkeriarik ezaren, tolerantziaren, demokraziaren, elkartasunaren eta justiziaren balioak testu-liburuaren, material didaktikoen eta hezkuntzako materialen, eta ikasleei zuzendutako ikus-entzunezko programen edukietan txerta daitezzen bultzatzea.

3. Bakerako hezkuntzari buruzko ekimenak hezkuntza-programen curriculum-eduki gisa sar daitezzen sustatzea, bai toki-arloan baita nazio-arloan ere.

4. Hezkuntza-sistemaren barruan ematen den irakaskuntza bizitza osoan jaso beharreko bakearen aldeko hezkuntzaren sustapenarekin osatzea eta, horretarako, helduak adierazitako balioen esparruan hezte.

5. Nazio Batuen Erakundearekin elkarlanean aritzea Unibertsitate Institutu Espezializatuak sustatzeko.

6. Nazioarteko Zuzenbide Humanitarioa eta Giza Eskubideei buruzko legeria ezagutzera eman dadin eta irakats dadin bultzatzea.

7. Gizon eta emakumeen prestakuntza espezializatua bultzatzea gatazkak konpontzeko tekniken, negoziazioaren eta bitartekotzaren arloan.

8. Gatazkan dauden eremuetan bakea eraikitzeko lanak sustatzea, langile espezializatuen parte-hartzearekin.

9. Gobernuak gizarte zibilarekin eta Bakearen aldeko mugimenduarekin loturiko eta elkaturiko gizartearekin aldizka kontsultatzeko mekanismoak sortuko ditu Lege horretan bildutako xedapenak behar bezala bete daitezen.

Era berean, Gobernuak laguntzak sustatuko ditu bakearen arloan azterlanak eta ikerketak egin daitezen, eta bakearen aldeko gizarte-ekimenen eta komunikabideen ekimenen onspena bultzatuko du.

Giza Eskubideen eremuan egindako ibilbidea Estatuko Administrazioaren hainbat mailalara zabaltzen da —bai Atzerri Arazoetako Ministeriora, baita Hezkuntza eta Zientzia Ministeriora ere, eskola-eremuan—, Eskola

Bizikidetasunerako Estatu Behatokiaren eta Bizikidetza Planen garapenaren bidez.

Hainbat Autonomia Erkidegotan (Katalunian, Andaluzian, Madrilan, Galizian eta abar), Giza Eskubideen arloan egindako ibilbidea luzea da, bai legeei dagokionez (bakea sustatzeko Kataluniako uztailaren 4ko 21/2003 Legea), bai antolakuntzari (2002ko urriaren 5eko Bakearen Kulturaren aldeko Andaluziako Hezkuntza Plana), eta elkarteei dagokienez ere. Izan ere, erakunde eta ekimen asko daude Estatuko lurralde osoan banatuta.

2.4.- EUSKADIKO BERARIAZKO TESTUINGURUA

2.4.1.- GIZARTE TESTUINGURUA

Euskal gizartea ETaren terrorismoaren eragozpenarekin bizi da oraindik ere. Terrorismo horrek, berehalako ondorio hilgarriez gain, giza harremanak eta taldeen arteko harremanak erabat kutsatzen ditu sakonean. Gaur egun terrorismoak duen gizarte-babesa oso txikia bada ere, babes horri eusteak nahi ez diren hainbat eragin sortzen ditu eta sarritan bizikidetasuna guztiz biziitzen du. Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Plan batek hori hartu behar du kontuan lehenik eta behin.

Horrenbeste urtez indarkeriari eusteak hainbat haustura eragin dizkio euskal gizarteari, eta kontuan izan behar dira giza eskubideen arloko politika aktibo bat garatzerakoan. Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzak, beraz, biktimak izateak hezkuntza-arloan eragiten dituen prebentzio-premien arreta egokia eta berezia ere kontuan hartu behar du.

Hori guztia horrela izanik, ETaren indarkeriak ez du bere baitan hartzen gure herriaren historian zehar izan den indarkeria terrorista guztia, ezta zilegi ez diren beste indarkeriak eta giza eskubideen urraketa larriak. Horiek ere kontuan izan behar dira bakearen eta giza eskubideen aldeko edozein hezkuntza-plan integraletan. Lehentasunezko xedeak izanik ere, ez dira nahastu behar Planaren berariazko eta funtsezko helburuak, eta esku hartzeko baliabideak. Baliabide horiek berariazko programak zein hezkuntza-arloko esku-hartze guztietan komunak diren programak landu eta zabaldu behar dituzte aldi berean nahitaez (adierazitako azken programa horiek gabe, berariazko programek ez dute hainbesteko oihartzunik eta eraginik). Planean, beraz, oinarrizko eta

ezinbesteko lehentasuna da indarkeria terroristaren deslegitimazioa, baina, aldi berean, esku-hartze orokor eta estrukturaleko eskema oso batean txertatzen du Planak lehentasun hori. Eskema horren bidez, erantzun eraginkor eta iraunkor bat antola daiteke eta, era berean, mota orotako indarkeriak deslegitimatzeko beste helburu batzuk lor daitezke, erlatibismo moralaren inolako ondoriorik gabe. Askotariko deslegitimazio-helburu horiek multzo zatiezintzat, elkarren mendekotzat eta unibertsaltzat hartzen diren giza eskubideen eta bakearen kulturaren aldeko ahaleginaren korrelatiboa eta ondorioa baino ez dira.

Giza eskubideen kultura ez zaio euskal gizarteari bakarrik helarazi behar, dauden egitura politiko guztietan sakon sartu behar da. Giza eskubideen errespetu positiboak izan behar du herritar guztien aurrean nolabaiteko erantzukizuna duten erakunde publiko guztien eraketa, antolakuntza, jarduna eta jarrera zuzendu behar duen balio gorena. Horretarako, beharrezkoa da Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntza Plana, pertsona jakinak baitira, azken buruan, erakunde horiek osatzen dituztenak.

2.4.2.- POLITIKAREN ETA ERAKUNDEEN TESTUINGURUA

Nazioarteko testuingurua deskribatu dugunean (2.2 idatz-zatian) adierazi dugunez, giza eskubideen aldeko hezkuntza-arloko politikak 90eko hamarkadara arte ez ziren txertatu erakunde ofizialen agendan (NBE, Europako Kontseilua eta abar). Nolanahi ere, onartu beharra dago giza eskubideetan eta bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntza-politika integral, iraunkor eta sistematiko bat garatzeko argitasunik eta erabakitutasunik eza ez dela soilik nazioarteko erakundeen akatsa. Estatuko gobernuak, salbuespenak salbuespen, nazioarteko korronteen atzetik joan dira beti, eta berdin jarraitzen dute. Gogoratu beharra dago

bakearen hezkuntza eta kultura sustatzeko legeak (aitzindariak izan direnak) Katalunian 2003an eta Estatuan 2005ean atera zirela.

Euskadi ere ez da salbuespena izan horri dagokionez, eta hezkuntza-arloko esku-hartzearen zati hori beharrezkoa eta ezinbestezkoa da biktimei errekonozimendua agertzeko eta kaltea ordaintzeko zentzuzko politika baterako.

Zalantzarik gabe, hutsune hori garbien eta nabarmenen salatu zutenak **Eusko Legebiltzarraren 2003ko ekainaren 25eko Erabakiak** izan ziren. Erabaki horiek terrorismoaren biktimen inguruko berariazko lan-programa bat berretsi zuten (hezkuntzaren eremuan ere bai), eta talde horri kaltea ordaintzeko, errekonozimendua agertzeko eta justizia egiteko hainbat neurri buruzko ibilbide-orri bat –oraindik indarrean dagoena– ezarri zuten. Handik aurrera, lanak aurrera egin du, eta denon artean –governuek, oposizioak, alderdi politikoek eta gizartearen zati batek– denbora luzeegian onartu dugun hutsune hori garbi ikusteko aukera eman du.

Bakearen eta giza eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planak, lehenik eta behin, Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak sortutako Biktimen Ponentziak bultzatuta Eusko Legebiltzarrak 2003an eta 2005ean hartutako erabakien ondoriozko konpromisoak betetzen ditu. Zehazki, **2005eko otsailaren 17ko eta 18ko Osoko Bilkuran hartutako erabakien** 3.c idatz-zatiak honako hau eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari:

“Legealdi hau amaitu baino lehen bakean eta balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntza xede izango duen sailen arteko baterako lan bat aurkeztea”.

Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Euskal Planak adierazitako konpromisoa beteko luke horrela, prestazio pertsonalei eta onespen publikoari buruzko biktimen politikarekin batera terrorismoaren errealitate horri arreta berezia eskaintzen dion hezkuntza-arloko esku hartzea artikulatuko bailuke.

Plana, Legebiltzarrean biktimei buruz hartu diren akordioak bezala, denboran aurreratu beharko zatekeen. Dena den, oraindik ez da beranduegi eta, aldi berean, ahalegin guztiak egin behar dira ekimen hori **gobernuak** gai horren inguruan **lehendik egindako lanekin** elkartzeko; izan ere, lan horiek 90eko hamarkadan hasi ziren egiten Euskadin, nazioartean giza eskubideen aldeko hezkuntzaren hastapenak ezagutzen ziren garai bertsuan.

Zehazkiago, 1997. urtean UNESCOrekin elkarlanean hasi ginen, eta Parisen *Elkar Ulertzerako Memorandum* bat sinatu genuen, Bakearen Kultura-arloko proiektuak garatzeko. 1998an, erakundeek, Euskadin Bakean oinarritutako hezkuntzaren alorrean diharduten gizarte-erakundeekin batera, lehen diagnostikoa landu zuten: *Euskal Herrian Bakean oinarritutako Hezkuntza eskaintzea. Euskadin Bakean oinarritutako hezkuntza indartzeko eta garatzeko oinarri eta proposamenak*.

2000. urtean, *Bizikidetzaren eta Bakearen aldeko Hezkuntza Programa* onartu zuen Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, honako uste honetatik abiatuta: hezkuntza-sistemak pertsonak prestatu behar ditu demokrazian elkarrekin bizitzeko printzipioaren arabera, eta horrek esan nahi du hezkuntza zuzenean giza eskubideetatik, justiziatik eta arrazako, generoko edo erlijioeko diskriminazioaren aurkako borrokatik abiatu behar dela. Bestea onartzearen, ahulenekiko elkartasunaren eta gure ekintzen erantzukizunaren aldeko hezkuntza sustatu behar da. Ildo beretik doazen

Hezkuntza Berriztatze Programak (2003-2006), halaber, bizikidetzan eta bakean oinarritutako hezkuntzari ematen diote lehentasuna, eskolari buruzko hausnarketa egiteko prozesuari hasiera emateko, eta eskola herritartasuna eraikitze eta desberdintasun pertsonalak eta kulturalak errespetatzeko tokia izan dadin.

Aldi berean, Kultura Sailaren Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak sustatutako *Gazte Planean* zeharkako helburu bat biltzen ari da, batetik, balioetan oinarritutako hezkuntzaren bitartez indarkeriazko portaeren inguruan kontzientziatzeko eta aurrea hartzeko, eta, bestetik, elkarriketan eta parte-hartzean trebatzeko, gatazkak konpondu eta bizikidetzaren erraztearren.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Kultura Sailak elkarlanean jardun dute, eta horrek *egoera-mapa* egiteko talde tekniko eta adituak eratzea ahalbidetu zuen 90eko hamarkadan. Mapa horretan, Bizikidetzaren eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren inguruko errealitatea, premiak eta proposamenak deskribatzen dira, hezkuntza formalari eta ez-formalari dagokienez. Euskadik arlo horretan duen egoeraren diagnostiko globala da. 2004an eta 2005ean argitaratu zen, plangintza estrategiko sendoa eta iraunkorra garatzeko helburuarekin.

Ikasgeletan ez ezik gizarte osoan ere bizikidetzaren eta bakearen alde jardungo duen sare bat osatzeko, hainbat esku-hartze jarri dira abian, GKEen eta Udalen proiektuen bitartez bereziki, honako helburu nagusi honekin: giza eskubideak jardun indibidual eta komunitario ororen ardatz bihurtzea. Horretarako, Giza Eskubideen Zuzendaritzak diru-laguntzen berariazko programa bat sustatu du. Programak udal-esparrua bakarrik izan du jomugan, gatazka pertsonalak, lan-arlokoak, sozialak edo politikoak konpontzerakoan erasoari, bidegabekeriari edo indarkeriari

bidea itxiko dien sare-ingurunea finkatzeko. Ingurune horretan, elkarrikeria, errespetua, erantzukizuna, komunikazioa eta giza eskubideak izango dira bizikidetzaren oinarri.

Sortu zenez geroztik, Giza Eskubideen Zuzendaritzak hainbat programa garatu ditu Euskadin giza eskubideen kultura bultzatzeko eta hedatzeko, eta bakearen, bizikidetzaren eta balio demokratikoen aldeko politika multzo hori funtzionalki artikulatzen da Zuzendaritza horren sustapen eta hedapen sistematikoko jarduerekin.

Horrela, beraz, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzako Euskal Planaren bidez, aurrekari horiekin lotzea eta gobernu-ekintza hori sistematiko eta iraunkor bihurtzeko jauzi kualitatiboa egitea bilatzen da.

Planak, edonola ere, biktimen arloko konpromisoei erantzuteaz, gobernu-politika hurbileko aurrekariekin lotzeaz eta jauzi kualitatiboa egiteaz, eta Euskadi arlo horretako nazioarteko korranteekin lotzeaz gain, ematen zaion garrantzia erakusten duten beste konpromiso batzuei erantzuten die. Izan ere, Planak **Gobernu Koalizioaren Akordioan** du jatorria. Akordio horren lehenengo oinarri programatikoak eskubideak eta askatasunak irmo babesteko asmoa biltzen du, eta bakearen eta giza eskubideen kultura bultzatzeko konpromisoa ezartzen du.

2005eko ekainaren 22an, lehendakariak bere **inbestidura-hitzaldian** Jaurlaritzaren programa aurkezterakoan, honako konpromiso hau jakinarazi zuen: «Jaurlaritzak giza eskubideen arloan garatu beharreko jardun guztiak aintzat hartu eta bilduko dituen Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Plan Integrala egitea».

Konpromiso hura betetzearren egindako lehenengo urratsa Jaurlaritzaren Kontseiluak 2006ko maiatzaren 2an onartutako **Bake eta**

Bizikidetzeta Plana da. Plan hori bost jardun-ardatzek eta egin beharreko azken bide batek egituratzen dute.

Egin beharreko azken bide horrek "Bakearen eta Bizikidetzaren aldeko Hezkuntza. Adiskidetzeari" egiten dio erreferentzia, eta hainbat konpromiso biltzen ditu. Horietatik lehenengoa Hezkuntzarako Euskal Plan bat onartzea da, honako baldintza hauetan, hain zuzen:

"1. Orokorrean gizarte osoari eta bereziki hezkuntza-eremuari zuzendutako Bakearen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana egitea, balio demokratikoetan eta Bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntza lortzeko.

Duela zenbait urtetik hona, Eusko Jaurlaritzak balio demokratikoetan eta Bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntza bat egon dadin lan egiten du. Hainbat Sailek dihardute, beren jardun-eremutik, bakean eta balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntzaren aldeko ekimenetan, hezkuntza-sistematik, tokiko gizarte-ingurunetik, aisialdiko taldeetatik eta abarretik abiatuta.

Beharrezkoa da, nolana ere, sailen arteko lan horri antolamendu-esparru bat ematea, erronka berriei koordinazio-maila hobearrekin aurre egitea ahalbidetzeko, ondorioak ugaltzeko eta koordinazioa errazteko.

Hainbat ekimen eta ekintza sektorial esku hartzeko plan orokorretan txertatu beharrak bakearen aldeko hezkuntzarako eta kulturarako Sailarteko Plan Formal bat egon dadin eskatzen du. Plan horrek, bestalde, gaiaren garrantzia eta lehentasun politikoa islatzeko helburua bete behar du, baita plangintza estrategikorako eta jardunak kontrolatzeko tresna bat ahalbidetu ere".

Sailarteko Plan formal hori egin dadin bultzatzeko, Bake eta Bizikidetzeta Planaren azken ardatzean hartutako bigarren konpromisoak honako hau eskatzen zuten:

“2. Bakean eta balio demokratikoetan oinarritutako hezkuntzaren Sailarteko Batzordea eratzea.

Jaurlaritzaren barruan Sailarteko Batzorde bat eratuko da, Lehendakaritza Sailak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Herrizaingo Sailak, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailak eta Kultura Sailak osatua. Batzorde horren zeregina bakean eta balio demokratikoetan oinarritutako Sailarteko Plana egitea izango da, eta ondoren plan horren gauzatzea eta kontrola bultzatzea.”

2006ko urriaren 17ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Akordioaren bitartez sortu zen Giza Eskubideetan oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Sailarteko Batzordea. Akordio horren 2. artikulua berriz azpimarratzen du Batzordearen funtsezko betebeharrak honako hauek direla:

“(…) Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzako Ekintza Plana diseinatzea eta egituratzea”.

Sailarteko Batzordeak 2006ko azaroaren 28an egin zuen eratzeke lehen bilkura. Lehen bilkura horretan, Plana egitea bultzatzeko lehen prestakuntza-dokumentua aurkeztu zen, eta bi hilabeteko epea ireki zen Batzorde horretako Sailek ekarpenak eta aldaketak egin ahal izateko. Sailarteko Batzordea 2007ko otsailean bildu zen bigarren aldiz, eta helburu bikoitza lortzeko abiapuntu-dokumentu bat adostu zuen. Alde batetik, 2007ko aurrekontu-ekitaldian Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzako ekintzak **gauzatzea**, eta, bestetik, 2008-2009 biurtekorako lehenengo Euskal Ekintza Plana lantzeko ekintzen plangintza hastea.

2007. urteko lehenengo dokumentuaren ondoren dokumentu osatuago bat egin zen. Bertan, 2008-2009ko Planaren oinarrizko ildo estrategikoak eta ekonomikoak aurreratu ziren. Dokumentu hori Giza Eskubideetan oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Sailarteko Batzordearekin adostu ondoren, Plangintza eta Gai Ekonomikoetarako Batzorde Delegatuari aurkeztu zitzaion eta, azkenik, 2007ko maiatzaren 17an onartu zen behin betiko. Dokumentu hori da Planaren egungo bertsioaren azken aurrekaria, hots, 2007ko ekainaren zirriborroa lantzeko oinarria.

Zirriborro hori Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordearen Biktimen Ponentziari aurkeztu zitzaion 2007ko ekainaren 27an, eta ekarpenak egiteko beste epe bat zabaldu zen Legebiltzarreko taldeentzat zein beste erakunde-eremu batzuentzat eta gizarte zibilarentzat. Epe hori irailaren amaieran itxi zen ofizialki, eta, bidezkoak ziren ekarpenak txertatu ondoren, gaur egungo Planaren bertsioa sortu da.

2.4.3.- ARAU TESTUINGURUA

Giza Eskubideetan eta Bakean oinarrituriko Hezkuntzako Euskal Planak, VIII. Legealdia —2005-2009— betez, Jaurlaritzaren Jarduna Planifikatzeko Dokumentuan bilduriko zenbait proiektuekin bat egiten du modu natural eta errazean. Eta bereziki, Terrorismoaren Biktimekiko elkartasun Legearen Proiektuekin.

2005eko otsailaren 17 eta 18an Eusko Legebiltzarrean hartutako akordioetan jatorria ere baduen lege-proiektu horrek jarduerarako esparru orokorra emango du gai horretarako. Proiektu horrek terrorismoaren biktimekiko sektoreko arlo guztiak arautu nahi ditu eta horrela, aurreikus daiteke, hezkuntza-arloko zenbait xedapen bilduko dituela, ondoren Giza Eskubideetan eta Bakean oinarrituriko Hezkuntzako Euskal Planak zehaztuko dituelarik. Giza Eskubideetan eta Bakean oinarrituriko Hezkuntza Planak bere gain hartzen ditu,

oinarrizko lehentasun gisa, orokorrean terrorismoaren biktimen aurka egiten diren giza eskubideen urratzei dagokienez gizartearen sentsibiltatea handitzea helburutzat duten hezkuntzaren arloko esku-hartze guztiak, eta bereziki, belaunaldi berrien sentsibiltatea handitu nahi dutenak. Horrela, prebentzio gisa, gure gazteei biolentzia errotik ukatu eta deslegitimatzen laguntzeko.

Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana lotuta dago, halaber, Euskadin giza eskubideen eta askatasunen alde egingo duen Behatokia sortzeko Lege Proiektuarekin. Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Euskal Planak etorkizunean Behatokia izango dela hartzen du kontuan. Behatokiak Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzara mugatutakoa baino askoz esparru zabalagoa izango du, baina, zalantzarik gabe, jardun sektorialak ere kontuan hartuko ditu.

2. 5. EAE-KO BIZIKIDETZARAKO ETA BAKERAKO HEZKUNTZAREN EGOERARI BURUZKO DIAGNOSTIKOA

2. 5. 1. HITZAURREA

Plangintza egokia egiteko, beharrezkoa da esku-hartze sektorearen abiapuntua ezagutzea, baita benetan eskuragarri dauden baliabide materialak eta giza baliabideak ezagutzea ere. Helburuak argi edukitzea da lehenengo urratsa, baina ez da nahikoa, boluntarismo soilak eragin baitezake hezteko lanean parte hartu behar duten erakundeek eta gizarte-indarren benetako eragin-ahalmena zenbatekoa den jakiteko gai izan ezean. Giza Eskubideen Goi Komisarioak Giza Eskubideen arloko Ekintza Planak egiteko ezarritako jarraibideek ezinbestekotzat jotzen dute plangintza-lana eta estrategia eta bitartekoak identifikatzeko lanak ekintza politiko errealista ahalbidetuko duen hasierako diagnostiko batekin laguntzea. Diagnostikorik gabe, plangintza itsua da.

Horregatik, Plana aurkeztuko zela aurreikusiz, Euskadik Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzak zuen egoerari buruzko diagnostiko eguneratu osoa eskatu zen 2006. urtearen amaieran. Diagnostiko hori ez zen hutsetik hasi. Izan ere, 2000. urtean, Eusko Jaurlaritzan teknikari eta aditu talde bat eratu zen, Euskal Autonomia Erkidegoko bakearen aldeko hezkuntza formalaren eta ez-formalaren inguruko errealitatearen, premien eta proposamenen berri emango zuen egoera-mapa egiteko. Lan horren ondorioz, bi azterlan argitaratu ziren (2004-2005), bizikidetzan eta bakean oinarritutako hezkuntza eskola-esparruan eta hezkuntza ez-formalean zertan den aditzera emateko helburuarekin, eta biak ere funtsezkoak gertatu dira Eusko Jaurlaritzak gai horretan garatu beharreko politikak zehazteko.

Orain, lehen diagnostiko hori eguneratu eta zabaldu egin behar da. Baina hori bakarrik ez. Hasieratik aurreikusi da informatika-tresna bat egingo dela, eta hori aintzat hartuta planteatu da diagnostikoa. Tresna horrek, lehen emaitza eman ondoren, aukera emango du ahaleginak bikoiztu gabe ebaluazio-tresna arin bat sortzeko, Plana gauzatzeko prozesuan balia dadin. Izan ere, abiapuntua ezagutu gabe plangintzarik egitea ezinezkoa den bezala, ebaluazio-tresnarik gabe emaitzen progresioa ziurtatzea ere ezinezkoa da.

Diagnostikoak, beraz, plangintza eraginkorra egiteko abiapuntu argia eta zehatza ematen digu, eta, aldi berean, ebaluatzeko eta informazioa etengabe eguneratzeko etorkizuneko tresnak aurrera egiten du. Eta hirugarren helburu bat ere bete du: Planaren diseinu estrategikoan parte hartu ahal izatea. Tresna egiterakoan erabilitako metodologiak ahalbidetu du parte-hartze hori, informazioa biltzeaz gain, praktika onak, indarguneak, ahuleziak, gabeziak eta abar identifikatzeko funtsezkoa den informazioa lortzera bideratutako eztabaida-taldeak eta inkesta-metodo kualitatiboak erabili baitira. Eztabaida-taldeak giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntza bultzatzeko funtsezkoak diren sektoreek osatzen dituzte (erakundeek, ikastetxeetako eragileek, gobernuz kanpoko erakundeek eta elkarteek...). Horiek adierazi dute zer egin den eta zer ez, eta, aldi beran, beren ikuspegi estrategikoa eta etorkizunerako lehentasunak azaldu dituzte. Informazioaren bilketa, azken buruan, helburu nagusia eta Planaren egitura azaltzeko erabilitako eztabaida-foro iraunkorra izan da.

2.5.2. LAN PROZESUA

Lan-prozesuaren helburua Eusko Jaurlaritzak Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren inguruan egindako jardunak bideratzea izan da, eremu horietan gizarte-sentsibilizazioa, prestakuntza eta jardunak susta ditzaten.

Horretarako, Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako lanetan nolabait ere inplikaturik dauden eragileak parte hartzera gonbidatu dira, arlo horren sustapenean eta lanean egunez egun aurkitzen dituzten premia eta oztopo nagusiak ezagutaraz ditzaten. Hortik abiatuta, Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako politikak gidatuko zituzten jardun-ildo seguruak identifikatzeko proposamenak sortu nahi ziren.

Azken buruan, erreferentziako azterlanak EAEn Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren garapena bultzatzeko baliabide berria izan nahi du, gauzatzen ari diren ekimenak ezagutzeko eta bana daitezkeen errazteko, eta praktika onak eta ekimen esanguratsuak Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideen Zuzendaritza 2007tik garatzen ari den Ekintza Planean txertatzeko.

Hortaz, planteatutako premiari erantzuna emateko pentsatua dago diagnostikoa, honako hauek eduki ahal izateko helburuarekin:

- hainbat erakunde publiko eta pribatu EAEn diruz laguntzen ari diren eta Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzarekin zerikusi zuzena duten baliabideen, eragileen eta ekimen publiko eta pribatuko programen deskribapena;

- hainbat elkarte eta erakunde publiko EAEko hiru Lurralde Historikoetan sustatzen ari diren programen eta ekimenen azterketa espezifikoa; eta
- EAEn arlo horren inguruan abian jarri diren ekimenei buruzko informazioa biltzeko eta horiek aldizka ebaluatzeko tresna bat.

Horretarako, gizarte-erakunde pribatuak eta erakunde publikoak web formatuko datu-base batean (**web-tresna**) irauli dute erakundeari berari buruzko eta Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloan orain arte garatu dituzten ekintza guztiei buruzko informazioa.

Bestalde, EAEn Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloan egiten ari dena modu sistematizatuan ezagutzearen garrantziak eremu horren inguruko azken 20 urteetako errealitatea berrikusteko beharra eragin du.

Horrela, beraz, Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloan lan egiten duten erakundeei eta baliabideei buruzko informazioa sistematizatu eta aztertu nahi izan da, baita helburu hori lortzeko garatu diren programa eta ekintzak ere.

1988 eta 2006. urteak bitartean Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko hezkuntzaren inguruan izan diren aginduak eta diru-laguntzetarako ebazpenak hartu dira abiapuntutzat. Agindu eta ebazpen horiek aztertuz identifikatu dira ia 20 urteko epe horretan diruz lagundu diren baliabideak eta programak, jaso diren diru-laguntzen zenbatekoa eta ekintza horiek diruz lagundu dituzten erakundeak eta sailak

Azkenik, maila kualitatiboan, elkarrizketa sakonak egin dira erakunde-eragileekin, eztabaida-taldeekin eta arlo horretako ekintzen diseinuaz eta inplementazioaz arduratu diren gizarte-eragileekin.

Elkarrizketetarako, administrazio publikoan egiten duten lanagatik, eta ikerketan parte hartuz, erakunde-ikuspegia eskaini diezaguketen hamar pertsona hautatu dira guztira¹. Lagina osatzen duten pertsonen multzoa, bere aldetik, hiru taldetan sailkatu litezke, eta horiek bi gobernu maila desberdinetan kokatzen dira: batetik, Autonomia Erkidegoari eta lurralde-mailari dagokiena eta, bestetik, Giza Eskubideetan eskusiboki lan egiten duten erakunde autonomiadunei dagokiena.

¹ Giza Eskubideen Zuzendaritza, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza, Immigrazio Zuzendaritza, Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza, Lehendakaritza, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia, Emakunde.

2.5.3 ONDORIO NAGUSIAK


Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza zaila da definitzen. Hala ere, Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza zer den eta jakintzagai horren bidez zer eduki landu behar diren zehazteko zailtasunak gorabehera, gehienak ados daude arlo horretan plangintza estrategiko bat izatea oso garrantzitsua dela adieraztean.

Administrazio publikoek gai horretan egin duten lana, oinarrian, diru-laguntzak ematea baino ez da izan. Berez, azken 19 urteotan, Eusko Jaurlaritzako sailek eta Espainiako Gobernuak Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak² **9.478.103,18 €** inbertitu dituzte guztira EAEn bakea eta giza eskubideak sustatzeko. Aztertutako diru-laguntzaren % 99tik gora, zehazkiago 9.447.103,18 €, Eusko Jaurlaritzaren eskutik etorri da, eta Espainiako Gobernuak proiektuei emandako diru-laguntza 31.000 €-koa izan da.

Zehazki, bakearen eta giza eskubideen aldeko proiektuetarako diru kopuruaren % 69 Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak eman du, % 12 Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta beste % 12 Herrizaingo Sailak. Kultura Sailaren ekarpena, berriz, 9.478.103,18 €-ko guztizko kopuruaren % 7 izan da.

² Txosten honetan aztertzen diren laguntzak Eusko Jaurlaritzako sailek emandakoak dira, Espainiako Gobernuaren Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren 2006. urteko laguntzak izan ezik; izan ere, horiek jaso zituzten proiektuetako batzuk EAEko entitateenak baitziren.

1. GRAFIKOA: 1988-2006 ALDIKO ZENBATEKOA, SAILEN ARABERA




1988-2006 epean EAEko **628³ entitatek** jaso dituzte Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko hezkuntza dela-eta sail desberdinek ematen dituzten era horretako diru-laguntzak.

Diruz lagundutako erakunde guztien % 62 ikastetxeak dira, eta % 29 erakunde pribatuak. Udalak % 7ra iristen dira, eta % 2 *beste batzuk* atalean sailkatutako erakundeak dira (pertsonek individualak, unibertsitateak, institutuak eta HHLak).

³ Gogoratu beharra dago 628 kasu horien barnean 7 pertsona individual eta EAEn ez dagoen erakunde 1 ere badaudela txosten honetan aztertu diren Eusko Jaurlaritzaren laguntzetako bat jaso baitute.


2. GRAFIKOA: 1998-2006 ALDIAN DIRUZ LAGUNDUTAKO ERAKUNDEAK, ERAKUNDE MOTAREN ARABERA



628 Erakunde horiek Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntza sustatzeko **2.068 proiektu** aurkeztu dituzte guztira.

Proiektuen % 48 ikastetxeek aurkeztu dute, % 43 erakunde pribatuek, eta % 7 udalek. Azkenik, proiektuen % 2 pertsona indibidualek, unibertsitateek eta HHEek aurkeztu dute.

3. GRAFIKOA: 1998-2006 ALDIAN DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK, ERAKUNDE MOTAREN ARABERA



Orain arte, proiektuak diruz laguntzeko irizpidea ezarri duen arau-esparrurik ez da izan, eta arlo horretarako baliabide ekonomikoak erabili dituen Sail bakoitzak era autonomoan erabili ditu, beste Sail batzuek zer finantzatzen ari ziren kontuan hartu gabe. Egoera horren ondorioz, ekintzen "mare magnum" bat sortu da, formalki planifikatutako inolako loturarik gabe.

Oro har, orain arte egindako guztia antolatzeko, jakintzagaiak sektore guztietan izan duen benetako garapena nolako izan den jakiteko eta EAEn horren inguruan egindako lanaren eta erabilitako baliabideen argazki erreala izateko ordua iritsi dela pentsatzen da.

Horretarako, eta azken urteotan Bakearen eta Eskubideen aldeko Hezkuntzaren inguruan gauzatu diren ekintzen mapa lortzeko, erakunde pribatuek⁴ (30 erakunderen 139 ekintza jaso dira) zein publikoek⁵ (bederatzi erakunde publikoren 56 ekintza jaso dira) 2006 eta 2007. urteetan abian jarritako ekintza bildu eta aztertu dira.


Jasotako lehen alderdietako bat ekintzak egin diren eremu geografikoa da, ekintza horien jardun-eremua zein den jakiteko aukera ematen baitu. Lehentasunezko eremua Autonomia Erkidegoa da erakunde pribatuentzat zein publikoentzat, eta ehunekoetan alde nabarmena dago hurrengo aukerarekin konparatuta.

Lurralde historikoen arteko aldeak oso handiak ez badira ere, Bizkaiak agertzen du alderik esanguratsuena erakunde pribatuen eta publikoen artean. Izan ere, erakunde pribatuen ekintzen % 7,2 lurralde horretan egin da. Erakunde publikoek, berriz, ia ez dute ekintzarik egin bertan. Toki-eremuan egindako ekintzekin ere antzeko zerbait gertatzen da, eta ia zazpi puntu beherago geratu dira nazioartean egindakoekin konparatuta (% 15,1 erakunde pribatuek eta % 7,1 publikoek nazioartean).


⁴ A.C. Eurocampus, Aldarte, Apside, Asamblea de Cooperación por la Paz, Asmoz fundazioa, Asoc. Arco, Asoc. Colectivo de Colombianos refugiados en euskadi Bachue, Ikertze, Zinhezba, Goitibera, Izan, Zubietxe, Baketik, Ede Fundazioa, Euskadiko Gazteriaren Kontseilua, Euskalerriko eskautak, Fecapp, Fomed, Fundación Itaka, Gernika Gogoratzuz, Gernikako Bakearen museoa, Geuz, Instituto Europa de los pueblos, Interred Euskalerria, Jesús Maria Leizaola KultutKultur Elkarte, Lokarri, Énfasis, Suspergintza Elkarte, UNESCO etxea, UNICEF

⁵ Giza Eskubideen Zuzendaritza, Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza, Gazteria eta Zuzendaritza, Immigrazio Zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia, Arabako Foru Aldundia, Arartekoa eta Eudel.

4. GRAFIKOA: ERAKUNDE PRIBATUEN EKINTZEN JARDUN EREMU GEOGRAFIKOA. (%)



5. GRAFIKOA: ERAKUNDE PUBLIKOEN EKINTZEN JARDUN EREMU GEOGRAFIKOA. (%)



Bestalde, erakunde pribatuek eta publikoek egindako ekintza guztietatik lankidetzan kudeatutakoak zenbat izan diren jakiteak aukera ematen du, alde batetik, baliabide propioekin kudeatutako ekintzen ehunekoa lortzeko, eta, bestetik, batera kudeatutako ekintzetan zein erakunderekin aritzen den gehien lankidetzan jakiteko. Zehazki, erakunde pribatuen % 53k eta erakunde publikoen % 37,5ek adierazi du ekintzak beste erakunderen batekin lankidetzan kudeatu dituela.

1. TAULA: LANKIDETZAN KUDEATUTAKO EKINTZAK (%)

Lankidetzan kudeatutako ekintzak		
	Pribatuak	Publikoak
Bai	% 53	% 37,5
Ez	% 43	% 59
Ed/Ee	% 4	% 3,5

Horietatik guztietatik, erakunde pribatuek egindako ekintzen % 26 "Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailarekin" lankidetzan kudeatu da, % 18 "Beste batzuk" atalaren barruan sartutako erakunde pribatuekin,

eta % 16 Eusko Jaurlaritzaren “Kultura Sailarekin”. Erakunde publikoek, berriz, honako hauekin lankidetzan kudeatu dituzte beren ekintzak: “Elkarteak / Fundazioak” (ekintzen % 33), “Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila” (% 29), eta “Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila”, “Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila” eta “Beste batzuk” atalaren barruan sartutako erakunde pribatuak (% 19).

2. TAULA: ERAKUNDE PRIBATUEN EKINTZEN KUDEAKETA LANKIDETZAN (%)

Kudeaketa lankidetzan*	
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. EJ, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza	26
Lankidetzta-erakundeak: pribatuak. Beste batzuk	18
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. EJ, Kultura	16
Lankidetzta-erakundeak: pribatuak. Elkarateak, fundazioak	8
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. EJ, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	7
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. EJ, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	7
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. EJ, Beste batzuk	7
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. Bizkaiko Aldundia	7
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. Beste batzuk	7
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. EJ, Herrizaingo Saila	5
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. Arabako Aldundia	4
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. Ikastetxeak	4
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. Gipuzkoako Aldundia	3
Lankidetzta-erakundeak: pribatuak. Ikastetxeak	3
Lankidetzta-erakundeak: pribatuak. Finantza-erakundeak	0

*Askotariko erantzuna: ez da % 100era iristen

3. TAULA: ERAKUNDE PUBLIKOEN EKINTZEN KUDEAKETA LANKIDETZAN (%)

Kudeaketa lankidetzan*	
Lankidetzta-erakundeak: pribatuak. Elkarateak, fundazioak	33
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. EJ, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza	29
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. EJ, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa	19
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. EJ, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila	19
Lankidetzta-erakundeak: pribatuak. Beste batzuk	19
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. EJ, Kultura	14
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. EJ, Beste batzuk	14
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. EJ, Herrizaingo Saila	9,5
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. Ikastetxeak	9,5
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. Beste batzuk	9,5
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. Gipuzkoako Aldundia	5
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. Arabako Aldundia	5
Lankidetzta-erakundeak: pribatuak. Finantza-erakundeak	5
Lankidetzta-erakundeak: publikoak. Bizkaiko Aldundia	0
Lankidetzta-erakundeak: pribatuak. Ikastetxeak	0

*Askotariko erantzuna: ez da % 100era iristen

Bestalde, azterlanean parte hartu duten erakundeek ekintzen talde hartzaileen artean, lehentasunezkoak "ikastetxeak" izan dira erakunde pribatuentzat (ekintzen % 52), eta, ondoren, "Elkarteak/Fundazioak" eta, biztanleria orokorreko taldeen artean, "Haurrak, nerabeak eta gazteak" (ekintzen % 45).

4. TAULA: ERAKUNDE PRIBATUEN EKINTZEN TALDE HARTZAILEAK (%)

TALDE HARTZAILEAK*	
Erakunde pribatuak: ikastetxeak	52
Biztanleria orokorreko taldeak: haurrak, nerabeak eta gazteak	45,5
Erakunde pribatuak: elkarteak, fundazioak	45,5
Biztanleria orokorreko taldeak: profesionalak	42
Erakunde publikoak: ikastetxeak	40
Biztanleria orokorreko taldeak: emakumeak	37
Biztanleria orokorreko taldeak: adinekoak	37
Biztanleria orokorreko taldeak: familia	36
Biztanleria orokorreko taldeak: beste pertsona batzuk	29
Erakunde publikoak: udalak	28
Erakunde publikoak: Eusko Jaurlaritza	26
Erakunde publikoak: Foru Aldundiak	18
Erakunde pribatuak: beste batzuk	13
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: etorkinak, errefuxiatuak	13
Erakunde publikoak: beste batzuk	12
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: auzokoak eta erabiltzaileak	11
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: garapen-bidean dauden herrialdeetako herritarrak	10
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: gutxiengo etnikoak	10
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: beste talde batzuk	7
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: gayak, lesbianak, transexualak eta bisexualak	6
Beste batzuk	2
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: presoak, preso ohiak	1,5
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: ezintasun fisikoa, intelektuala edo sensoriala duten pertsonak	1
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: drogaren mendekoak, atxikimenduak dituzten pertsonak	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: tratu txarrak hartutako emakumeak	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: mendetasuna duten pertsonak (adinekoak eta abar) edo gaixoak	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: langabeak	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: prostitutak	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: pasadizokoak, etxerik gabekoak	0

*Askotariko erantzuna: ez da % 100era iristen

Erakunde publikoek, berriz, "Elkarte / Fundazioekin" lan egiten dute ekintzen % 33an, "ikastetxe" publikoekin zein pribatuekin ekintzen % 30ean, eta, biztanleria orokorreko taldeen artean, "profesionalekin" ekintzen % 28an.

5. TAULA: ERAKUNDE PUBLIKOEN EKINTZEN TALDE HARTZAILEAK (%)

TALDE HARTZAILEAK	%
Erakunde pribatuak: elkarteak, fundazioak	33
Erakunde pribatuak: ikastetxeak	30
Erakunde publikoak: ikastetxeak	30
Taldeak: profesionalak	28
Biztanleria orokorreko taldeak: beste pertsona batzuk	26
Erakunde publikoak: udalak	22
Biztanleria orokorreko taldeak: familia	20
Biztanleria orokorreko taldeak: haurrak, nerabeak eta gazteak	18,5
Erakunde publikoak: Eusko Jaurlaritza	17
Erakunde publikoak: Foru Aldundiak	15
Biztanleria orokorreko taldeak: emakumeak	13
Biztanleria orokorreko taldeak: adinekoak	13
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: etorkinak, errefuxiatuak	13
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: garapen-bidean dauden herrialdeetako herritarrak	6
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: gutxiengo etnikoak	4
Erakunde pribatuak: beste batzuk	2
Beste batzuk	2
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: ezintasun fisikoa, intelektuala edo sensoriala duten pertsonak	2
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: auzokoak eta erabiltzaileak	2
Erakunde publikoak: beste batzuk	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: drogaren mendekoak, atxikimenduak dituzten pertsonak	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: gayak, lesbianak, transexualak eta bisexualak	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: tratu txarrak hartutako emakumeak	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: beste talde batzuk	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: mendetasuna duten pertsonak (adinekoak eta abar) edo gaixoak	0

Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: langabeak	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: presoak, preso ohiak	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: prostitutak	0
Bazterkeria-egoeran edo bazterkeria-arriskuan dauden taldeak: pasadizokoak, etxerik gabekoak	0

Jarduera mota guztiak eta horietako bakoitzean landutako dimentsioak ezagutzeak aukera ematen du garrantzia zeri eman zaion eta hemendik aurrera lana norantz bideratu beharko litzatekeen jakiteko.

Horrela, erakunde pribatuek, neurri handi batean, "Zabalkundea eta Sentsibilizazioa" (% 67), "Prestakuntza" (% 52,5) eta "Ikerketa eta Gogoeta" (% 45) landu dituzte. Lan hori bat etorri da entitate publikoek egindakoarekin; izan ere, horiek ere "Zabalkundea eta Sentsibilizazioa" (% 68,5), "Ikerketa eta gogoeta" (% 46) eta "Prestakuntza" (% 44) sustatzeko ekintzak garatu baitituzte.


Gutxien landutako ekintza motak, berriz, honako hauek izan dira, erakunde publikoen zein pribatuen kasuan: "Beste batzuk" eta "Mobilizazioa".

6. TAULA: ERAKUNDE PRIVATUEN ETA PUBLIKOEN EKINTZEKIN LANDUTAKO JARDUERAK (%)

Jarduerak	Erakunde pribatuak	Erakunde publikoak
Prestakuntza	52,5	44
Aholkularitza eta kontsultoretza	30	20
Ikerketa eta gogoeta	45	46
Mobilizazioa	11	9
Zabalkundea eta sentsibilizazioa	67	68,5
Dokumentazioa eta informazioa	25	18,5
Materialen eta argitalpenen produkzioa	28	37
Esku hartzeko programak	22	22
Beste batzuk	7	11

*Askotariko erantzuna: ez da %100era iristen

6. GRAFIKOA: ERAKUNDE PRIBATUEN ETA PUBLIKOEN EKINTZEKIN LANDUTAKO JARDUERAK. (%)



1.- Prestakuntza

2.- Aholkularitza eta kontsultoretza

3.- Ikerketa eta gogoeta

4.- Mobilizazioa

5.- Zabalkundea eta sentsibilizazioa

6.- Dokumentazioa eta informazioa

7.- Materialen produkzioa eta argitalpenak


8.- Esku hartzeko programak

9.- Beste batzuk


Ekintzen bidez landu diren dimentsioei dagokienez, "Giza Eskubideak" dimentsioa nabarmentzen da eta, jarraian, "Balioetan oinarritutako hezkuntza" eta "Gatazkarako Hezkuntza" kokatu dira erakunde pribatu zein publikoek gehien jorratu dituztenen artean.

Gutxien landutako dimentsioa, berriz, "Euskal gatazka" izan da (% 9). Era berean, honako dimentsio hauek azken postuetan agertzen dira: "Garapenaren eta lankidetzaren aldeko hezkuntza" (% 21), "Hezkuntza antimilitarista eta desarmearen aldekoa" (% 11,5) eta "Garapen iraunkorraren aldeko hezkuntza" (% 10).

8. GRAFIKOA: ERAKUNDE PUBLIKOEN EKINTZEN JARDUN DIMENTSIONAK. (%)




9. GRAFIKOA: ERAKUNDE PRIVATUEN EKINTZEN JARDUN DIMENTSIONAK. (%)




Egindako ekintzen eragina balioesteko garaian, ebaluazio-adierazleak bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzako hamar ekintzatik hirutan baino erabili ez direla utzi dute agerian erakunde pribatuek zein publikoek. Hala ere, erakunde publikoen ehunekoa erakunde pribatuena baino handixeagoa da (% 37,5 eta % 33, hurrenez hurren).

10. GRAFIKOA: EBALUAZIO ADIERAZLEEN EHUNEKOA



Lurraldeei dagokienez, garapena desberdina izan da. Gipuzkoako Foru Aldundia aitzindaria izan da arlo horretan erreferentzia izango zen Giza Eskubideetarako departamentu baten aldeko apustuan. Arabako Foru Aldundiak, berriz, estaldura ekonomikoa berriazko laguntza-ildo baten bidez ematea erabaki du, eta lurraldeko gizarte-erakundeen esku utzi du lana. Azkenik, Bizkaiko Foru Aldundiak ez du ezein politika aktiborik garatu arlo horretan. Gobernuak, aldiz, lurralde historikoetan banatutako estaldura ekonomikoa eman du, eta Bizkaia izan da baliabide gehien jaso dituen.

11. GRAFIKOA: ZENBATEKOAREN BILAKAERA LURRALDE HISTORIKOAREN ARABERA



TAULA: LURRALDE HISTORIKO BAKOITZEKO ZENBATEKOA 1988-2006 ALDIAN

LURRALDE HISTORIKOA	ZENBATEKOA
ARABA	824.832,45€
BIZKAIA	5.225.641,6€
GIPUZKOA	2.544.638,53€

EAE	572.044,69€
BESTE BATZUK	48.300€
ED/EE	262.645,91€
GUZTIRA	9.478.103,18€

Ezer gutxi dakigu udal-eremuan egindako lanaz. Oro har, giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntza lantzea zer den eta hezkuntza hori udal-errealitatera praktikan nola eraman behar den ezarriko duen irizpide komun baten gabezia datza maila horretako lanaren zailtasuna.

EUDEL – Euskadiko Udalen Elkartearen bitartez lortutako datuek erakusten dutenez, Bizkaiko lurralde historikoko udalen % 18,7k, Gipuzkoako udalen % 14,7k eta Arabako udalen % 9,8k egin du ekintzaren bat Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan.

Grafikoa: Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren ekintzaren bat egin duten EAEko udalak

Lurralde Historikoa	Udalerrien guztizko kop.	Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza landu duten udalerrien kopurua	%
Bizkaia	112	21	% 18,7
Gipuzkoa	88	13	% 14,7
Araba	51	5	% 9,8

Iturria: Eudel

Bestalde, EAEko udalek egindako ekintza motak ez datoz bat web-tresnan aldeztatik ezarritakoekin. Izan ere, EUDELek landutako sailkapenari jarraitzen dio, baina udalek egindako lanaren ikuspegi esanguratsu bat eskaintzen du. Horrela, beraz, udalek egindako ekintza guztien % 42,8 Bizkaian landu da, % 34,2 Gipuzkoan eta % 23 Arabako lurralde historikoan.

Gehien landu diren ekintzak “Beste jarduera batzuk” epigrafean sartutakoak izan dira (% 35,8). Epigrafe horrek askotariko ekintza ugari biltzen ditu: bakearen eta giza eskubideen aldeko nazioarteko egunak, antzerkiak, jaialdiak eta abar. Horien atzetik, “Bakearen aldeko Hezkuntzari” lotutako ekintzak, eta bakearen eta giza eskubideen inguruko hainbat gairi buruzko erakusketak daude (% 25,3 eta % 11,9, hurrenez hurren).

7. GRAFIKOA: EAE-KO UDALEK BAKEAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN ALDEKO HEZKUNTZAREN INGURUAN EGINDAKO EKINTZAK			7. TAULA: EAE-KO UDALEN EKINTZA MOTAK	
Lurralde Historikoa	Ekintzen kopurua	%		%
Bizkaia	65	42,8	Beste jarduera batzuk ⁶	% 35,8
Gipuzkoa	52	34,2	Bakearen aldeko Hezkuntza ⁷	% 25,3
Araba	35	23	Erakusketak	% 11,9
Guztira	152	100	Akordioak eta dokumentuak	% 11,1
			Ikastaroak eta jardunaldiak	% 7,4
			Zikloak eta zinema-emanaldiak	% 4,4
			Foroak	% 2,2
			Bakearen aldeko kontzertuak	% 1,9

⁶ Epigrafe horrek honako ekintza mota hauek biltzen ditu: bakearen aldeko nazioarteko egunak, antzerkiak eta abar.

⁷ Epigrafe horrek honako ekintza mota hauek biltzen ditu: ludoteka kooperatiboak, tailerrak eta abar.

Aurkeztutako informazioaren bilketaren bidez lortutako datuen azterketatik ondoriozta daitekeenez, Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren esparruan garatutako lanaren zati garrantzitsu bat gizarte-erakundeek egin dute. Erakunde horien bultzadari eta lanari esker atera dira proiektu eta jardun-ildo nagusiak, bai EAEkoak baita toki-arlokoak ere.

Hortaz, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana diseinatzeko eta ezartzeko, gizarte-erakundeak hartuko dira oinarri gisa.

Herri Administrazioek, 1998. urtetik aurrera, 9.478.103,18 € eman dituzte ekintzak eta proiektuak garatzeko. Horietatik, % 99 baino gehiago Eusko Jaurlaritzak eman du.

Gizarte-erakundeek eta herri-administrazioek garatutako ekintza gehienek (% 70,5ek eta % 80,4k, hurrenez hurren) EAE osoa hartzen dute jardun-eremu gisa.

Erkidegoko administrazioaren bultzadak eta gidaritzak bermatzen du ekintzak EAE osoan egitea.

Toki-eremuan edo udal-eremuan, berriz, lana urria izan da. Alde batetik, EAEko 251 udalerritatik 39k baino ez dituzte egin berariazko ekintzak, hau da, % 15ek. Beraz, Udalek egiten duten lanaren irudikapen horrek tokiko lanaren benetako bultzada behar dela erakusten du. Era berean, udal-eremuan egindako ekintzen % **79,3** gizarte-sentsibilizaziora (nazioarteko egunak, ekitaldiak, kontzertuak eta abar) bideratutako **programa puntualak dira**, eta % 20,7k baino ez du izaera iraunkorra (akordioak eta dokumentuak, ikastaroak eta foroak).

Bestalde, erakunde pribatuek egindako ekintzen % 8,6k toki-eremua du jardun-esparru geografiko gisa.

Beraz, beharrezkoa da erakundeen bultzada, toki-arloan gizarte-trebakuntzara eta gizartearen parte-hartzea bultzatzera bideratutako ekintza iraunkorrak garatzeko, behar bezalako baliabide-hornidurarekin.

Garatutako hamar ekintzetatik zazpik **ez dute ebaluazio-adierazlerik**, ez erakunde pribatuetan ezta administrazio publikoan ere. Datu horretatik ondorioztatzen da administrazioek zein erakunde pribatuek dauden premien azterketan oinarritutako programak eta proiektuak ezartzeko beharra, baita horien ebaluazioa egiteko aukera emango duten adierazle batzuk zehaztekoa ere.

Garatuko diren ekintzak, programak eta proiektuak adierazle komun batzuen arabera ebaluatu behar dira.

Administrazioak diruz lagundutako ekintza moten eta gizarte-erakundeek garatutakoen artean korrelazio garrantzitsua atzeman da. Nolanahi ere, administrazio publikotik jakinarazi da Gizarte Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren **dimentsioak mugatzeko eta definitzeko beharra**, baita gai horri buruzko proiektuak ere.

Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzaren eremuan printzipioak, dimentsioak eta ekintzak sozializatzea bereziki herri-administrazioek adierazitako premia da.

Gizarte-erakundeek jakinarazi dute **erakundeen arteko koordinazioa** beharrezkoa dela, baita herri-administrazioen aldetik **programa eta proiektu egonkorak sustatuko dituzten lan-ildo batzuk zehaztea** ere.

Hezkuntza-sistema formalaren egiturak baliabideak modu orekatuan banatzea ahalbidetzen du, biztanleen eta gai horretan zein beste gai batzuetan eskuragarri dauden baliabideen arabera. Herri-administrazioetan gai horri buruzko proiektuak garatzeko egitura formalizaturik ez izateak agerian uzten du baliabideak koordinatzeko eta banatzeko gutxieneko egitura bat ezartzeko beharra.

Plana gauzatzeko, beharrezkoa da koordinazio- eta bultzada-egitura bat egotea, garatutako ekintzak eta eskuragarri dauden baliabideen banaketa zuzentzeko, behar diren irizpideak emanez.

Arlo horren zeharkako izaera dela-eta, hainbat sail hartzen ditu eraginpean, eta beharrezkoa da sail batek gidaritza bere gain hartzea eta koordinazio-irizpideak sail guztiek batera adostea, baliabideak optimizatzeko, erakundeentzat interesa duten proiektuak bultzatzeko eta EAEn arlo horretan egiten denaren ikuspegi orokorra izateko aukera erraztuko duten irizpideak, alegia.

Administrazioak bultzatuta Erkidegoaren eremuan lan-prozesuak sortzeko asmoz egiten ari diren esperientzia pilotuak norantz joan nahi den erakusten duten adierazle positiboak dira. Izan ere, prozesuen bidez jardun behar da. Prozesu horietan, emaitzak epe ertainera eta luzera lortzen dira, balioekin hertsiki lotutako edozein arlotan gertatzen den bezala.

Euskal Ekintza Planak jarraibideak arautu eta ezarriko dituen, eta giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzako etorkizuneko jardunak gidatuko dituen esparru bat ezartzeko eskaintzen duen aukera oso beharrezkoa da, baina lan-ereduak eta koordinazioak antolatzeak zailtasunak dakartza, EAEko administrazio-sistema oso konplexua baita.

Oro har, Euskal Planerako proposatutako koordinazio-ereduak honako bi hauetan laburbil daitezke: alde batetik, komunikazioaren bermatzaile eta ardatz gisa Giza Eskubideen Zuzendaritza izango duen alde biko sistema, eta, bestetik, hiru administrazio-mailekin (Eusko Jaurlaritza, Aldundiak eta Udalak) lan-batzorde politikoak eta/edo teknikoak sortzean oinarritutako sistema.

Bi kasuetan, Planak ezarriko duen esparruak izan beharko lituzkeen zenbait ezaugarri daude adierazita: malgutasuna eta zehaztasuna. Bi terminoak kontraesankorrak direla badirudi ere, honako hau da planteatzen dena: eragile bakoitzari zer egin nahi duen askatasun osoz erabakitzeke aukera emango dion, baina zehaztasun-maila guztietan berriazko ekintzak garatzeko tresnak eta orientazioa eskainiko duen esparrua.

Horrela, beraz, proposatutako eskumen-banaketa honako era honetan geratuko litzateke: Jaurlaritza Planaren ildo estrategikoak ezartzeaz arduratuko da. Aldundiek, berriz, beren errealitateen eta Planarekin hartu nahi dituzten konpromisoen arabera, beren lurraldera eramango dituzte ildo horiek. Azkenik, Udalen ardura ekintza guztiak azken hartzaileei, hots, herritarrei helaraztea izango da.

III – ZATI SUBSTANTIBOA

III – ZATI SUBSTANTIBOA

Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzako Euskal Planaren beharra azaldu da, jadanik, *Deskripzio Zatian*, konpromisoak, gomendioak eta eskakizun politiko eta juridikoak kontuan izatearen ondorioz sortutako ekintza gisa. Zalantzarik gabe, nazioarteko gomendioak bat datoz euskal gizarteak eta bertako erakundeek arlo horretan erantzun ditzaketan beharrekin, haien eboluzioa eta bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza errotzeko egindako lana kontuan izanik. Baina nazioarteko, Estatuko eta Euskadiko testuingurutik haratago, ez da bistatik galdu behar maila desberdinetan dauden eskakizun eta gomendio politikoak benetako behar batean oinarritzen direla: giza eskubideen, bakearen eta balio demokratikoen inguruko hezkuntza formala, ez formala eta informala esparruak koordinatzeko erronkari erantzutea. Bestela esanda: giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntza ez da soilik eskolaren edo hezkuntza sistema formalaren eskumena. Bizikidetzaren, giza eskubide unibertsalean duen arau-oinarria, indarkeriaren beharrezko deslegitimazioan duen baliokide negatiboa ..., horiek guztiak **erronka orokorrak** dira, gizarte- eta erakunde-eragile guztien erantzukizuna eta erantzuna eskatu, eragin eta dakartelako. Irakasleek ez ezik, familiek, gurasoen elkarteek, eskolaren inguruko gizarte-ehun antolatuak, gobernuz kanpoko erakundeek, aisialdiko taldeek, udal politikek, hedabideek (tokikoek zein orokorrek), lurralde historikoko gobernuen edo Eusko Jaurlaritzaren erakunde-jarduerak, herritarrek eta nazioarteko erakundeek ere, besteak beste, egin dezakete ekarpenen bat bizikidetzaren oinarriak gizarte demokratiko batean ezartzeko, —Nazio Batuen Erakundeak 1998. urtean Deklarazio Unibertsalaren 50. urteurreneko goiburuan zioen bezala— *“giza eskubide guztiak pertsona guztientzat”* onartu, errespetatu, aplikatu eta sustatu behar diren gizartean.

Bizikidetza demokratikorako funtsezkoak diren zenbait balio transmititzeko eta barneratzeko instantzia bakarra hezkuntza formalaren sistema –eskola– izateko ilusio faltsuaren aurka agertzen direnak gero eta gehiago dira. Hezkuntza-sistema hipertrofiatuta geratuko da bere esku soilik ez dagoenaren bermatzaile eta erantzule bakar bihurtu nahi bada. Hezkuntza-sistemaren zeregina funtsezkoa izango da, zalantzarik gabe, gizarte demokratikoak giza eskubideekiko, balio demokratikoekiko eta bakearekiko errespetu unibertsala errotzeko bultzatu beharreko informazio-funtzioa eta hezkuntza-funtzioa –eta bereziki jarrerak finkatzeko eta barneratzeko funtzioa– egituratzeko. Baina zeregin hori ez du bakarrik bete behar, estrategia koordinatu baten barruan baizik. Estrategia horretan, sozializazio-eragileek eta hezkuntza-eragileek mikroklima koherenteak sortu behar dituzte.

Planak erakundeen (Jauralaritzaren, Aldundien eta Udalen) politika publikoak era koordinatuan diseinatzea eskatzen du, baina ez da horretara mugatzen. Askoz urrutirago doa, hasieratik erakundeetako zein gizarte zibileko hezkuntza-eragileen sare osoaren –zentzu zabalean hartuta– inplikazioa lortu nahi duen eredu batean oinarritzen baita. Hezkuntza-sistema formalak, ez-formalak zein informalak egindako ahaleginak esparru berean jarri ahal izango dituzten jardun-programak definitu nahi dira. Lan errealista eta eraginkor batek **jardun-programa sistematikoa eta osagarria** bat eskatzen du. Programa horrek, derrigorrezko irakaskuntza eta derrigorrezko hezkuntzaren ondoko irakaskuntza formalaren eta arautuaren berariazko programa sektoriala bildu eta bereganatu ondoren, ikastetxeen barruan egiten diren hezkuntza-ahaleginak jasotzeko eta luzatzeko estrategiak definitzeko gai izan behar du. Bada giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzarako jardun-esparru bat irakaskuntza-sistema formalaren jarduna balioen sozializazioaren esparruan osatu eta indartu behar duena. Esparru horrek

porrot egingo du gizarte-inguruneen hezkuntza-ahalmena aktibatzeko gai ez bagara.

Hortaz, eskolak ez luke izan behar inguruko gizarte-prozesuen bilakaeratik kanpo dagoen kutxa bat. Eskola unitate bizia da, ekosistema konplexu eta elkarreragile batean beste unitate batzuekin bizi dena. Unitate bat – eskola– gizarte osoan agertzen diren egiturazko arloetan emaitzak emateko programatzea eta hori eskakizun bihurtzea (nahiz eta emaitza horiek prebentziozkoak baino ez izan) antzua izango litzateke. Horrela, beraz, Planak testuingurua ematen dio eskola-jardunari: testuingurua, jarraipena, osagarritasuna, errefortzua, dentsitatea, sakontasuna, eraginkortasuna...

Azken batean, une historiko zehatz honetan, **giza eskubideen eta bakearen kulturaren inguruan informazioa emateko eta trebatzeko, eta kultura hori sustatzeko eta zabaltzeko** lanaren **antolamendu-eredu** bat diseinatzean eta sortzean datza Planaren berariazkotasuna. Eredu horrek izan behar du:

- **Integrala:** hau da, hezkuntza-eragile potentzial guztiak –zentzurik zabalenean– kontuan hartuta antolatu behar du giza eskubideen kultura zabaltzeko lana.
- **Iraunkorra,** hau da, epe labur, ertain eta luzerako jardun-programa bat garatu behar du, luzaroan iraun beharrekoa. Ez da kanpaina puntual bat, hainbat hamarkadatan era jarraituan eta estrukturalean garatu beharreko lan iraunkorra baizik.
- Eta **Euskadirako** eredua izan behar du: egungo Euskadirako, XXI. mendean, dituen ezaugarri soziologikoekin eta bizikidetzaren eta giza eskubideen errespetuaren —edo errespetu faltaren— arloan

dituen berezitasunekin. Nazioarteko erakundeen gomendioetan sorburua duen eredia, bereziki Giza Eskubideen aldeko Nazio Batuen Goi Komisarioaren Bulegoarenetan, baina gure kultura eta errealitateari egokitua. Finean, nazioartean homologagarria den baina bere errealitateari begira dagoen eredia.

Ereduaren sorkuntzak, instituzionalizazioak eta behin betiko finkatzeak Planaren helburua, printzipio gidariak eta ildo estrategikoak baldintzatzen eta finkatzen dituzte. Ondoren, helburu, printzipio eta ildo horiek azalduko ditugu.

3.1.- HELBURUA

Euskal gizartean Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza bultzatzea da Planaren helburua, dauden baliabideak optimizatuz eta sektore estrategikoen arteko beharrezko sinergiak sortuz, baita jardun-programa sistematikoa, koordinatua, etengabea eta iraunkorra sortzea ere, giza eskubideen eta bakearen kultura sustatzeko eta hedatzeko, kultura horri buruzko informazioa emateko eta kultura horretan trebatzeko. Epe ertainean eta luzean, zera lortu nahi da: informazioak eta trebakuntzak poliki-poliki jarrera-aldaketa ahalbidetzea biztanleriaren sektore zabaletan. Jarrera-aldaketa horrek kontzientziazioa, eta giza eskubideen eta bakearen kultura herritarrengan eta erakundeetan sustraitzea ekarriko du berekin, baita, aldi berean, indarkeriaren kulturaren —eta, bereziki, indarkeria terroristaren kulturaren— erabateko deslegitimazioa ere.

Helburu orokor horren bitartez, honako hauek lortu nahi dira:

- a) Euskal gizarteak Giza Eskubideak hobeto ezagutzea, baita eskubide horiek ingurune hurbilean zer egoeratan dauden jakitea

ere, Giza Eskubideak ezagutzea, babestea, gauzatzea eta sustatzea bultzatzeko, eskubide horiek urratzen direnean.

- b) Herri-administrazioak Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako politika publikoen buruan jartzea, behar bezala koordinatuta, eta politika horiek dauden baliabideen aprobetxamendu egokia bermatzea, baita beharrezko baliabide eta programak sor daitezten bermatzea ere.
- c) Gizarte- eta hezkuntza-egitura aktiboa izatea, Giza Eskubideak zabaltzeari eta sustatzeari dagokionez, eta gizartea Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren esparruan trebatzea.
- d) Komunikabideak –nagusiki titulartasun publikoa dutenak– giza eskubideen eta bakearen zabalkundean eta pedagogia aktiboan bereziki aktiboak izatea.

3.2.- PRINTZIPIO GIDARIAK

3.2.1. ARAU OROKORRAK

Plan honen printzipio arautzaileak zehazterakoan kontuan hartu dira, lehen maila batean, Giza Eskubideen esferako hezkuntzarako ekintza-plan nazionalak lantzeko ildo nagusietan bildurikoak (NBEren Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoa, A/52/469 dok./1. add.). Honela laburbiltzen dira:

- a) Giza eskubideen esferako eta eskubide horien aldeko hezkuntza funtsezko giza eskubidea da.
- b) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak giza eskubide guztien errespetua eta babesa sustatu behar du, gizarteko kide guztientzako hezkuntza-jardueren bitartez.
- c) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak giza eskubideen elkarren mendetasuna, zatiezintasuna eta unibertsaltasuna sustatu behar du, eskubide zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozialak barne, baita garatzeko eskubidea ere.
- d) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak emakumearen eskubideak eta genero-ikuspegia hartu behar ditu kontuan plan nazionalaren alderdi guztietan, giza eskubideen zati diren aldetik.
- e) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak bere garrantzia aintzat hartu eta azpimarratu behar du, hain zuzen ere demokrazia, garapen iraunkorra, legearen inperioa eta bakea sustatzeko, eta ingurumena babesteko duen garrantzia.

- f) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak onartu eta azpimarratu behar du eginkizun berezia bete behar duela eskubide horien urratzeei aurrea hartzeko estrategia gisa.
- g) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak arazo larri, egiturazko eta/edo sortu berriei buruzko azterketa sustatu behar du, eskubide horiekin bateragarri diren konponbideak aurkitzeko.
- h) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak eskubide horiek babesteko tresna eta mekanismoei buruzko jakintza sustatu behar du, baita horiek guztiak munduan, eskualdean, nazioan eta toki-eremuan aplikatzeko beharrezko ahalmena ere.
- i) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak beharrezko baliabide guztiak jarriko ditu komunitate eta pertsona guztien eskura, funtsezko eskubideen alorrean dituzten premiak zehazteko eta premia horiek bete daitezen zaintzeko.
- j) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak metodo didaktikoak landu daitezen sustatuko du. Jakintza, azterketa kritikoak eta giza eskubideak sustatzeko jarreraren garapena bildu beharko dituzte metodo horiek.
- k) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzak adierazitako printzipio orokorretan oinarrituko den material didaktikoari buruzko ikerketak eta prestaketak bultzatuko ditu.
- l) Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntza ikasteko ingurune egokiak —premiarik eta beldurrik gabekoak— sustatzen

ahaleginduko da, parte-hartzea, giza eskubideak baliatzea eta giza nortasunaren erabateko garapena sustatzeko.

m) Plan nazionala (Euskal Ekintza Plana) lantzeko, gauzatzeko eta ebaluatzeko prozedura eta praktika guztiek honako hauek bermatu behar dituzte:

- I. gizartearen ordezkari pluralista, gobernuz kanpoko erakundeak barne,
- II. eragiketen gardentasuna,
- III. kudeaketa publikoaren erantzukizuna, eta
- IV. parte-hartze demokratikoa.

n) Gobernuko agintari guztiek giza eskubideekiko errespetua agertzen duten erakunde guztien independentzia eta autonomia errespetatu beharko dute plan nazionala gauzatzerakoan.

o) Plan honen arabera gauzatutako hezkuntza-zereginak honako hauek sustatu beharko ditu:

- I. aniztasuna errespetatzea eta balioestea, eta edozein arrazorengatiko (arrazo, jatorri nazionala edo etnikoa, sexua, erlijioa, adina, baldintza soziala, fisikoa edo mentala, hizkuntza, sexu-orientazioa eta abar) diskriminazio orori aurka egitea;
- II. hizkuntza eta portaera ez-diskriminatzaileak;
- III. iritzi-aniztasuna errespetatzea eta balioestea;
- IV. parte-hartzean oinarritutako trebatzeko eta ikasteko metodoak;
- V. giza eskubideen inguruko arauak eguneroko portaeran islatzea;

- VI. irakasleen trebakuntza;
- VII. ahalmen eta eskumen nazionalak sortzea eta indartzea, plana eraginkortasunez gauzatzeko.

3.2.2. FUNTSEZKO PRINTZIPIO GIDARIAK

Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren printzipio gidariak bitan banatzen dira: printzipio substantiboak eta antolamendu-printzipioak. Lehenek Planaren ildo estrategikoen berri ematen dute; bigarrenak, berriz, plana ezartzeko modua azaltzen dute.

Honako hauek dira Planaren **Printzipio Gidari Substantiboak**: Planaren edukiaren berri ematen duten, eta Planaren helburu nagusia lortzeko beharrezkoak eta nahikoak diren funtsezko irizpide politikoak. Substantiboak dira Planaren edukira zuzenean bideratuta eratzen direlako eta aldez aurretik adierazitako premisa ideologikoetatik eratortzen direlako. Ez dira antolamendu-irizpide instrumentalak, oinarri ideologikoen eta Planaren helburu nagusiaren nahitaezko ondorioak baizik.

Horrela bada, honako printzipio gidari substantibo hauek nahitaezkoak eta nahikoak dira helburu nagusia lortzeko:

- 1) Duintasunaren printzipioa
- 2) Erantzukizun publikoaren printzipioa
- 3) Gizarte-arloko parte-hartzearen printzipioak

DUINTASUNA

- Printzipio horrek baliagarria izan behar du Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko jardun guztiei buruzko informazioa emateko. Jardun horien funtsezko ardatza giza duintasunarekiko errespetua da, existentziatik beretik hasita bizitzeko eskubidea errespetatuz.
- Giza duintasunaren funtsezko kontzeptu hori mundu osoan onartutako giza eskubideen adierazpenen oinarria da, eta Plan osoa, hain zuzen, funtsezko kontzeptu horren inguruan egituratu da. Giza duintasunak existentziarekiko eta existentziekiko errespetua eskatzen du, Plan honen sarreran adierazitako zentzuan.

ERANTZUKIZUN PUBLIKOA

- Botere publikoek gidatu, landu, eztabaidatu, onartu eta bermatu behar dute Plan honen jarraitutasuna eta berrikuntza, baita Planaren ezarpena ere.
- Gizarte demokratiko batean, giza eskubideen eta bakearen kultura zabaltzeko lana sektore publikoaren eskumen garrantzitsuenetako bat da, erantzukizun hori sektore horrena soilik ez bada ere.

GIZARTE ARLOKO PARTE-HARTZEA

- Gobernua —eta erakundeak oro har— ez dira esku-hartzearen lehen mailako eragileak; izan ere, ez dute ahalmenik Planaren helburuak erabat gauzatzeko, gizarte-eragileen bitartez —eta horien konplizitatearekin— eta gizarte zibilaren indarrak aktibatuz ez bada. Beraz, azpiegitura sortzean, baliabideak antolatzean eta ekimenak gidatzean datza gobernuaren jarduna, baina gizarte-eragileekiko ekintza bateratuari arreta eskainiz eta harekin koordinatuz eta errespetua erakutsiz.

- Jardun-programa guztien oinarrian honako jardun-eredu hau dago: udal-esparruan harremanetarako mikroklimak sortzea, hezkuntza-sare formalaren jardunak planifika daitezen eta udal-esparruko esku-hartzeekiko koherenteak izan daitezen. Planak hezkuntza formala ez-formalarekin eta informalararekin osatu nahi du, hezkuntza-eragile oro eta gizarte zibilaren indarrak giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren esparru zehatzean. Planak, berariaz, hezkuntza formala eta ez-formala lotzeko eta elkarren artean indartzeko eredua era antolatuan sendotzea bilatzen du. Gainera, horrek oihartzuna eta mezu indargarria aurkitu behar du komunikabideetan eta, bereziki, komunikabide publikoek hezkuntzan eta gizarte-pedagogian duten ahalmena ahalik eta ondoen aprobetxatzearen bidez.

3.2.3. ANTOLAMENDU PRINTZIOPIO GIDARIAK

Planaren helburu nagusia lortzeko aukeratutako metodologiaren eta prozeduren berri ematen duten irizpideak dira Planaren **Antolamendu Printzipio Gidariak**. Antolamendu-irizpide instrumentalak dira, eta gorago azaldutako printzipio gidari substantiboak aplikatzearen ondorioz eskatutakoaren eraginpean daude.

Horregatik, Planaren antolamendu-printzipio gidariak erantzukizun publikoaren eta gizarte-arloko parte-hartzearen printzipio substantiboen nahitaezko ondorio dira; hortaz, Plan berean inplikaturako sektore publikoa antolatzeko moduari egiten diote erreferentzia batez ere.

Planaren helburua betetzeko nahitaezkoa den esku-hartze publikoaren ereduari lotuta, honako printzipio hauek agertzen dira:

- 1) Integraltasuna
- 2) Deszentralizazioa
- 3) Koordinazioa
- 4) Osagarritasuna
- 5) Plangintza
- 6) Ebaluazioa

INTEGRALTASUNA

Bakearen eta giza eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren xedea euskal gizartean gai horiei buruzko sustapen orokorra egitea da, gizartearen sentikortze eta gaitasun osoa lortzeko. Hori dela-eta, hezkuntzako euskal politika hori transbertsala eta alde anitzekoa izateko helburuarekin egituratu da, eta EAEn diharduen sektore publiko osoa hartzen du. Osotasun integrala izan behar dena zatika arautu edo kudeatzen bada helburua ez da guztiz erdietsiko.

DESZENTRALIZAZIOA

Giza Eskubideetan eta Bakean oinarrituriko Hezkuntzako Euskal Politika EAeko zenbait administrazio eta erakunde-esparruren erantzukizuna da. Sektore-eskumenen banaketak politika horri eragiten dio zeharka. Hori betez, erakunde komunek, lurralde historikoek eta udal eta mankomunitateek alor horretako eskumen zehatz eta zuzenen ardura hartzen dute beren gain. Gai horri buruzko hezkuntzarako euskal planak ez du gure erkidegoaren deszentralizazio politikoa murrizten. Aitzitik, giza eskubideak eta bakearen kultura sustatzeko zereginaren zati handi bat, eta bereziki gizartearen bizikidetzeta eta eraikuntza harmonikoa hobetzea toki- edo udal-kudeaketaren esparruan kokatzen da, subsidiariorotasun-printzipio osagarriaren arabera.

Era berean, EAeko administrazioen (Eusko Jaurlaritzaren, Foru Aldundien eta Udalen) arteko eskumen-banaketaren berezitasunaren ondorioz, beharrezkoa da giza eskubideen eta bakearen kulturaren arloan betetzen dituzten eginkizunak egokitzea, administrazio guztien jardun-ahalmena Planaren helburu nagusira egokitzeko.

KOORDINAZIOA

Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Euskal Planak inplikaturako erakunde-esparruen sistematizazioa eta koordinazioa lortu nahi du, arlo horietan euskal hezkuntza-politika bat sortzeko, estrategia konpartituekin bat egiteko helburu bakarrarekin. Horrela, beraz, Euskal Planak bere gain hartzen du komunikaziorako eta koordinaziorako ildo egokiak bermatzeko premia, hiru mailatan:

- a) Jaurlaritzaren eskumeneko Sailen artean.
- b) EAEko organo betearazleen artean (komuna, foralak eta tokikoak).
- c) Inplikaturako eremu publikoen eta gizarte-taldearen artean.

Modu osagarrian, Eusko Jaurlaritza, Estatuaren Administrazioa eta Autonomia Erkidegoko beste administrazio batzuk koordinatzeko mekanismoak ezartzea aurreikusi da, baita Planari euskarri tekniko eta estrategikoa emango dioten nazioarteko esparruetan eta erakundeetan presentzia izatea ere.

OSAGARRITASUNA

Duintasunaren eta erantzukizun publikoaren printzipio substantiboak egituratzeko, ezinbestekoa da giza eskubideen eta bakearen, eta gizarte-trebakuntzaren sustapena lortzeko beharrezkoak diren programak eta zerbitzuak ahalik eta zabaltasun eta intentsitate handienarekin osatzea, jardun publikoetatik zein gizarte-ekimenetik abiatuta. Erakunde publikoei esku hartzeko programak eta tresnak gidatzea eta finkatzea dagokie, gizarte-ekimenak betetzen ez dituen premiak bereziki kontuan hartuta. Gizarte-ekimenak Planaren helburuak bermatzen dituen esparruan, berriz, erakundeek gizarte-erakundeen autonomia bereziki kontuan hartuz eta errespetatuz garatu beharko dute beren gidaritza eta erantzukizun publikoa. Halaber, baliabideak esleitu beharko dituzte bikoiztasun disfuntzionalak saihesteko, baina dituzten betebeharrak publikoak inola ere utzi gabe.

Premia orokorrei dagokienez, osagarritasuna, aurreko paragrafoan ulertzen denaren arabera, Euskal Planaren ezinbesteko jardun-ardatza da. Dena dela, jardun publiko gehienetarako lortu nahi den osagarritasun hori espezializazio-printzipio subsidiario batekin osatu behar da berariazko premien kasuetarako, baldin eta premia horiek orokortu ezin daitezkeela egiaztatzen bada, eta giza eskubideak eta bakea sustatzeko eta arlo horretan gizarte-trebakuntza lortzeko beharrezkoak diren konpentsazioak badakartzate. Nolanahi ere, espezializazioa orokortzearen subsidiarioa da, eta erantzukizun publikoaren esparruan kokatzen da.

PLANGINTZA

Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Euskal Planen ondoriozko programek eta ekintzek baliabideen plangintza eta hornidura egokia eskatzen dute, jardun-programa sistematikoa, koordinatua, etengabea eta iraunkorra lantzeko.

EBALUAZIOA

Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana tresna bereziki malgua izateko asmoarekin sortu da, etengabe egokitu eta hobetu ahal izan dadin. Halaber, esku hartzeko tresnak eta programak etengabe eguneratu eta berritu nahi dira Planaren bidez, ebaluazio homogeneo, aldizkako eta iraunkor batean oinarrituta.

Planaren etengabeko ebaluazioa partzialki edo modu globalean egin daiteke.

3.3.- ILDO ESTRATEGIKOAK

Planak oinarrizko lau ildo estrategiko ditu, eta bakoitzak bere helburu orokorrak eta berariazkoak ditu. Gainera, lau ildo estrategiko horiek baliagarriak izango dira aurrerantzean Planaren zati operatiboari dagozkion jardunak antolatzeko.

1. GIZARTE SENTSIBILIZAZIOA

Helburu orokorra: Euskal gizartean Bakean eta Giza Eskubideetan oinarritutako Kulturaren balioak zabaltzea.

2. GIZARTE TREBAKUNTZA

Helburu orokorra: Euskal gizartea Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren eremuan trebatzea.

3. ERAKUNDE TREBAKUNTZA (AHALDUNTZEA)

Helburu orokorra: Instituzioen eta erakundeen lana indartzea Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren esparruan.

4. KOORDINAZIOA (BULTZATZEA)

Helburu orokorra: Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako euskal politikak gidatzea.

ILDO ESTRATEGIKOA	HELBURU OROKORRA	BERARIAZKO HELBURUAK
Gizarte-sentsibilizazioa	1. Euskal gizartean Bakean eta Giza Eskubideetan oinarritutako Kulturaren balioak zabaltzea.	1.1. Euskal gizartea informatzeko eta sentsibilizatzeko kanpainak egitea.
		1.2. Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren eremuko sentsibilizazio-materialak lantzea.
		1.3. Euskal gizarte osoa sentsibilizatzeko esku-hartzeak antolatzea eta optimizatzea.
		1.4. Sektore estrategikoak dibulgazioan, zabalkundean eta sentsibilizazioan inplika daitezten sustatzea.
Gizarte-trebakuntza	2. Euskal gizartea Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren eremuan trebatzea.	2.1. Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako programa integralak sortzea eta indartzea
		2.2. Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren eremuko material didaktikoak prestatzea.
		2.3. Lehentasunezko biztanleria-sektoreak prestatzeko eta trebatzeko programak garatzea.
		2.4. Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren esferan gogoeta, azterketa, eztabaida eta ikerketa sustatzea.

ILDO ESTRATEGIKOA	HELBURU OROKORRA	BERARIAZKO HELBURUAK
Erakunde-trebakuntza	3. Instituzioen eta erakundeen lana indartzea Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren esparruan.	3.1 Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko gizarte-premiak, hezkuntza-premiak eta erakunde-premiak ebaluatzea.
		3.2 Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko programa eta proiektu integralen prestaketarako, garapenerako eta ebaluaziorako laguntza ematea.
		3.3 Arau eta baliabideei (informazioa, prestakuntza, finantzaketa, babesa, laguntza teknikoa, ikerketa eta garapena) buruzko esparru egonkorra garatzea inplikaturako administrazio, sare, erakunde eta eragile guztientzat.
		3.4 Egituren, eragileen, eskumenen eta koordinazio-harremanen sarea antolatzea, horien gainean Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko euskal politika garatzeko.
Koordinazioa eta bultzatzea	4. Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloko euskal politikak gidatzea.	4.1 Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloan dauden premiak estaltzeko egiturazko prozesuak dinamizatzea.
		4.2 Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko jardun publikoak eta pribatuak bideratzea.
		4.3 Eragile eta sektore estrategikoen parte-hartzea eta inplikazioa sustatzea, politika publikoak garatzean eta sustatzerakoan.
		4.4 Euskal politika publikoak Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Kulturaren hezkuntzaren inguruko sustapenerako, koordinaziorako, garapenerako eta ebaluaziorako nazioarteko korranteetan sartzea.

IV – ZATI OPERATIBOA

IV – PLANAREN ZATI OPERATIBOA

Zati operatiboa hiru eduki-multzo desberdinek osatzen dute. Lehen multzoan lehen plan honetan garatuz joango diren ekintzak azaltzen dira, kudeketa-esparru sektorialen arabera ordenatuta (Eusko Jaurlaritzako sailak, foru aldundiak eta udal maila). Bigarren multzoan planaren kudeaketaz arduratuko den egitura organikoa deskribatzen da. Egitura hori bi erakundetan oinarritzen da: Giza Eskubideetan oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Sailarteko Batzordea (Eusko Jaurlaritza) eta Giza Eskubideetan Oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Kontsulta Kontseilua. Azkenik, hirugarren multzoak planaren ebaluazioaren eta aurrekontu oinarriaren arduradunak, irizpideak eta adierazleak zehazten ditu.

4.1.- EKINTZAK: ERAGILE ETA PROGRAMA ESTRATEGIKOAK ETA SEKTORIALAK

Plan honen barnean hartutako –eta Plan honen ondoriozko– ekintzak ondoren deskribatuko ditugun eragile estrategikoek bultzatuko dituzte, ekintzen erantzuleak diren aldetik.

4.1.1. ERAGILE ESTRATEGIKOAK

■ Eusko Jaurlaritza

- Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko politiken diseinua gidatu eta dinamizatuko du.
- Haiekin bat etorriko diren politikak garatuko dituzte.

■ Foru Aldundiak

- Lurralde-eremuko plangintzan Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko jarraibideak txertatuko dituzte.
- Haiekin bat etorriko diren politikak garatuko dituzte.
- Gai jakin batzuetan eta lehentasunezko biztanleria-sektoreetan esku-hartzea gidatuko dute, beren eskumenen esparruan.

■ Udalak

- Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan duten erantzukizuna eta ahalmena garatuko dute.
- Beren autonomiatik abiatuta, politikak toki-eremura egokitu eta zehaztuko dituzte, bizikidetzaren eta Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren eremuko komunitate-premiei erantzuteko lehentasunezko gunea baita toki-eremua.

■ Gizarte-ekimena

- Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzari lotutako jardunak garatuko ditu.
- Herri-administrazioen ekimenak osatuko ditu eta ekimen horietan lagunduko du.

Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Plana, gizarte-arloko parte-hartzearen eta integraltasunaren printzipioei jarraiki, gizarte-ekimenarekin lankidetzan jardutera –eta gizarte-ekimen hori indartzera– bideratuta dago, bai Planaren diseinuan bai Planaren garapenean, ezarpenean eta ebaluazioan. Gizarte-ekimen hori gutxienez honako eragile estrategiko hauen bitartez bideratzen da:

- Familiak.
- Gizarte-mugimenduak.
- Gobernuz kanpoko erakundeak.
- Biktimen erakundeak.
- Unibertsitateak.
- Giza Eskubideetan espezializatutako institutuak eta zentroak.
- Astialdiko elkarteak eta taldeak.
- Ikastetxeak.
- Berriazko taldeei atxikitako bestelako erakundeak.
- Elizak.
- Gizarte-arloko komunikabideak.

4.1.2. PROGRAMA ESTRATEGIKOAK ETA SEKTORIALAK

Aurreko atalean adierazitako eragile estrategikoei dagokie Planaren ildo estrategikoen (Sentsibilizazioa, Gizarte Trebakuntza, Erakunde Trebakuntza, eta Koordinazioa eta Bultzada) ondoriozko berriazko helburuak betetzea, hainbat programa estrategiko eta sektorial garatzearen eta ezartzearen bidez.

Programa sektorialek horiek bultzatzeaz arduratutako erakunde-eremuaren arabera antolatzen dituzte ekintzak (Sailen, Aldundien edo Udalen arabera). Programa estrategikoak, berriz, ekintzak indartutako baliabide motari lotuta daude. Hona hemen **programa estrategiko** horiek:

- A. Prestakuntza eta trebakuntza.
- B. Aholkularitza eta kontsultoretza.
- C. Materialen eta argitalpenen produkzioa.
- D. Esku hartzeko programak.
- E. Dokumentazioa eta Informazioa.
- F. Zabalkundea eta sentsibilizazioa.
- G. Ikerketa eta gogoeta.
- H. Mobilizazioa.

Azaldutako programa estrategikoek bakearen eta giza baliabideen aldeko hezkuntza-lana hainbat mailatan garatzeko tresna bidez aktiba daitezkeen esparru operatiboak eta baliabideak adierazten dituzte, era abstraktuan. Programak gobernu-eragileen arabera zehazterakoan – **programa sektorialak**-, hala ere, komenigarria da argitzea ekintzen zerrendak emango direla, eta bertan aldi berean koadro batean adierazizko dela zein programa estrategiko zerbitzatzen dituen edo duen nagusiki ekintza horrek eta zein ildo estrategikotan kokatzen diren horiek hobekien⁸.

Hala ere, programa sektorial jakin bakoitzaren (*infra* 4.1.2.5.) zerrendak erakusgai jarri aurretik, programa sektorial bakoitzari (*infra* 4.1.2.1-4.1.2.4) eta guztiei esanahia eta koherentzia ematen dioten gakoak eman behar dira.

Eusko Jaurlaritzaren Sail bakoitzaren ekintzen zerrendak lehen Plan honetan honako hauen aldeko apustua egiteko erabaki politikoaren isla praktikoak dira: **egitura iraunkorrak sortzea** eta **instituzionalizatzea**; hezkuntza-lana **erreferentziazko mikroklimatzat hartutako udalerriaren** batasunaren inguruan kokatzea; hezkuntza-sistema **formalaren** baliabideak eta hezkuntza **ez-formalaren eta informalaren** gainerako baliabideak era antolatuan lotzea; erakundeen eta eragileen arteko **koordinazioa** sustatzea; eta **informazio-kanalak** bateratzea.

Horrek, gainera, abiapuntuko diagnostikoaren (*supra* 2.5.) arabera progresio egokia izan daitekeenari jarraiki, honako **programa estrategiko** hauei lehentasuna ematera garamatza: **prestakuntza eta trebakuntza (A)**, **aholkularitza eta kontsultoretza (B)**, **dokumentazioa eta informazioa (E)**, **zabalkundea eta sentsibilizazioa (F)** eta **ikerketa eta gogoeta (G)**.

⁸ Planaren amaieran ildo estrategiko bakoitzari (1. ERANSKINA) eta programa estrategiko bakoitzari (II. ERANSKINA) dagozkion ekintzen zerrenda osagarriak jasoko dira ERANSKIN gisa —eragile arduradunak bereiziz—.

Programa horiek islatzen dutenez, gaur egungo erronka egitura berria sortzea eta masa kritikoaren metaketa sustatzea da (giza baliabideena eta koadro teknikoena batez ere), horrek emango baitio bidea **esku hartzeko programen (D)** garapenari eta materialen eta argitalpenen (C) eskariari (gaur egun baino askoz kopuru eta hedadura handiagoan).

Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planak aurrera egiten hasteko, etorkizuneko jardun-programak garatzeko oinarria ezarri behar da. Horrela, beraz, egiturazko ekintzen zerrendak izango dira nagusi, esku hartzeko programen gaineratik. Nolanahi ere, programarik ez da faltako. Euskadin giza eskubideen urratzeen arloan sentzibilitatea areagotzeko programa, adibidez, esku-hartze estrategikorik sinbolikoenetakoa eta balio erantsirik handienetakoa da (geroago aipatuko dugu, ekintza sektorialak azaltzean).

Horiek guztiak hartu dira kontuan gobernu-politika horren dinamizatzaile –eta erantzule formal– gisa parte hartuko duten Eusko Jaurlaritzaren Sailak eta, are gehiago, Sail horien Zuzendaritzak hautatzean.

Programa sektorialak aurkeztu dituzten Eusko Jaurlaritzaren Sailak honako hauek dira:

- Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)
- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritza)
- Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)
- Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila (Inmigrazio Zuzendaritza)
- Herrizaingo Saila (Terrorismoaren biktimei Laguntzeko Zuzendaritza)
- Lehendakaritza.

Sail horiek hezkuntza-politikak koherente eta koordinatu bihurtzeaz arduratuko dira, eta giza eskubideen ikuspegia eta bakearen kultura zeharkakoak izateko eta gobernuaren jardun sektorialen berri emateko erantzukizuna hartuko dute beren gain.

Sei Sail horietatik, hiruk (Justizia, Kultura eta Hezkuntza) bultzatu dute urtetan bakearen aldeko hezkuntza-politika hori. Hori dela-eta, Sail horien ekintza-programak Planaren muina dira oraindik ere, bai dentsitateagatik, bai gaur egun egiten ari diren eta etorkizunerako proposatuta dauden esku-hartzeen kopuruagatik. Ondoren, programa sektorial bakoitzari (4.1.2.1-4.1.2.4) koherentzia ematen dioten oinarri pedagogikoak azalduko ditugu, zerrendekin (4.1.2.5) amaitu aurretik.

4.1.2.1. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren programa sektoriala.

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, **Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritzaren** bitartez, hezkuntza formalean jarduna egituratzen duen ezinbesteko orpoa da. Sailaren jardun estrategikoak, gainera, giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzak, curriculumak ez ezik, ikastetxeen antolamendua eta irakasleen prestakuntza ere eraginpean hartu behar dituela eta, azken batean, giza eskubideak eta bakea ikastetxean eta ikasgelan bizitzea eta praktikan jartzea bilatu behar duela kontuan hartuta bideratzen dira.

Eskolak zeregin garrantzitsua betetzen du. Izan ere, ingurune aberatsa da bizipenetan eta elkarreraginetan eskola-komunitateko pertsona guztien ongizate emozionala onarpenetik, kide izateko sentimendutik, hobetzeko aukeratik, oreka pertsonaletik, gogobetetzetik edo umore onetik bilatzeko. Testuinguru horretan, indarkeriaren aurkako estrategia ahaltsuak baina ez autoritarioak, berdintasunaren aldekoak, legítimoak, suspertzaileak eta arduratsuak garatzeko aukera gisa, eta pertsonen balioa eta hazkunde pertsonala eta soziala babestuta geratzen den egoera eta une gisa bizi daitezke pertsonen barruko eta pertsonen arteko harremanen eta bizitzaren beraren zati konsubstanzialak diren konpondu ezinak eta gatazkak. Konpondu ezinen eta gatazken arrazoiak aurkitzeko, hainbat faktore aztertu behar dira: pertsonalak (sortzen dituztenenak), ikastetxearen eta ikasgelaren antolamenduari lotutakoak, eta ikasleen eta horien eta irakasleen artean, guraso-elkartearekin, familiekin eta abar sortzen diren ohiko harremanei lotutakoak.

Hezkuntza arloko jarduerak arreta eta tratamendu berezia eskatzen du. Derrigorrezkoa da bakearen eta bizikidetzaren kulturaren balioak zabaltzea. Hau da, pertsonen oinarrizko eskubide eta askatasunen

babesa eta bermea indartzen duten era guztietako diskurtsoak, ekintzak eta ekimenak sustatzea, elkarren osagarri diren oinarrizko bi premisarekin: berdintasunaren printzipioa eta desberdintasunaren errespetua.

Euskal Hezkuntza Sistemak bizikidetzarako eta herritartasun demokratiko, aktibo eta arduratsu baterako hezkuntzaren alde egiten du. Horretarako, hainbat baliotatik abiatuta hezi behar da (hala nola justiziatik, tolerantziatik, errespetutik edo elkartasunetik abiatuta), eta arazoak eta gatazkak konpontzeko, bizitzaren kudeaketa arduraz beren gain hartzeko, bakoitzak bere buruarekin eta gainerakoekin harreman positiboak ezartzeko, erabakiak hartzeko, zentzu kritikoarekin jokatzeko eta ingurunea era sortzailean eraldatzeko ekintzak egiteko beharrezkoak diren gaitasunak garatu behar dira ikasleengan.

Ez gara hutsetik hasi, 2000. urtean Bizikidetzaren aldeko Hezkuntzarako lehen programa jarri zen abian, eta geroztik programa hori zabalduz eta sakonduz joan da gaur arte. Asko dira programak sustatutako ekintzetan parte hartu duten zentroak, eta esan daiteke une honetan sentikortasun handia dagoela hezkuntza-komunitatean bizikidetzaren hobe baterantz aurrera egiten jarraitzeko.

Hezkuntza Sistemari lotutako gizarte-eskaerak ez dira mugatzen ikasleek aztura eta teknika intelektualak edo jakintzaren esparruen berezko ezagutzak eskuratzeko beharrera. Izan ere, ikasle guztiek bizitza duina izateko gaitasun guztiak garatzen laguntzea da oinarrizko helburua.

Erantzuna, alde batetik, zer testuingurutan jarduten den ulertzeko, bizitzarako planak eta proiektu pertsonalak sortzeko eta administratzeko, eta norberaren eskubideak, interesak, premiak eta mugak defendatzeko eta berresteko gaitasun pertsonalen garapenean oinarritutako hezkuntza da. Hau da, era autonomoan eta kritikoan pentsatzeko eta

jokatzeko aukera ematen duen ororen garapenean, pertsona bakoitzak bizitzaren une eta zirkunstantzia bakoitzean zer egin behar duen erabaki ahal izan dezan. Bestetik, printzipio demokratikoen eta bakerako eta bizikidetzarako oinarritzko balioen (hala nola elkarrizketa, tolerantzia, askatasuna, elkartasuna, berdintasuna, justizia eta giza eskubideekiko errespetua) barruan beste pertsona batzuekin harreman positiboak ezartzeko, talde-lanean lankidetzan jarduteko eta gatazkak kudeatzeko, eta herritar gisa betebeharrak bere gain hartzeko eta eskubideak baliatzeko beharrezkoak diren gaitasunetan oinarritutako hezkuntza da erantzuna.

Eskola-bizikidetzak ona, alde batetik, ezinbesteko baldintza da behar bezala irakasteko eta ikasteko, eta, bestetik, funtsezkoa da, elkarrekin bizitzen ikastea hezkuntzaren oinarritzko helburuetako bat baita.

Horren eraikuntzan aurrera egiteko, gainditzen zailak diren oztopo ugari daude. Izan ere, arrazoiak indarrean dauden gizarte-balioetan eta gizarte-ereduetan errotuta daude, eta balio eta eredu horiek gatazkak konpontzeko indarkeriaren erabilera eta nagusitasun/mendetasun moduko harremanen ezarpena dute oinarri. Eskola-erakundeek, kritikoki eta asmo osoarekin jokatzeko ez badute, errepikatu eta betikotu egin ditzakete balio eta eredu horiek.

Bizikidetzarako hezteak bi paradigma horiek errotik desagerraraztea eta eguneroko praktikak eraldatzea eskatzen du, elkarrekin bizitzeko beste modu bat -hezkuntza-komunitate osoarentzat bidezkoagoa eta atseginagoa- lor daitekeela agerian uzteko. Halaber, ikuspegi sistemikoetan eta esku-hartze koordinatuetan oinarritutako praktika berriak garatzea eskatzen du.

Hori dela-eta, beharrezkoa da indarkeriaren kultura gainditzeko prozesua abian jartzea ikastetxeetan, ikasleak bake positiboan gizartzeratzeko eta, horrez gain, elkarrizketa, errespetua, erantzukizuna eta komunikazioa bizikidetzaren oinarria direlako ideia ikastetxeetatik gizarte osorantz zabaltzeko. Horrela, sare gisako ehuna sortzen lagundu nahi da, gatazka pertsonalak eta lan-, gizarte- eta politika-arlokoak konpontzerakoan erasoek, bidegabekeriak eta indarkeriak lekurik aurkitzen ez duten ingurunea sortzeko.

Hezkuntza-ekintza koherente batek, azterketa zorrotza egin ondoren, gatazkaren arrazoiak landu behar ditu ikastetxeetan gatazka hori gertatzen denean, eta hezkuntza-irizpideetan eta ikasle guztiak (eta, bereziki, eskola-bazterkeria jasateko arriskurik handiena dutenak, gizarte-bazterkeriaren atarikoak baita hori) babesteko eta barnean hartzeko irizpideetan oinarritu behar ditu beti bere jardunak.

Eta, hori guztia, gero eta kohesionatuagoa, zuzenagoa eta baketsuagoa izango den euskal gizartea eraikitzen eraginkortasunez laguntzeko helburuarekin.

2000. urtetik aurrera, "Bizitzarako jakintzak eta trebetasunak" eta "Bizikidetzarako eta bakerako hezkuntza" programen bidez, honako hiru ildo hauetan egin da lan:

1. BIZIKIDETZA POSITIBOAREN SUSTAPENA/INDARKERIAREN PREBENTZIOA: sentsibilizazio-kanpainak, materialak, hezkuntza-komunitatearentzako prestakuntza.
2. BEREHALAKO ESKU-HARTZEA BERDINEN ARTEKO TRATU TXARREN ETA INDARKERIAREN AURREAN: jardun-protokoloak tratu txarren aurrean.

3. ISEI-IVEI erakundeak egiten duen IKERKETA (erakunde horren bitartez aztertzen da euskal hezkuntza-sistemaren errealitatea).

Horretan oinarrituta, ondoren aurkeztuko ditugun ekintzei koherentzia emateko aukera ematen duten hainbat helburu ezartzen dira. Hona hemen helburu horiek:

1. Ikastetxeko Bizikidetzaren Behatokiaren sorkuntza eta Urteko Bizikidetzaren Plana sustatzea. Eta, halaber, EAEko Bizikidetzaren Behatokiaren sorkuntza sustatzea.
2. Indarkeriaren adierazpen guztiak detektatzeko eta ikasle guztiengan gizartearen aldeko portaeren garapena sustatuko duten hezkuntza-irizpideekin jokatzeko beharrezkoak diren baldintzak jartzea.
3. Indarkeria (gatazken tratamenduan) eta nagusitasuna/mendetasuna (harreman-eredu gisa) desager daitezten sustatzea.
4. Giza Eskubideekiko errespetuan eta gizarte zuzenagoaren eta solidarioagoaren eraikuntzan aurrera egiteko aukera emango duten balioak, jarrerak eta praktikak sustatzea.
5. Bizikidetzarako udal-proiektu integralen esperimentazioa sustatzea.

Helburu horiek lortzeko (laburki):

- ikasgelan egiteko esku-hartzeak daude:

- o hala nola Herritartasunerako eta Giza Eskubideetarako Hezkuntza irakasgaia (2008-2009 ikasturtean),
- o giza eskubideei, bakearen kulturari eta terrorismoaren biktimen testigantzei buruzko berariazko unitate didaktikoen esperimentazioa,
- eskolaren ingurunea hezkuntza-lanean inplikatzera bideratutako esku-hartzeak:
 - o hala nola “La Peña, auzo hezitzailea” Plan orokorra (Zamakola proiektua),
 - o ikastetxeko bizikidetzarako planak –eta behatokia–,
 - o Eusko Legebiltzarraren eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren arteko lankidetzaren hitzarmena, “Eztabaidatu gurekin” programa garatzeko (Gazte Plenoa),
- prestakuntza indibidualeko programak, ikastetxeko prestakuntzako programak, lan-mintegiak Berritzeguneetan, jardunaldiak eta abar.

Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza irakasgaiari dagokionez, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan eta DBHko lehen ikasturteetakoren batean irakatsiko da. Aurreikusitako egutegiaren arabera curriculum berria Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloan 2009/2010 ikasturtera arte ezarriko ez denez, ikasturte honetan Lehen Hezkuntzako ikastetxe bakar batek ere ez du irakasgai berri hori irakatsiko.

DBHn emateko aukerari dagokionez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak jakintzagaien ordu-banaketatara proposamen bat argitaratu du DBHko maila guztietarako, eta, proposamen horren arabera, jakintzagai hori bigarren mailan emango da. Edonola ere, 2008/09 ikasturtera arte ez da ezarriko, eta 2007/08 ikasturtean 1. eta 3. mailatan baino ez da nahitaezkoa izango curriculum berriaren

aplikazioa. Hala ere, curriculum berriaren ezaugarri bat ikastetxeei gutxieneko ordutegi batzuk beteta zenbait jakintzagai DBHko lehen hiru mailetako edozeinetan banatzeko ematen zaien autonomia dela kontuan hartuta, baliteke ikastetxeren batek jakintzagai berri hori orain ezarritako DBHko bi mailetako batean emateko erabakia hartzea.

Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak proposatu duen curriculum Sail horren web-orrian argitaratuta eta ikastetxe guztientzat eskuragarri dago.

Jakintzagai horrek, Nazio Batuen edo Europako Kontseiluaren dokumentuekin erabat eta esanbidez bat etorritik, pertsonaren gizarte-dimentsioa garatzen du giza eskubideei lotutako filosofiatik eta errespetutik abiatuta. Izan ere, hori lehentasunezkoa da parte hartzean oinarritutako eta justiziarekin, elkartasunarekin eta desberdintasunen gainditzearekin konprometitutako demokrazia bat eraikitzeko. Berezi, zenbait gizarte-egoera berri eskaintzen zaie arreta, hala nola emakumeen aurkako indarkeriari eta diskriminazioari edo immigrazioaren fenomenoari.

Amaitzeko, azpimarratu beharra dago DBHko bigarren ziklorako **bi unitate didaktikoren** pilotajearen ahalmena. Unitate horien helburuak honako hauek dira, hurrenez hurren: Euskadiko errealitatean gertatzen diren urratzerik berariazkoenen inguruko sentsibilitatea areagotzea, eta terrorismoaren biktimekiko enpatia eta horiek jasandako bidegabekeriaren inguruko kontzientziak areagotzea. Pilotaje horietako bat 2006-2007 ikasturtean garatu da (Bakea eraikitzen duen gizartea). 2007-2008 ikasturtean ere gauza bera egingo da, baina terrorismoaren biktimei buruzko beste unitate monografiko eta berariazko horren bertsio berrikusia sartuko da pilotajearen barruan. Bertan, "Bakea eraikitzen duen gizartea" unitate didaktikoaren jarraipen eta

osagarri gisa, "Arrastoa uzten duten istorioak" unitatearen egokitzea eta berrikuspena sartuko da. Proba esperimental horien guztien helburua egungo ikasturtea amaitzean esku hartzeko unitate bakarra finkatzea izango da. Horri esker, eskaintza orokor bat egin ahal izango zaie hezkuntza-sistemako ikastetxe guztiei eta, gainera, beste adin-tarte batzuetarako (Lehen Hezkuntzako eta DBHko lehen zikloko ikasleentzako) antzeko unitate batzuk –eta jarduera osagarriak– zabaltzeko hasiera izango da unitate hori. Beraz, pilotajeak egin ondoren, azken helburua lehen hezkuntzan zein bigarren hezkuntzan bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan esku hartzeko berariazko programa bat finkatzea izango da. Programa horrek, lehenik eta behin, Euskadin giza eskubideen inguruan gertatzen diren urratzerik larrienen (eta, bereziki, terrorismoaren) gaitzespena eta urratze horien inguruko sentsibilitatea areagotzea bilatuko du. Programa horrek, azken batean, adin-tarteetara egokituta eta era positiboan lantzeko asmoarekin, terrorismoa eta giza eskubideen beste urratze larri batzuk erabat deslegitimatzea du xede nagusi.

4.1.2.2. Kultura Sailaren programa sektoriala.

Kultura Saila, **Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzaren** bitartez, hezkuntza ez-formalaren eta informalaren eremuan hainbat jardunen sostengua den oinarrizko beste zutabeetako bat da. Sail horren jardun estrategikoak, oro har, gazteengana bideratuta daude, eta, bereziki, gazte-elkarteen sarera, ikastetxeen ingurunean kokatutako funtsezko elementua baita hori.

Gazte-elkarateek eta heziketa-aisialdiko taldeek zeregin garrantzitsua izan dute hainbat hamarkadatan gizartean, hezkuntza ez formalaren eta informalaren esparruetan. Gazte-talde horietan sortzen diren landinamikak eta bizipenak egokiak dira bizikidetzaren guneak sortzeko eta bat datoz Bakearen eta Gizarte Eskubideen Kulturari dagozkion gizarte-justiziaren, askatasunaren, elkarriketaren, berdintasunaren eta espiritu kritikoaren balioekin; alegia, Plan honen bidez sustatu nahi direnekin.

Gazte horien ezaugarri bereizgarri bat talde horietako kide izateko borondatea da, eta gizartea eraldatzeko idealak eta gizarte-justiziaren balioen bilaketa aktiboa dira nagusi talde horietan. Hori dela-eta, balio horien alde aktiboki lan eta borroka egiteko gune ezin hobeak dira gazte-elkarateak.

Auzoak, komunikabideak, familiak, adiskideak eta abarrek osatzen dute hezkuntza informalaren eremua, eta funtsezko zeregina betetzen dute balio kolektiboaren transmisioan eta bizipenean. "Herri osoa behar da haur bat hezteko" dio Afrikako esaera zaharrak. Sozializazioarako eta garapen komunitarioarako gune gisa, gizarte-ingurunea kontuan hartu behar da Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntza lantzerakoan. Garapen komunitarioko proiektuak sustatzera eta garatzera bideratutako

erakunde publikoen eta gizarte-ekimenaren lan koordinatua etorkizunerako inbertsioa da edozein gizarterentzat.

1988tik aurrera, Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzak hainbat ekintza egin ditu honako lan-ildo hauetan:

1. GAZTE ERAGILEEN PRESTAKUNTZA ETA TREBAKUNTZA: gazte-eragileak eta prestatzaileak prestatzera bideratutako prestakuntza-ikastaroak eta prestakuntza-ekintzak.
2. BAKEAREN KULTURAREN ALDE DIHARDUTEN GAZTE ERAKUNDEEN SENDOTZEA: gazteengan bakearen kulturaren balioak sustatuko dituzten programak eta proiektuak egiteko laguntza-aginduen bidez.
3. BAKEAREN KULTURAREN ETA GIZA ESKUBIDEEN SUSTAPENA: urteko sentsibilizazio-kanpainen bitartez.
4. ESPERIENTZIEN ELKARTRUKEA ETA SAREKO LANA: mintegiak, topaketak, jardunaldiak eta berriazko lan-tailerrak gazte-indarkeriaren prebentzioaren, eta Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren eremuan.
5. IKERKETA, PARTE-HARTZEA ETA GOGOETA: Gazteriaren Euskal Behatokia –gazteei eta haien balioei buruzko txostenen eta aldizkako argitalpenen bidez–, eta Euskadiko Gazteriaren Kontseiluak koordinazioaren eta parte-hartzearen inguruan egindako lana –argitalpenen eta parte-hartzerako, gogoetarako eta eztabaidarako *gazte ontzi* izeneko gunearen bitartez–.
6. BALIABIDE DIDAKTIKOAK ETA MATERIALAK SORTZEA astialdiko monitoreak eta zuzendariak prestatzen dituzten Astialdiko Eskolentzat.

2007. urtean egindakoari buruz adierazitakoarekin jarraituz, egindako ekintzak irauteko pentsatuta daude, eta, horretarako, ekintza horiek eraldatu eta Plana osatzen duten programa estrategikoetan txertatuko dira.

4.1.2.3. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailaren programa sektoriala

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailak, **Giza Eskubideen Zuzendaritzaren** bitartez, eskola-sistema formalak (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila) eta gazteen sektoreak (Kultura Saila) sortutako guneen koordinatzaile eta dinamizatzaile izateko funtzioa betetzen du. Biltzen dituen ekintzetako asko arestian adierazitako Sailekin batera egindako proiektuak dira, jardun estankokoak izan ez daitezkeen egindakoak, hain zuzen ere. Beharrezkoa den bitartekotza-lanaren bidez hezkuntza formalaren, ez-formalaren eta informalearen artean sinergiak sortzea du xede.

Dena dela, lotura hori ez da Sailen artean soilik gertatzen. Aitzitik, horretan oinarrituta udal-mikroklimatek sortzeko babes-programekin osatzen da.

Bestalde, Planaren euskarri-azpiegitura eta koordinazio-azpiegitura guztia sortu eta mantendu nahi da Justizia Sailaren programa sektorialaren bidez. Horretarako, Planaren beraren egitura organikoaz gain, eskolaz kanpoko baliabideek Plana indarrean jartzen denetik hezkuntza formalarekiko lotura sistematiko bat ahalbidetuko duen antolamendu-eredu bat izateko egiturazko neurri gehienak bateratuko ditu. Horri dagokionez, bereziki azpimarratu beharra dago informazioarako eta baliabideetarako sistema zentralizatu eta bateratu bat sortuko dela.

Horrez gain, baliabide berriak eta mobilizazio-ahalmen handikoak (zinema, antzerkia eta abar) sortzera zuzendutako esku hartzeko zenbait programa estrategiko biltzen ditu. Gainera, komunikabideei (EITB) lotutako jarduerak sektorialaren plangintza-arloko gidaritza-jarduerak txertatzen du.

Azkenik, formalki Sailarteko Batzordean sartuta ez dauden gobernuko beste sail batzuekin zerikusi handiagoa duten zenbait talderi zuzendu beharreko trebakuntza- eta prestakuntza-programa guztiak, eta, beharrezkoak izanik ere, Planaren gainerako erantzuleekin zerikusirik ez duen programa mota oro hartzen dira kontuan Justizia Sailean. Elementu komun guztiak biltzen dituen Saila eta maila orotako koherentziaren dinamizatzailea –azken bermatzailea– da.

4.1.2.4. Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren, Herrizaingo Sailaren eta Lehendakaritza Sailaren programa sektorialak.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak (**Inmigrazio Zuzendaritza**), Herrizaingo Sailak (Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza) eta Lehendakaritza Sailak ekintza kopuru txikiagoa izanik ere balio erantsi handia duten programa sektorialak gauzatzen dituzte. Lehenak immigrazioaren ikuspegia –desberdintasunaren pertzepzio xenofoboaren haztegi gisa eta kulturen artean aberasteko aukera gisa– sistematikoki txertatzeko beharragatik. Eta azkenak –**Lehendakaritzak**– arloaren lehentasun politikoa agerian uzteko eta bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzako jarduera gobernu-ekintza osora zabalduko dela materialki bermatzeko beharragatik.

Herrizaingo Sailak (**Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza**), bere programa sektorialaren bidez –eta bere parte-hartze aktiboaren bidez–, indarkeria terrorista deslegitimatzeke lehentasunezko helburura zuzenduta dauden ekimenetan eta ekintzetan biktimekin eta horien elkarteekin hitz egingo duela eta haien ikuspegia bere gain hartuko duela bermatzen du.

4.1.2.5. Ekintzen zerrenda sektorialak

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA

- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzaren lehentasunezko programa 2007-2010 hirurtekorako: Bizikidetzaren, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntza.
- Programaz arduratuko den kudeaketa-unitate bat – pedagogikoa– sortzea. Materialak lantzeraz, Berritzeguneetako irakasleak, arduradunak eta teknikariak prestatzera eta trebatzera, eta ikastetxeak dinamizatuzera bideratuta egongo da.
- Urteko Bizikidetzaren Planak lantzeko gida, eta EAEko ikastetxe guztietako Bizikidetzaren Behatokiaren sorkuntza.
- Irakasleen prestakuntza. Ikastetxeko prestakuntza eta askotariko eskaintza indibidualak Garatu planean.
- Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza irakasgaia bultzatzea.
- Euskadiko errealitateari arreta berezia eskainiko dion bakearen aldeko hezkuntzarako berriazko programa bat garatzea. 2006-2007 ikasturtean gauzatu diren proiektu pilotuetan (Bakea eraikitzen duen gizartea) eta 2007-2008 ikasturtean gauzatu direnetan (*Bakea eraikitzen duen gizartea* unitatea, *Arrastoa uzten duten istorioak* unitatearekin osatua) oinarrituko da.
- Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara bitartean bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan esku hartzeko unitate didaktikoak eta plan orokorrak lantzea (Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta).
- Hezkuntza-komunitate osoa bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan sentibilizatzea.
- Formula propioetan prestatzeko eta bizikidetzari, bakeari eta giza eskubideei lotutako berrikuntza-proiektuetarako laguntza-ildoak.

- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren eremuak landuko dituzten programa integralak garatzea.
- *La Peña. Auzo hezitzailea* proiektu pilotua (Zamakola proiektua) garatzea, bakearen aldeko hezkuntzako eskola-antolamendu berritzaileko udal-eremuko programa integral gisa (Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta). Zamakola 2008-2010 proiektua orokortzea.
 - 2007-2008: pilotajearekin jarraitzea
 - 2008-2009: 3 ikastetxe
 - 2009-2010: 10 ikastetxe. EAEko ikastetxe guztientzako deialdia.
- Parte-hartzeari buruzko programa garatzea Eusko Legebiltzarrean (“Eztabaidatu gurekin”).
- Ikastetxe guztietan AJA berrikustea, bake positiboaren kulturaren printzipioetara egokitzeko
- Komunikabide publikoetatik (Euskal Irrati Telebista –EITB–) Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan esku hartzeko programaren plangintza estrategikoa egitea (Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta). Programak, urtean, honako bost eremu hauetan garatuko ditu ekintzak:
 - Komunikabideetako profesionalen prestakuntza
 - Gizarte-sentsibilizazioa
 - Haur-programazioa
 - Zabalkunde eta parte-hartze soziala
 - Koordinazioa eta jarraipena
- Irakasleentzako Irakaskuntzarako Gaitasun Ikastaroan (IGI) Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako edukiak sartzea.
- Unibertsitate-eremuan Giza Eskubideekin eta Bakearen aldeko Hezkuntzarekin zerikusia duten nahitaezko, hautazko eta aukera libreko kredituak sartzea.

- Eskola-esparruan (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan), irakasleengan, familetan eta irakasleak ez diren langileengan Giza Eskubideak eta Bakearen aldeko Kulturaren balioak sustatzeko urteko kanpaina.

EKINTZA	ILDO ESTRATEGIKOA				PROGRAMA ESTRATEGIKOA							
	1	2	3	4	A	B	C	D	E	F	G	H
Hezkuntza Berriztatzeke Zuzendaritzaren lehentasunezko programa 2007-2010 hirurtekorako: Bizikidetzaren, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntza.												
Programaz arduratuko den kudeaketa-unitate bat – pedagogikoa- sortzea. Materialak lantzerak, Berritzeguneetako irakasleak, arduradunak eta teknikariak prestatzera eta trebatzera, eta ikastetxeak dinamizatzen bideratuta egongo da.												
Urteko Bizikidetzaren Planak lantzeko gida, eta EAEko ikastetxe guztietako Bizikidetzaren Behatokiaren sorkuntza.												
Irakasleen prestakuntza. Ikastetxeko prestakuntza eta askotariko eskaintza indibidualak Garatu planean.												
Herritartasunerako eta giza eskubideetarako hezkuntza irakasgaia bultzatzea.												
Euskadiko errealitateari arreta berezia eskainiko dion												

<p>bakearen aldeko hezkuntzarako berariazko programa bat garatzea. 2006-2007 ikasturtean gauzatu diren proiektu pilotuetan (Bakea eraikitzen duen gizartea) eta 2007-2008 ikasturtean gauzatuko direnetan (<i>Bakea eraikitzen duen gizartea</i> unitatea, <i>Arrastoa uzten duten istorioak</i> unitatearekin osatua) oinarrituko da.</p>												
<p>Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara bitartean bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan esku hartzeko unitate didaktikoak eta plan orokorrak lantzea (Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta).</p>												
<p>Hezkuntza-komunitate osoa bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan sentsibilizatzea.</p>												
<p>Formula propioetan prestatzeko eta bizikidetzari, bakeari eta giza eskubideei lotutako berrikuntza-proiektuetarako laguntza-ildoak.</p>												
<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren eremuak landuko dituzten programa integralak garatzea.</p>												

<p><i>La Peña. Auzo hezitzailea</i> proiektu pilotua (Zamakola proiektua) garatzea, bakearen aldeko hezkuntzaren arloko eskola-antolamendu berritzaileko udal-eremuko programa integral gisa (Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta). Zamakola 2008-2010 proiektua orokortzea.</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 2007-2008: pilotajearekin jarraitzea ▪ 2008-2009: 3 ikastetxe ▪ 2009-2010: 10 ikastetxe. EAEko ikastetxe guztientzako deialdia. 														
<p>Parte-hartzeari buruzko programa garatzea Eusko Legebiltzarrean ("Eztabaidatu gurekin").</p>														
<p>Ikastetxe guztietan AJA berrikustea, bake positiboaren kulturaren printzipioetara egokitzeko.</p>														
<p>Komunikabide publikoetatik (Euskal Irrati Telebista –EITB–) Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan esku hartzeko programaren plangintza estrategikoa egitea (Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta). Programak, urtean, honako bost eremu</p>														

<p>hauetan garatuko ditu ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Komunikabideetako profesionalen prestakuntza ▪ Gizarte-sentsibilizazioa. ▪ Haur-programazioa. ▪ Zabalkunde eta parte-hartze soziala. ▪ Koordinazioa eta jarraipena. 											
<p>Irakasleentzako Irakaskuntzarako Gaitasun Ikastaroan (IGI) Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko edukiak sartzea.</p>											
<p>Unibertsitate-eremuan Giza Eskubideekin eta Bakearen aldeko Hezkuntzarekin zerikusia duten nahitaezko, hautazko eta aukera libreko kredituak sartzea.</p>											
<p>Eskola-esparruan (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan), irakasleengan, familietan eta irakasleak ez diren langileengan Giza Eskubideak eta Bakearen aldeko Kulturaren balioak sustatzeko urteko kanpaina.</p>											

KULTURA SAILA

- “Gazteak eta gatazkak ebaztea” gaiari buruzko prestakuntza-ikastaroak.
- Giza eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzaren arloan espezializatutako komunitateko lider bitartekarien urteko prestakuntza- eta trebakuntza-programa (200-300 ordukoa), Euskadiko erakunde espezialistekin lankidetzan antolatuta.
- Gida didaktikoak lantzea, astialdiko monitoreen eta zuzendarien prestakuntza-ikastaroetako irakasleentzat eta ikasleentzat.
- Diru-laguntza ildoak, gazteengan parte-hartzea eta balioetan eta bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntzaren arloko programen garapena erraztuko duten balioak sustatzeko.
- Gazteriaren Behatokiko Dokumentazio Zentroan Giza Eskubideei eta Bakearen aldeko Hezkuntzari buruzko gaikako blokeak garatzea, gazteentzako programetan.
- Gazteen eremuetan eta guneeetan Giza Eskubideak eta Bakearen aldeko Kulturaren balioak sustatzeko urteko kanpaina.
- Estatuko eta Europako gazteekiko sentsibilizazioko eta kultura-trukeko programa.
- Gazteriaren Euskal Behatokiko Adituen Foroa, “euskal gazteen indarkeria” txostena eztabaidatzeko.
- Gazteekin giza eskubideen eta bakearen kulturaren arloan diharduten pertsonen zuzendutako Nazioarteko Mintegia.
- Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza sustatzeko politikei buruzko Gazte Ontzi (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua).

- Euskadiko errealitate soziopolitikoari buruz eztabaidatzeko, aztertzeko eta proposatzeko foroetan eta taldeetan aldizka parte hartzeko programa.
- Komunikabide publikoetatik (Euskal Irrati Telebista –EITB–) Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan esku hartzeko programaren plangintza estrategikoa egitea (Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta). Programak, urtean, honako bost eremu hauetan garatuko ditu ekintzak:
 - Komunikabideetako profesionalen prestakuntza
 - Gizarte-sentsibilizazioa
 - Haur-programazioa
 - Zabalkunde eta parte-hartze soziala
 - Koordinazioa eta jarraipena

EKINTZA	ILDO ESTRATEGIKOA				PROGRAMA ESTRATEGIKOA							
	1	2	3	4	A	B	C	D	E	F	G	H
"Gazteak eta gatazkak ebaztea" gaiari buruzko prestakuntza-ikastaroak.												
Giza eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzaren arloan espezializatutako komunitateko lider bitartekarien urteko prestakuntza- eta trebakuntza-programa (200-300 ordukoa), Euskadiko erakunde espezialistekin lankidetzan antolatuta.												
Gida didaktikoak lantzea, astialdiko monitoreen eta zuzendarien prestakuntza-ikastaroetako irakasleentzat eta ikasleentzat.												
Diru-laguntza ildoak, gazteengan parte-hartzea eta balioetan eta bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntzaren arloko programen garapena erraztuko duten balioak sustatzeko.												

Gazteriaren Behatokiko Dokumentazio Zentroan Giza Eskubideei eta Bakearen aldeko Hezkuntzari buruzko gaikako blokeak garatzea, gazteentzako programetan.												
Gazteen eremuetan eta guneetan Giza Eskubideak eta Bakearen aldeko Kulturaren balioak sustatzeko urteko kanpaina.												
Estatuko eta Europako gazteekiko sentsibilizazioko eta kultura-trukeko programa.												
Gazteriaren Euskal Behatokiko Adituen Foroa, "euskal gazteen indarkeria" txostena eztabaidatzeko.												
Gazteekin giza eskubideen eta bakearen kulturaren arloan diharduten pertsonen zuzendutako Nazioarteko Mintegia.												
Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza sustatzeko politikei buruzko Gazte Ontzi (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua).												

<p>Euskadiko errealitate soziopolitikoari buruz eztabaidatzeko, aztertzeko eta proposatzeko foroetan eta taldeetan aldizka parte hartzeko programa.</p>											
<p>Komunikabide publikoetatik (Euskal Irrati Telebista –EITB–) Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan esku hartzeko programaren plangintza estrategikoa egitea (Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta). Programak, urtean, honako bost eremu hauetan garatuko ditu ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Komunikabideetako profesionalen prestakuntza ▪ Gizarte-sentsibilizazioa. ▪ Haur-programazioa. ▪ Zabalkunde eta parte-hartze soziala. ▪ Koordinazioa eta jarraipena. 											

JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILA

- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan trebatzeko programa bat sortzea GKEetako kideentzat.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan trebatzeko programa bat sortzea izendapen politikoko karguentzat.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan trebatzeko programa bat sortzea funtzionarioentzat.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan trebatzeko programa bat sortzea poliziako, justizia-administrazioko eta espetxeetako funtzionarioentzat.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan trebatzeko programak sortzea sanitarioentzat.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko praktika onen jardunaldia.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko praktika onen jardunaldia elkarreentzat.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko praktika onen udal-eremuko jardunaldia.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuetarako laguntza-ildoak (diru-laguntza programak) gizarte-erakundeentzat.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuetarako laguntza-ildoak (diru-laguntza programak) gizarte-erakundeentzat.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko lurralde-politikak eta udal-politikak diseinatzeko, lantzeko eta gauzatzen laguntzeko aholkularitza iraunkorreko programa bat sortzea.

- Giza Eskubideetan oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Elkarteen Euskadiko Foroarekin lankidetzara iraunkorreko hitzarmen bat lantzea.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko Baliabide, Aholkularitza, Laguntza Tekniko eta Informazioko Zentro bat sortzea. Zentro horrek, halaber, honako funtzio hauek beteko lituzke:
 - Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko Elkarteen Foroaren idazkaritza teknikoa.
 - Giza Eskubideetan Oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Kontsulta Kontseiluaren.
 - Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzarako udal-politiken arloko aholkularitza.
 - Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko informazio-zentroa.
 - Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko baliabide-zentroa.
- Bakearen eta giza eskubideen arloko hezkuntzaren Euskadiko errealitateari buruzko web-orri tematiko bat (informazio-tresna zentralizatua izango dena) sortzea.
- Giza eskubideen arloko oinarrizko argitalpenen zabalkunde-bilduma iraunkor bat sortzea.
- Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko oinarrizko testuak itzultzea eta zabaltzea.
- Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko praktika onen eskuliburu bat argitaratzea.
- Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko eta udal-eremuko programa integralak garatzea.
- *La Peña. Auzo hezitzailea* proiektu pilotua (Zamakola proiektua) garatzea, bakearen aldeko hezkuntzaren arloko eskola-antolamendu berritzaileko udal-eremuko programa

integral gisa (Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta). Zamakola 2008-2010 proiektua orokortzea:

- o 2007-2008: pilotajearekin jarraitzea
 - o 2008-2009: 3 ikastetxe
 - o 2009-2010: 10 ikastetxe. EAEko ikastetxe guztientzako deialdia.
- Giza Eskubideak eta Bakearen Kulturaren balioak sustatzeko urteko kanpaina.
 - Giza eskubideen arloko eta bakearen aldeko hezkuntzan zinemaren bitartez esku hartzeko programa.
 - Giza eskubideen arloko eta bakearen aldeko hezkuntzan antzerkiaren bitartez esku hartzeko programa.
 - Indarkeriari eta bideojokoei buruzko sentsibilizazio-programa.
 - Euskadiko errealitateari arreta berezia eskainiko dion bakearen aldeko hezkuntzarako berariazko programa bat garatzea. 2006-2007 ikasturtean gauzatu diren proiektu pilotuetan (Bakea eraikitzen duen gizartea) eta 2007-2008 ikasturtean gauzatuko direnetan (*Bakea eraikitzen duen gizartea* unitatea, *Arrastoa uzten duten istorioak* unitatearekin osatua) oinarrituko da.
 - Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara bitartean bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan esku hartzeko unitate didaktikoak eta plan orokorrak lantzea (Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta).
 - Komunikabide publikoetatik (Euskal Irrati Telebista -EITB-) Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan esku hartzeko programa bultzatzea, koordinatzea eta gauzatzea (EITBrekin, Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzarekin eta Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzarekin batera). Programak, urtean, honako bost eremu hauetan garatuko ditu ekintzak:
 - o Komunikabideetako profesionalen prestakuntza

- o Gizarte-sentsibilizazioa
- o Haur-programazioa
- o Zabalkunde eta parte-hartze soziala
- o Koordinazioa eta jarraipena
- Unibertsitate-esparruan esku hartzeko eta giza eskubideen eta bakearen arloan ikerketa/gogoeta aplikatua bultzatzeko programa sektoriala.
- Biktimen arloko graduondoko ikasketak sustatzea (Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta).
- Giza eskubideen arloko graduondoko ikasketak sustatzea.
- Giza Eskubideen nazioarteko mintegiak antolatzea.
- Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko beka-programa.
- Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzan adituak diren nazioarteko erakundeekin lankidetzeta-hitzarmenak sinatzea eta garatzea.

EKINTZA	ILDO ESTRATEGIKOA				PROGRAMA ESTRATEGIKOA							
	1	2	3	4	A	B	C	D	E	F	G	H
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan trebatzeko programa bat sortzea GKEetako kideentzat.												
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan trebatzeko programa bat sortzea izendapen politikoko karguentzat.												
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan trebatzeko programa bat sortzea funtzionarioentzat.												
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan trebatzeko programa bat sortzea poliziako, justizia-administrazioko eta espetxeetako funtzionarioentzat.												
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan trebatzeko programak sortzea sanitarioentzat.												

Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko praktika onen jardunaldia.													
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko praktika onen jardunaldia elkarteentzat.													
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko praktika onen udal-eremuko jardunaldia.													
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuetarako laguntza-ildoak (diru-laguntza programak) gizarte-erakundeentzat.													
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuetarako laguntza-ildoak (diru-laguntza programak) gizarte-erakundeentzat.													
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko lurralde-politikak eta udal-politikak diseinatzeko, lantzeko eta gauzatzen laguntzeko aholkularitza iraunkorrekoko programa bat sortzea.													

<p>Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko Euskadiko Elkartearen Foroarekin lankidetzara iraukorreko hitzarmen bat lantzea.</p>										
<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko Baliabide, Aholkularitza, Laguntza Tekniko eta Informazioko Zentro bat sortzea. Zentro horrek, halaber, honako funtzio hauek beteko lituzke:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko Elkartearen Foroaren idazkaritza teknikoa. ▪ Giza Eskubideetan Oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Kontsulta Kontseiluaren idazkaritza teknikoa. ▪ Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzarako udal-politiken arloko aholkularitza. ▪ Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko informazio-zentroa. ▪ Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko baliabide-zentroa. 										
<p>Bakearen eta giza eskubideen arloko hezkuntzaren Euskadiko errealitateari buruzko web-orri tematiko bat (informazio-tresna zentralizatua izango dena) sortzea.</p>										

<p>Giza eskubideen arloko oinarrizko argitalpenen zabalkunde-bilduma iraunkor bat sortzea.</p>										
<p>Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko oinarrizko testuak itzultzea eta zabaltzea.</p>										
<p>Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko praktika onen eskuliburu bat argitaratzea.</p>										
<p>Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko eta udal-eremuko programa integralak garatzea.</p>										
<p><i>La Peña. Auzo hezitzailea</i> proiektu pilotua (Zamakola proiektua) garatzea, bakearen aldeko hezkuntzaren arloko eskola-antolamendu berritzaileko udal-eremuko programa integral gisa (Hezkuntza Berritzatzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta). Zamakola 2008-2010 proiektua orokortzea:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ 2007-2008: pilotajearekin jarraitzea ▪ 2008-2009: 3 ikastetxe ▪ 2009-2010: 10 ikastetxe. EAEko ikastetxe guztientzako deialdia. 										

<p>Giza Eskubideak eta Bakearen Kulturaren balioak sustatzeko urteko kanpaina.</p>										
<p>Giza eskubideen arloko eta bakearen aldeko hezkuntzan zinemaren bitartez esku hartzeko programa.</p>										
<p>Giza eskubideen arloko eta bakearen aldeko hezkuntzan antzerkiaren bitartez esku hartzeko programa.</p>										
<p>Indarkeriari eta bideojokoei buruzko sentsibilizazio-programa.</p>										
<p>Euskadiko errealitateari arreta berezia eskainiko dion bakearen aldeko hezkuntzarako berariazko programa bat garatzea. 2006-2007 ikasturtean gauzatu diren proiektu pilotuetan (<i>Bakea eraikitzen duen gizartea</i>) eta 2007-2008 ikasturtean gauzatuko direnetan (<i>Bakea eraikitzen duen gizartea unitatea, Arrastoa uzten duten istorioak unitatearekin osatua</i>) oinarrituko da.</p>										

<p>Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara bitartean bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan esku hartzeko unitate didaktikoak eta plan orokorrak lantzea (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzarekin koordinatuta).</p>										
<p>Komunikabide publikoetatik (Euskal Irrati Telebista –EITB–) Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan esku hartzeko programa bultzatzea, koordinatzea eta gauzatzea (EITBrekin, Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzarekin eta Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritzarekin batera). Programak, urtean, honako bost eremu hauetan garatuko ditu ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Komunikabideetako profesionalen prestakuntza ▪ Gizarte-sentsibilizazioa ▪ Haur-programazioa ▪ Zabalkunde eta parte-hartze soziala ▪ Koordinazioa eta jarraipena 										
<p>Unibertsitate-esparruan esku hartzeko eta giza eskubideen eta bakearen arloan ikerketa/gogoeta aplikatua bultzatzeko programa sektoriala.</p>										

Biktimen arloko graduondoko ikasketak sustatzea (Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta).														
Giza eskubideen arloko graduondoko ikasketak sustatzea.														
Giza Eskubideen nazioarteko mintegiak antolatzea.														
Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko beka-programa.														
Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzan adituak diren nazioarteko erakundeekin lankidetzak-hitzarmenak sinatzea eta garatzea.														

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA

- Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren eremuak landuko dituzten programa integralak garatzea, kultura arteko ikuspegia bereziki kontuan hartuta.
- Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren eremuak landuko dituzten parte-hartze programa integralak (Erkidegoaren, Aldundien eta Udalen esparrukoak) garatzea, kultura arteko ikuspegia bereziki kontuan hartuta.

EKINTZA	ILDO ESTRATEGIKOA				PROGRAMA ESTRATEGIKOA							
	1	2	3	4	A	B	C	D	E	F	G	H
Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren eremuak landuko dituzten programa integralak garatzea, kultura arteko ikuspegia bereziki kontuan hartuta.												
Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren eremuak landuko dituzten parte-hartze programa integralak (Erkidegoaren, Aldundien eta Udalen esparrukoak) garatzea, kultura arteko ikuspegia bereziki kontuan hartuta.												

LEHENDAKARITZA

- Bakea eraikitzean gizarte parte-hartzea sustatzeko ekimena.

EKINTZA	ILDO ESTRATEGIKOA				PROGRAMA ESTRATEGIKOA							
	1	2	3	4	A	B	C	D	E	F	G	H
Bakea eraikitzean gizarte parte-hartzea sustatzeko ekimena.												

HERRIZAINGO SAILA

- Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloko laguntza-ildoak, terrorismoaren biktimen berriazko eremuan.
- Biktimen arloko graduondoko ikasketak sustatzea (Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta).
- Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin eta Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzarekin lankidetzan jardutea Euskadiko errealitateari arreta berezia eskainiko dion bakearen aldeko hezkuntzarako berriazko programan, 2006-2007 ikasturtean gauzatu diren proiektu pilotuetan eta 2007-2008 ikasturtean gauzatuko direnetan (*Bakea eraikitzen duen gizartea, Arrastoa uzten duten istorioak*) oinarrituta.
- Komunikabide publikoetatik (Euskal Irrati Telebista –EITB–) Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan esku hartzeko programaren plangintza estrategikoa egitea (Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta). Programak, urtean, honako bost eremu hauetan garatuko ditu ekintzak:
 - Komunikabideetako profesionalen prestakuntza
 - Gizarte-sentsibilizazioa
 - Haur-programazioa
 - Zabalkunde eta parte-hartze soziala
 - Koordinazioa eta jarraipena

EKINTZA	ILDO ESTRATEGIKOA				PROGRAMA ESTRATEGIKOA							
	1	2	3	4	A	B	C	D	E	F	G	H
Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloko laguntza-ildoak, terrorismoaren biktimen berariazko eremuan.												
Biktimen arloko graduondoko ikasketak sustatzea (Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin koordinatuta).												
Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin eta Hezkuntza Berriztatzeke Zuzendaritzarekin lankidetzan jardutea Euskadiko errealitateari arreta berezia eskainiko dion bakearen aldeko hezkuntzarako berariazko programan, 2006-2007 ikasturtean gauzatu diren proiektu pilotuetan eta 2007-2008 ikasturtean gauzatuko direnetan (<i>Bakea eraikitzen duen gizartea, Arrastoa uzten duten istorioak</i>) oinarrituta.												
Komunikabide publikoetatik (Euskal Irrati Telebista -EITB-) Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan esku hartzeko programaren plangintza estrategikoa egitea (Giza Eskubideen												

<p>Zuzendaritzarekin koordinatuta). Programak, urtean, honako bost eremu hauetan garatuko ditu ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ▪ Komunikabideetako profesionalen prestakuntza ▪ Gizarte-sentsibilizazioa ▪ Haur-programazioa ▪ Zabalkunde eta parte-hartze soziala ▪ Koordinazioa eta jarraipena 											
--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--	--

ALDUNDIAK

Arabako Foru Aldundia

- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzari lotutako mahai-jokoak egitea.
- Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntza-aisiako programak garatzea.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko programak foru-aterpetxeetan.

EKINTZA	ILDO ESTRATEGIKOA				PROGRAMA ESTRATEGIKOA							
	1	2	3	4	A	B	C	D	E	F	G	H
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzari lotutako mahai-jokoak egitea.												
Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntza-aisiako programak garatzea.												
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko programak foru-aterpetxeetan.												

Bizkaiko Foru Aldundia

- “Giza Eskubideei buruzko Araudia” ikastaroa Aldundiko langileentzat.
- Gatazkak etikoki lantzeko prestakuntza.
- Erakusketa ibiltari batean oinarritutako prestakuntza ikastetxeetan.
- Giza Eskubideen arloko sentsibilizazio-proiektuak.
- Giza Eskubideen aldeko herrien eta hirien sarea.
- Gizarte multikulturalen erronkei buruzko azterketa eta gogoeta egiteko Giza Eskubideen Foroa.
- Pertsona indibidualak edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen argitalpena babestea.
- Giza art. Giza aniztasunari buruzko antzerki-lanak.
- Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntza-aisiako programak garatzea.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko programak foru-aterpetxeetan.
- Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera, zergadunek giza eskubideen babesean, sustapenean eta hezkuntzan diharduten erakundeei emandako laguntzak zerga-arintzea jaso dezake (1/2004 Foru Aldundia, 2004/03/11ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala). Era berean, zerga-pizgarri bat eskaintzen die erakunde horiei (zerga txikiagoa).

EKINTZA	ILDO ESTRATEGIKOA				PROGRAMA ESTRATEGIKOA							
	1	2	3	4	A	B	C	D	E	F	G	H
"Giza Eskubideei buruzko Araudia" ikastaroa Aldundiko langileentzat.												
Gatazkak etikoki lantzeko prestakuntza.												
Erakusketa ibiltari batean oinarritutako prestakuntza ikastetxeetan.												
Giza Eskubideen arloko sentsibilizazio-proiektuak.												
Giza Eskubideen aldeko herrien eta hirien sarea.												
Gizarte multikulturalen erronkei buruzko azterketa eta gogoeta egiteko Giza Eskubideen Foroa.												
Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen argitalpena babestea.												
Giza art. Giza aniztasunari buruzko antzerki-lanak.												
Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntza-												

<p>aisiako programak garatzea.</p>											
<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko programak foru-aterpetxeetan.</p>											
<p>Bizkaiko Foru Aldundiaren arabera, zergadunek giza eskubideen babesean, sustapenean eta hezkuntzan diharduten erakundeei emandako laguntzak zerga-arintzea jaso dezake (1/2004 Foru Aldundia, 2004/03/11ko Bizkaiko Aldizkari Ofiziala). Era berean, zerga-pizgarri bat eskaintzen die erakunde horiei (zerga txikiagoa).</p>											

Gipuzkoako Foru Aldundia

- “Giza Eskubideak: globalizaziorako erronkak eta eskakizunak” ikastaroa.
- Eskubide ekonomikoei, sozialei eta kulturei buruzko hastapen-ikastaroa.
- Prestakuntzarako bekak.
- Giza Eskubideen inguruko mahai-joko bat egitea.
- Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen argitalpena babestea.
- Giza eskubideei buruzko erakusketa ibiltaria.
- Giza eskubideei buruzko antzerki-foruma.
- Giza Eskubideei lotutako zinema-jarduerak.
- Giza eskubideei buruzko lurralde-esparruko web-orria.
- Giza eskubideen sustapenaren eta babesaren eremuan diharduten pertsonen eta/edo erakundeen esker ona adierazteko urteko ekitaldia.
- Giza eskubideen arloko sentsibilizazio-proiektuetarako laguntza ekonomikoa.
- Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen zabalkundea babestea.
- Giza Eskubideak sustatzeko urteko kanpaina.

EKINTZA	ILDO ESTRATEGIKOA				PROGRAMA ESTRATEGIKOA							
	1	2	3	4	A	B	C	D	E	F	G	H
"Giza Eskubideak: globalizaziorako erronkak eta eskakizunak" ikastaroa.												
Eskubide ekonomiko, sozialei eta kulturei buruzko hastapen-ikastaroa.												
Prestakuntzarako beka.												
Giza Eskubideen inguruko mahai-joko bat egitea.												
Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen argitalpena babestea.												
Giza eskubideei buruzko erakusketa ibiltaria.												
Giza eskubideei buruzko antzerki-foruma.												
Giza Eskubideei lotutako zinema-jarduerak.												

Giza eskubideei buruzko lurralde-esparruko web-orria.												
Giza eskubideen sustapenaren eta babesaren eremuan diharduten pertsonei eta/edo erakundeei esker ona adierazteko urteko ekitaldia.												
Giza eskubideen arloko sentsibilizazio-proiektuetarako laguntza ekonomikoa.												
Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen zabalkundea babestea.												
Giza Eskubideak sustatzeko urteko kanpaina.												

UDALAK-EUDEL

- Giza eskubideetan eta bakean oinarrituriko hezkuntzaren arloko jardunbide egokiei buruzko udal-jardunaldia, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin lankidetzan.
- Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza sustatzeko lanean udalek dituzten praktika onak zabaltzea.
- Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin lankidetzan aholkularitza iraunkorreko programa sortzea, giza eskubideetan eta bakean oinarrituriko hezkuntzaren arloko lurralde- eta udal-politikak diseinatu, egin eta gauzatzeko laguntzeko.
- Planeko *Baliabide, Aholkularitza, Laguntza Tekniko eta Informazio Zentroarekiko* loturazko baliabide bat sortzea, giza eskubideetan eta bakean oinarrituriko hezkuntzaren arloko udal-politikei buruzko aholkularitza gauzatzeko.
- Giza eskubideetan eta bakean oinarrituriko hezkuntzarako udal-sarea sortzea.
- Giza eskubideetan eta bakean oinarrituriko hezkuntzako udal-mailako programa integralak garatzea Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin lankidetzan.

- Giza eskubideen eta bakearen arloko hezkuntzako esku-hartzeak egiteko programa garatzea Udalen kultur egitarauen bidez, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin lankidetzan.

EKINTZA	ILDO ESTRATEGIKOA				PROGRAMA ESTRATEGIKOA							
	1	2	3	4	A	B	C	D	E	F	G	H
Giza eskubideetan eta bakean oinarrituriko hezkuntzaren arloko jardunbide egokiei buruzko udal-jardunaldia, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin lankidetzan.												
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza sustatzeko lanean udalek dituzten praktika onak zabaltzea.												
Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin lankidetzan aholkularitza iraunkorreko programa sortzea, giza eskubideetan eta bakean oinarrituriko hezkuntzaren arloko lurralde-eta udal-politikak diseinatu, egin eta gauzatzen laguntzeko.												
Planeko <i>Baliabide, Aholkularitza, Laguntza Tekniko eta Informazio Zentroarekiko</i> loturazko baliabide bat sortzea, giza eskubideetan eta bakean oinarrituriko hezkuntzaren arloko udal-politikei buruzko aholkularitza gauzatzeko.												

<p>Giza eskubideetan eta bakean oinarrituriko hezkuntzarako udal-sarea sortzea.</p>											
<p>Giza eskubideetan eta bakean oinarrituriko hezkuntzako udal-mailako programa integralak garatzea Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin lankidetzan.</p>											
<p>Giza eskubideen eta bakearen arloko hezkuntzako esku-hartzeak egiteko programa garatzea Udalen kultur egitarauen bidez, Eusko Jaurlaritzako Giza Eskubideen Zuzendaritzarekin lankidetzan.</p>											

4.2. – ANTOLAMENDU EREMUA

4.2.1. PLAN EREDUA

Giza eskubideen eta bakearen aldeko kultura eraginkortasunez bultzatzeko, behar-beharrezkoa da koordinazio-egitura eraginkorra, sendoa eta iraunkorra sortu beharra azpimarratzea, gure gizartean gaur egun eskuragarri dauden baliabideen eta politiken diagnostikoa aintzat hartuta. Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko eragileen arteko harreman- eta koordinazio-eredurik ezarri gabe, ezinezkoa izango da aurrera egitea balio horiek barneratzeko eta haien kontrabaliok deslegitimatzeko ahaleaginean.

Planaren funtsezko oinarri estrategiko-operatibo bat honako hau da: lortu nahi diren balio-edukiak eta eduki horiek eragiten dituzten bide instrumentalak ez dira nahastu behar. Giza eskubideen eta bakearen kulturaren hezkuntza-alderdia bultzatzeko, erakunde-arkitektura egokia bermatu behar da, gizarte-pedagogiako potentzialak errazteko eta potentzial horiekin bat egiteko. Eta, horretarako, esku hartzeko egitura egokia diseinatu behar da, erakunde-mezuak eta gizarte-mezuak maiztasun-maila berean jartzeko. Eskolak mezu kontraesankorrak jaurtitzen baditu gertuko gizarte-ingurunera, administrazio bakoitzaren politika sektorialek estrategia eta mezu bereziak badituzte, mezuak eta gizarte-praxia bat ez badatoz, eta hezkuntza-estrategia globalean nolabaiteko homogeneotasunik eta korrelaziorik ez badago, orduan ezinezkoa izango da giza eskubideak eta bakea errespetatzen dituzten herritarren portaera-ereduak argi eta garbi ikustea.

Gizarte-pedagogiaren arloko esku-hartze serio batek ezin du alde batera utzi balioak eta kontrabaliok aldatzeko gizarte-prozesuen konplexutasuna.

Indarkeria deslegitimatu nahi badugu, giza eskubideen urratzea deslegitimatu nahi badugu, edo, era positiboan esanda, herritarren kultura demokratikoa, parte-hartzean oinarritua, solidarioa, zuzena, berdintasunezkoa eta pertsonen duintasuna eta eskubideak errespetatzen dituen indartu nahi badugu, informazioa ematea ez da nahikoa. Gizarte pedagogia ez da informatzera mugatzen, askoz ere kontzeptu konplexuagoa da. Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planak hezteko du xede, epe ertainean eta luzean ekintzak egiteko eta jarrerak aldatzeko ballabidea izan baitaiteke. Eta horrek politika jakin batzuk diseinatzea eskatzen du nahitaez. Diseinu horrek, gobernuari berez dagokionaz aparte, sinergiak eta aliantzak sortu behar ditu erakunde-maila eta gizarte-maila guztietan.

Gainera, politikaren eta erakundearen jardunaren eta gizarte-ekimenaren arteko beharrezko aliantza eta osagarritasuna lagungarria da botere-egituren autoritarismo-arriskuak saihesteko, oinarri demokratikorik gabeko gizarte-ingeniaritzako makrooperazioak abiarazteko aukerarik eman gabe. Oinarrizko gizarte-adostasunak gizarte zibilak bultzatuta kudeatu eta aberastu behar dira, gizarte zibil horrek bere jarduna politika publikoetatik bideratu eta bermatu ahal izan dezan. Eta hori, betiere, erantzukizun publikoaren printzipio nagusia alde batera utzi gabe. Printzipio horren arabera, erakundearen gidaritza ezinbestekoa eta utziezina da, baina gizarte-indarrekin indarrak metatuz eta errespetuarekin lankidetzan jardunez gauzatu behar da.

Aurrez aipatutako guztiarengatik, Planaren estrategia operatiboak harreman-eredu jakin bat hartu behar du aintzat, gutxienez hiru mailatan banatua: sailen artekoa (Eusko Jaurlaritza), erakundearen artekoa (Aldundiak, Udalak, giza eskubideen inguruko erakunde ofizialak eta/edo nazionalak eta abar) eta soziala.

Hortaz, Plan-eredua ezin da **sailen arteko** alderdira mugatu. Eusko Jaurlaritzaren barruan koordinazioa funtsezkoa da, eta, gainera, dagoeneko abian jarritako lan-tradizioaren lekukoa hartzen du Planean. Horrez gain, Planak trakzionatu egin behar du, Administrazioaren gainerako mailekiko ikuspegi estrategikoa ahalbidetzeko (erakundeen arteko koordinazioa: Aldundiak eta Udalak). Planak **erakunde arteko** plano batean garatu behar du bere ekintza, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloko eragile ofizial guztiak inplikatur (Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen Batzordea, arartekoa, Emakunde...).


Baina ekintza hori ez da horrekin amaitu behar. Gobernu-eragileek eta erakunde-eragileek bakarrik ezin dute inoiz behar bezala garatu bakearen eta giza eskubideen kulturaren sustapen eta zabalkunde sistematikoa. Eragile horiek gizarte-ekintza aktiboki gidatu eta sustatuko duten politikak lantzearen lehen erantzuleak dira eta, horren ondorioz, gizarte-ekintza hori modu esponentzian areagotzeko asmoa dute. Hori dela-eta, Planak hasiera-hasieratik hartu behar ditu eraginpean. *Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako **Euskal Plana*** aipatzerakoan, eredu hori hartu behar da aintzat, plangintzan, erakunde-sare osoa ez ezik, GKEen eta gizarte zibilaren jarduna eta inputa ere bildu nahi baititu.

4.2.2. PLANAREN EGITURA ORGANIKO BATERANTZ

Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko eragileen harremanetarako eta koordinaziorako eredua sortzeko prozesuan, bi fase bereizi behar dira: lehenik, Plana lantzeko *partaidetzazko* prozesua, eta, bestetik, onartutako Planak eskainiko duen parte-hartzerako eta harremanetarako eredua.

PLANA LANTZEKO FASEA

Plana abian jartzeko, Giza Eskubideetan oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Sailarteko Batzordea sortu zen (2006ko urriaren 17ko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia). Batzorde horrek Plana lantzeko agindu formala jaso zuen, eta trakzio-zentro gisa jardun du eta dihardu, erakundeen eta gizartearen sarea koordinatzen eta dinamizatzen duen neurrian. Koordinaziorako egitura formalik ezean, Plana lantzeko fase honetan Sailarteko Batzordeak jardun du eragile guztien arteko lotura gisa. Zehazki, hurrengo taulan ageri diren eragileen ekarpenak biltzeaz eta haiei informazioa emateaz arduratu da. Eta, nolana ere, beste eragile batzuen ekarpenei ateak itxi gabe.



Eusko Jaurlaritzaren Sailak zuzenean koordinatzen dituen Sailarteko Batzorde horren ezkerrean, komunikabideak eta EAEko erakunde-sarea (Udalak, Aldundiak, Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen Batzordea, Giza Eskubideen Erakunde Ofizialak —arartekoa edo Emakunde, esaterako— eta EITB) kokatzen dira. Eskuinaldean, berriz, elkarteekiko (Elkarteen Foroa), eragile ekonomikoekiko, elizekiko, gazte-elkarteekiko (Gazteriaren Euskal Kontseilua), eta Giza Eskubideen institutuekiko eta unibertsitateekiko harremanetarako foro jakin batzuk ipini dira.

Sailarteko Batzordea, halaber, nazioarteko erakundeekiko (NBEren Giza Eskubideen Goi Komisarioa, UNESCO eta Europako Kontseilua) zuzeneko harremanetarako organoa da. Erakunde horiei ere aurkezten zaizkie ekarpenak jasotzeko dokumentuak.

Harremanetarako alde biko kanalen osagarri gisa, giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren egoerari buruzko diagnostikoa egiteko, halaber, zenbait eragilerekin eztabaidatzeko taldeak osatu behar dira, planaren estrategietan eta egituran aurrera egiteko.

Eusko Jaurlaritzaren Sailarteko Batzordea —eta, zehazkiago, Giza Eskubideen Zuzendaritza— da, beraz, informazioa hedatzeaz eta sareko eragileen arteko koordinazioa zabalitzeaz arduratzen den organoa.

Ondorioz, Zuzendaritza edo sareko eragile bakoitzak —Giza Eskubideen Zuzendaritza barne— bere programa sektorial propioa edukiko duela oinarritzat hartuta, azken zuzendaritza hori izango da programa guztien arteko koordinazioa ziurtatuko duena, eragile bakoitzaren programazio sektorialean laguntzeko egitura eskainiko duena eta Planaren elementu komunak eta zeharkakoak dinamizatuko dituena.

Prozesu osoan zehar, erakundeen eta gizartearen parte-hartzea oso zabala izan da Plana lantzerakoan. Honako une edo fase hauek azpimarra ditzakegu:

1. Eusko Jaurlaritzaren Sailei, Aldundiei eta Udalei lehen zirriborroa aurkeztea eta ekarpenak biltzeko epea irekitzea (2007ko otsaila).
2. 2007ko maiatzean, Gai Ekonomikoetarako Batzorde Delegatuak "*Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko hezkuntzaren arloko Euskal Ekintza Planaren* oinarritzko ildo estrategikoak eta ekonomikoak (2008-2009)" dokumentua onartu zuen. Dokumentu horretan, esku-hartze alor guztien neurriak lantzeko oinarritzat hartu diren ildo nagusiak bildu dira.
3. 2007ko ekainean, Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren lehen Zirriborroa landu zen.

Hortik aurrera, lana neurriak eta ekintza-proposamenak zehaztera bideratu da. Eusko Jaurlaritzaren Sailen, Aldundien eta Udalen, eta erakunde- eta gizarte-eragileen eta, bereziki, Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzako Elkartearen Foro eratu berriaren ordezkariak parte hartu dute prozesu horretan.

Ekainean, zirriborroa Legebiltzarrean aurkeztu zen, eta Eusko Jaurlaritzaren Sail, erakunde eta gizarte-eragile guztiei bidali zitzaientzaz aztertu eta zabal ezatzen. Dokumentua hobetzeko prozesu horretarako, 2007ko irailera arteko epea ireki zen. Aldi berean, nazioarteko instantziei ere (Goi Komisarioa, UNESCO, Europako Kontseilua) bidali zitzaientzaz dokumentua.

Ondoren, arestian adierazitako instantziek proposatutako ekarpenak eta aldaketak erantsi dira, eta **Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako 2008-2011 Euskal Plana** izeneko bigarren Zirriborroa landu da. Bigarren zirriborro oso hori, Sailarteko Batzordeak 2007ko urriaren 30eko bilkuran onartu ondoren, 2007ko azaroaren 28an Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak sortutako Biktimen Ponentziari aurkeztuko zitzaion, eta legebiltzar-talde desberdinekiko transakzioko osagaiak jasoko ditu une honetatik aurrera. Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako 2008-2011 Euskal Plana 2007ko abenduaren 26ko Jaurlaritzaren Kontseiluak onartu zuen behin betiko.

PLANA ONARTU ONDOKO KUDEAKETA EGITURAK: GIZA ESKUBIDEETAN OINARRITUTAKO ETA BAKEAREN ALDEKO HEZKUNTZAREN KONTSULTA KONTSEILUA

Giza Eskubideetan oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Sailarteko Batzordeak maila guztiak koordinatzeko garatu duen zereginak beste egitura baten sostengua behar du, behin Plana onartu ondoren: **Giza Eskubideetan Oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Kontsulta Kontseilua.**

Kontseilua Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailari atxikiko zaio, eta EAEko kontsulta-organo ofizial gorenaren izango da Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloan. Honako helburu hauek izango ditu:

- Planaren printzipio arautzaile nagusietako bati edukia ematea: Gizartearen parte-hartzea.
- Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan inplikaturako gizarte-erakundeek parte hartzeko bide bat ezartzea.

- Arlo horretan erakundeen artean koordinatzeko bide bat ezartzea.
- Planean esanbidez aurreikusitako osagarriak izango diren ekintzak bultzatzea eta proposatzea.
- Plana ebaluatzeko tresna eta organo osagarria izatea.

Arestian deskribatutako helburu hori lortzeko, Kontsulta Kontseiluak honako funtzio hauek bete beharko ditu:

- Planaren ildo estrategikoen garapen arruntari buruzko iritzia ematea.
- Planaren edozein aldetari buruzko iritzia ematea.
- Arauak aldatzearekin zerikusia duten proposamenei buruzko iritzia ematea, baldin eta aldaketa horrek plan honen garapenean eragina izan badezake.
- Planaren ebaluazioari buruzko iritzia ematea.
- Planaren ekintza osagarrien proposamenak bideratzea eta proposamen horien egokitasuna baloratzea.
- Planean edo plana garatzerakoan jartzen zaizkion gainerako funtzio guztiak.
- Giza Eskubideen Zuzendaritzari planaren garapenari buruzko aholkuak ematea.

Gizarte-arloko parte-hartzearen organo nagusia den aldetik, Kontsulta Kontseilua paritariora izango da, eta gizarte zibilak gutxienez administrazio publikoek adina ordezkari izango ditu bertan.

Kontseilua lehendakariak, bi lehendakariordek eta 18 kontseilukidek osatzen dute, eta honako era honetan aukeratzen edo izendatzen dira:

- o Giza eskubideen eremuan eta, bereziki, bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan ospe edo esperientzia handia duen aditu independente bat, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuak izendatua (sailburuak **Kontseiluko lehendakari-lanetan** jardungo du). Lehendakariak kalitateko botoa izango du.
 - o **Eusko Jaurlaritzaren lau** ordezkari
 - Giza Eskubideen zuzendaria; Kontseiluko **lehen lehendakariordea** izango da.
 - Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria (Herrizaingo Saila).
 - Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendaria (Kultura Saila).
 - Hezkuntza Berriztatze zuzendaria (Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila).
 - o **Foru Aldundien hiru** ordezkari (bat lurralde historiko bakoitzeko); giza eskubideen arloan eskumena duten foru-sailen titularrek izendatuko dituzte.
 - o **Euskadiko udalerrien hiru** ordezkari; EUDELeK izendatuko ditu.
 - o Helburu nagusien eta lehentasunezkoen artean EAEko eremuan bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuak garatzea duten **elkarteen eta erakundeen lau** ordezkari; elkarte edo erakunde horiek aukeratuko dituzte horretarako aurkeztutako hautagaien artean.
- Lau ordezkarietako bat nagusiki eta lehentasunez bakearen aldeko hezkuntzaren arloko eta bereziki terrorismoaren biktimei zuzendutako proiektuetan aritzen direla egiaztatzen duten erakundeen artean aukeratu beharko da.

Ordezkeri horietako bat Kontseiluko **bigarren lehendakariordea** izango da.

- o **Euskadiko Eskola Kontseiluaren lau** ordezkari.
- o Unibertsitate Publikoaren (**EHU/UPV**) ordezkari **bat**; bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan esperientzia duela egiaztatu beharko du.
- o **Arartekoaren** erakundearen ordezkari **bat**.

Kontseiluak hiru lan-batzorde izango ditu, eta bakoitzak profil nagusi bat izango du (hezkuntza formala, koordinazioa, hezkuntza ez-formala). Batzordeen osaera honako hau izango da:

- o 1. Batzordea (hezkuntza formala):
 - Kontseiluko lehendakariak zuzenduko du,
 - Hezkuntza Berriztatze zuzendaria (EJ),
 - EHU-UPVren ordezkari 1,
 - elkarteen ordezkari 1,
 - Eskola Kontseiluaren ordezkari 1.
- o 2. Batzordea (Koordinazioa):
 - lehen lehendakariordeak, hots, Giza Eskubideen zuzendariak (EJ) zuzenduko du,
 - elkarteen ordezkari 1,
 - Foru Aldundien ordezkari 1,
 - EUDELen ordezkari 1,
 - Eskola Kontseiluaren ordezkari 1.
- o 3. Batzordea (hezkuntza ez-formala):
 - bigarren lehendakariordeak (elkarteen ordezkariak) zuzenduko du,
 - Gazteria eta Gizarte Ekintza zuzendaria (EJ),

- Foru Aldundien ordezkari 1,
- EUDELen ordezkari 1,
- Eskola Kontseiluaren ordezkari 1.

Batzorde Iraunkorra presidenteak eta bi presidenteordeek (horiek dira hiru batzordeen buru) osatzen dute, eta osoko bilkuren gai-zerrendak prestatzen ditu.

Kontseiluaren Osoko Bilkurak ohiko bi bilera izango ditu urtean. Batzordeek gutxienez bi bilera izango dituzte urtean (gehi beren baitan deitutakoak). Batzorde Iraunkorra beharrezkoa den guztietan bilduko da, eta, nolana ere, osoko bilkurak egin aurretik.

Plana indarrean jartzean, Giza Eskubideen zuzendaria arduratuko da Kontseiluaren ordezkariak izendatzeko ofizioak bidaltzeaz. Elkarteen ordezkarien kasuan, lehenik eta behin giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzako Elkarteen Forora joko du, hark izendatzeko prozedura finka dezan. Elkarreek Kontseiluan dituzten ordezkariak ez dute nahitaez Foroko kide izan behar.

Osoko Bilkuraren lehen bileran, Bilkurak batzordeetako bati aginduko dio, edota ad hoc batzorde bat osatuko du Kontseiluaren barne-araudia idazteko.

Kontsulta Kontseiluak **idazkaritza tekniko eta administratibo bat izango du** Giza Eskubideen Zuzendaritzaren eskutik.

Hortaz, organo horrek ez du Sailarteko Batzordea ordezkatzeko edo baztertzearen (osatu egiten duela esan daiteke, eta plangintza egiteko eta bultzatzeko zereginak betetzen jarraituko du), baina erakundeen arteko artikulazioa eta koordinazioa ahalbidetzen du, eta, aldi

berean, giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren sektorean antolatutako gizarte zibilaren ordezkariarekin lotzeko bidea ematen du.

4.3. – PLANAREN KUDEAKETA

4.3.1. EBALUAZIOA: ERANTZULEAK ETA KONTROLA

Eusko Jaurlaritzaren Giza Eskubideetan oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Sailarteko Batzordeak eta Giza Eskubideen Zuzendaritzak Planaren erantzukizuna duten erakunde guztiekin koordinatuko dituzte beren ahaleginak etengabe, erakunde bakoitzak hartutako neurrien eraginkortasuna eta egokitasuna aztertzerakoan. Halaber, Plana zenbateraino betetzen den eta Planaren egokitasuna etengabe ebaluatzeko organo erantzule, prozedura eta adierazle egokiak antolatuko dituzte.

Eusko Jaurlaritzaren Sailarteko Batzordeari ebaluazioak –osoak zein partzialak– onartzea dagokio, Giza Eskubideen Zuzendaritzak eskatuta. Zuzendaritza hori Jaurlaritzaren Sailen ebaluazio partzialak, eta Foru Aldundiek eta Udalek beren autonomiatik igortzen dituztenak zentralizatzeari eta bateratzeaz arduratuko da. Halaber, Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren eta Komunikabideen Kontseiluaren bitartez EITB erakunde publikoaren eta Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren arteko lankidetzaren hitzarmen iraunkorraren esparruan urteko aldi bakoitzean planifikatutako ekintzen gauzatzeari buruz EITBk berak igortzen duen informazioa bilduko da.

Ebaluazio hori, lehenik eta behin, Jaurlaritzaren Kontseiluari igorriko zaio, eta horrek, onartu ondoren, komunikazio gisa igorriko dio Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeari. Nolanahi ere, Eusko Legebiltzarraren Giza Eskubideen eta Herritarren Eskaeren Batzordeak sortutako Biktimen Ponentziak kontrol-lana egiten jarraituko du, bidezkotzat hartzen duen aldizkakotasunarekin eta bidezkotzat hartzen duen moduan.

Sailarteko Batzordearen ebaluazioa Jaurlaritzaren Kontseiluak onartuko du eta Giza Eskubideetan Oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Kontsulta Kontseiluari igorriko zaio, ebaluazio horri buruzko kontsulta-irizpena (ez-loteslea) egin dezan. Irizpen horrek hobetzeko proposamenak bilduko ditu.

Ebaluazioa, hala badagokio, giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan adituak diren eta kanpoko ebaluazioa egiteko moduan dauden nazioarteko erakundeei ere igorriko zaie. Horretarako, nazioarteko erakunde horiek ebaluazioan parte hartzeko aukera erraztu beharko dute erakunde erantzuleek.

Planaren ebaluazio osoa bi urtekoa izango da (Plana indarrean jartzen den urtetik hasita), eta honako alderdi hauek hartuko ditu kontuan atal bereizietan:

- Ekintzen eta programa sektorialen eta estrategikoen betetzeari lotutako alderdia.
- Egitura organikoaren funtzionamenduari lotutako alderdia (Sailarteko Batzordea eta Kontsulta Kontseilua).
- Helburuen, printzipio gidarien eta ildo estrategikoen egokitasunari lotutako alderdia (Zati Substantiboa).

Ebaluazio osoa aurkeztu behar ez den urteetan, aukerakoa izango da, Giza Eskubideen Zuzendaritzak eskatuta, ebaluazio partzialaren aurrelaburpen bat aurkeztea. Aurrelaburpen hori bi urtez behingo ebaluazioa prestatzeko elementu gisa baino ez zaio igorriko Giza Eskubideetan Oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Kontsulta Kontseiluari.

Edonola ere, Plana indarrean sartzen den urtearen amaiera aldean, betiere legegintzaldia amaitu aurretik, Planaren Zati Operatiboaren lehen azterketa baino jasoko ez duen lehen ebaluazio osoa egin beharko da, Eusko Jaurlaritzaren, aldundien eta udal-mailaren ekintzak berraztertzeko eta geratzen den hirurtekorako (2009-2011) plangintzaren aurreikuspena baztertu edo zabaltzeko.

4.3.2. EBALUAZIOA: JARRAIPENA ETA ADIERAZLEAK

Planaren azken helburua eta berariazko helburuak zehaztu ondoren, lortu nahi diren emaitzak edo ondorioak zehaztu behar dira, baita erreferentziazko adierazleak ere, emaitza horiek zenbateraino lortzen diren balioesteko.

Helburuen osagarri, adierazle sorta bat erantsi dugu, ebaluazioaren hasierako esparru gisa.

Aldez aurretik esan dugun bezala, zenbait neurri eta ekintza zehaztu behar dira, eta horiek garatzerakoan metatutako lorpenak egiaztatu behar dira, baina Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren eraginaren balioespena ezin da horretara mugatu.

Horrela, beraz, Planean bildutako ekintzekin zerikusia duten adierazleak eta helburuekin zerikusia duten adierazleak bereiztea proposatzen da;

- lehenak, banan-banan landutako neurrien gauzatzetik abiatuta aurreikusi diren, espero diren eta lortu nahi diren ondorioen jarraipena eta balioespena egiteko.
- bigarrenak, berriz, talde hartzaileetan izandako eragin globalaren jarraipena eta balioespena errazteko.

Azkenik, Planak **jarraipen- eta ebaluazio-sistema** egokia eduki beharko du, arrazionaltasunaren eta eraginkortasunaren printzipioei jarraituz, eta honako hauetan oinarrituz: Planak informazioa sistematikoki biltzeko dituen egiturak, emaitzen azken ebaluazioa, hobekuntza eta egokitzeak, eta etorkizuneko plangintza-prozesuak diagnostikatzeko ahalmena.

Jarraipen-sistema programen aplikazioari buruzko informazioaren bilketa jarraituan eta sistematizatuan datza, eta desbideratzeak aurkitzea eta kudeaketa hobetzea du xede.

Planaren jarraipena eta ebaluazioa honako hiru maila hauetan egingo dira aldi berean: ekintza bakoitzaren emaitzak, programa estrategikoek eragindako berriazko ondorioak, eta esku-hartze guztien ondorio orokorrak.

Maila horietako bakoitzean, garatutako programek eta ekintzek berriazko helburuak eta ezaugarri bereziak dituzte, eta ebaluazioetarako beharrezkoak diren datu guztiak emango dituen informazio-sistema propioa behar dute.

Informazioaren bilketak eta ekintzen ebaluazioak urteko aldizkakotasuna izango dute. Programa estrategikoen ebaluazioak eta Planaren balioespen orokorrak (ildo eta helburu estrategikoen betetze-mailaren azterketaren bitartez) bi urteko aldizkakotasuna izango du.

Horrez gain, diagnostikoa 2007. urterako eguneratu ondoren, 2010. urtean Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzak EAEn duen **egoeraren diagnostikoa** eguneratuko da, 2011. urtearen hasieran prest egoteko eta, horrela, Planaren hurrengo plangintza- eta programazio-zikloa (2012-2015) urte horretan hasi eta amaitu ahal izateko.

Ondorengo taulan, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren jarraipenaren eta ebaluazioaren maila bakoitzari dagozkion erantzuleak, beharrezkoa den informazioaren iturriak eta informazio hori biltzeko mekanismoak agertzen dira.

	Jarraipenaren eta ebaluazioaren mailak		
	Ekintzak	Programa estrategikoak	Plana: ildo eta helburu estrategikoak
Jarraipenaren eta ebaluazioaren erantzuleak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakunde bakoitza ▪ Teknikariak 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kontsulta Kontseilua ▪ Sailarteko Batzordea ▪ Planaren idazkaritza teknikoa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Kontsulta Kontseilua ▪ Sailarteko Batzordea ▪ Planaren idazkaritza teknikoa
Informazio-iturriak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakunde bakoitzaren erregistroak 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Fitxak ▪ Galdesortak ▪ Dokumentuak ▪ Bigarren mailako iturriak ▪ Informazio gehigarria 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Jarraipen-txostenak ▪ Bigarren mailako iturriak ▪ Informazio gehigarria
Datuen tratamenduen erantzuleak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakunde bakoitza 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Planaren idazkaritza teknikoa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Planaren idazkaritza teknikoa
Txostenak lantzearen erantzuleak	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Erakunde bakoitza 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Planaren idazkaritza teknikoa 	<ul style="list-style-type: none"> ▪ Planaren idazkaritza teknikoa

EBALUAZIOAREN INDIZEAK ETA ADIERAZLEAK (PROGRAMA ESTRATEGIKOAK)

Indize kuantitatiboak: pertsona kopuruan, orduetan, baliabideetan, produzitutako materialetan, egindako ekintzetan eta gauzatutako aurrekontuan oinarritutako adierazleen multzoa.

Indize kualitatiboak: kalitatean, eta pertsona eta/edo talde onuradunen gogobetetzean oinarritutako adierazleen multzoa.

Indize orokorrak: ekintzen egiturarekin zerikusia duten adierazleen multzoa (ekintza iraunkorrak, administrazio publikoen mendekoak, ofizialki bideratuak eta abar).

PROGRAMA ESTRATEGIKOA	INDIZE KUANTITATIBOAK	INDIZE KUALITATIBOAK	INDIZE OROKORRAK
A. Prestakuntza eta trebakuntza.	Prestakuntza-ekintzak Treatutako pertsonak Ordu kopurua Aurrekontua	Kalitatea Gogobetetzea Premietara egokitzea Eragina	Prestakuntza ofizialak Emandako ziurtagiriak
B. Aholkularitza eta kontsultoretza.	Aholkulari taldeak Aholkularitzak Kontsultoretza- prozesuak Ordu kopurua Aurrekontua	Kalitatea Gogobetetzea Premietara egokitzea Eragina	Talde profesional ofizialak Aholkularitzak
C. Materialen eta argitalpenen produkzioa.	Gidak eta materialak Unitate didaktikoak Argitalpenak Ordu kopurua Aurrekontua	Kalitatea Gogobetetzea Premietara egokitzea Eragina	Material ofizialak Emandako ziurtagiriak <<
D. Esku hartzeko programak.	Programak Onuradunak Profesionalak Teknikariak Erakundeak Ordu kopurua Aurrekontua	Kalitatea Gogobetetzea Premietara egokitzea Eragina	Programa ofizialak Programa ziurtatuak Egiaztatutako profesionalak
E. Dokumentazioa eta Informazioa.	Dokumentazio-zentroak Informazio-puntuak Egindako kontsultak Onuradunak Profesionalak Teknikariak Erakundeak Ordu kopurua Aurrekontua	Kalitatea Gogobetetzea Premietara egokitzea Eragina	Zentro ofizialak Dokumentazio ziurtatua Egiaztatutako profesionalak
F. Zabalkundea eta Sentsibilizazioa.	Kanpainak Onuradunak Kartelak Iragarkiak Kanpaina-gidak	Kalitatea Gogobetetzea Premietara egokitzea Eragina	Kanpaina ofizialak Komunikabide ofizialak



	<p>Agerpenak komunikabideetan Guneak (ekitaldiak, zineak eta abar) Erakunde parte-hartzaileak</p> <p>Ordu kopurua Aurrekontua</p>		
<p>G. Ikerketa eta gogoeta.</p>	<p>Egindako ikerketak Egindako mintegiak, kongresuak eta jardunaldiak. Bertaratuak. Kontaktatutako komunikabideak. Egindako bidalketak. Egindako foroak Lanerako eta eztabaidarako taldeak Egindako txostenak</p> <p>Ordu kopurua Aurrekontua</p>	<p>Kalitatea Gogobetetzea Premietara egokitzea Eragina</p>	<p>Ikerketa ofizialak Jardunaldi ofizialak Egiaztatutako profesionalak</p>
<p>H. Mobilizazioa.</p>	<p>Mobilizazioak Pertsonak Taldeak Baliabideak</p> <p>Ordu kopurua Aurrekontua</p>	<p>Kalitatea Gogobetetzea Premietara egokitzea Eragina</p>	

4.3.3. AURREKONTUA

Planaren eragin ekonomikoa adierazitako ildo estrategikoen oinarriaren gainean kalkulatu da, eta, bereziki, Eusko Jaurlaritzaren Zuzendaritzak eta Foru Aldundiak eraginpean hartzen dituzten programa sektorialen oinarriaren gainean. Alabaina, azpimarratzekoa da Giza Eskubideen Zuzendaritzak bere aurrekontu-aurreikuspenetan bilduko dituela Planaren egiturazko eta zeharkako esku-hartze ildo guztiak, edo, dagokien gaikako eremuaren arabera, inplikaturako Zuzendaritzen eskumenen eremutik kanpo daudenak. Gainera, Giza Eskubideen Zuzendaritzak honako funtzio osagarri hau betetzen du: ezinbestekoak diren eta beste administrazio-unitateek edo beste administrazioek beren gain hartu ezin ditzaketen ekintza-ildoak betetzea, Plan osoaren kohesioa, koherentzia eta eraginkortasuna bermatzeko. Azken batean, zuzendaritza horren programa sektorialak egiturazko programa komun bat ere biltzen du, gainerako programen zeharkakoa, osagarria eta subsidiarioa.

Aurreko guztia aintzat hartuta, 2008ko aurrekontu-ekitaldian **Eusko Jaurlaritzak 5´6 milioi euro** inguruko aurrekontua konprometitu beharko duela aurreikusi da.

Foru Aldundiek, berriz, **850.000 euro** inguruko zenbateko globala konprometituko dute.

Horrela, beraz, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzako Euskal Planaren zenbateko globala **6´5 milioi euro** da.

PLANAREN AURREKONTU AURREIKUSPEN XEHATUA

GIZA ESKUBIDEEN ZUZENDARITZA	1.968.680,00
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARITZA	868.185,00
GAZTERIA ETA GIZARTE EKINTZA ZUZENDARITZA	664.808,00
INMIGRAZIO ZUZENDARITZA	1.604.478,00
TERRORISMOAREN BIKTIMEI LAGUNTZEKO ZUZENDARITZA	150.000,00
LEHENDAKARITZA	360.000,00
EUSKO JAURLARITZA, GUZTIRA	5.616.151
ARABAKO FORU ALDUNDIA	75.000,00
BIZKAIKO FORU ALDUNDIA	289.000,00
GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA	493.500,00
ALDUNDIAK, GUZTIRA	857.500
EUSKAL PLANA, GUZTIRA	6.473.651€

I. ERANSKINA – EKINTZEN ZERRENDA, ILDO ESTRATEGIKOEN ARABERA

1. ILDO ESTRATEGIKOA: Gizarte-sentsibilizazioa

EKINTZA	ERAGILEA
Hezkuntza-komunitate osoa bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan sentsibilizatzea.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza)
Eskola-esparruan (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan), irakasleengan, familietan eta irakasleak ez diren langileengan Giza Eskubideak eta Bakearen aldeko Kulturaren balioak sustatzeko urteko kanpaina.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza)
Gazteen eremuetan eta guneeetan Giza Eskubideak eta Bakearen aldeko Kulturaren balioak sustatzeko urteko kanpaina.	Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)
Estatuko eta Europako gazteekiko sentsibilizazioko eta kultura-trukeko programa.	Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzako Baliabide, Aholkularitza, Laguntza Tekniko eta Informazioko Zentro bat sortzea.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza) EUDEL
Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzako oinarritzko testuak itzultzea eta zabaltzea.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)
Giza Eskubideak eta Bakearen Kulturaren balioak sustatzeko urteko kanpaina.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)
Giza eskubideen eta bakearen arloko hezkuntzako esku-hartzeak egiteko programa garatzea Udalen kultur egitarauen bidez, Eusko Jaurlaritzako Giza	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)

Eskubideen Zuzendaritzarekin lankidetzan.	EUDEL
Indarkeriari eta bideojokoei buruzko sentsibilizazio-programa.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)
Giza Eskubideen nazioarteko mintegiak antolatzea.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)
Erakusketa ibiltari batean oinarritutako prestakuntza ikastetxeetan.	Bizkaiko Foru Aldundia
Giza Eskubideen arloko sentsibilizazio-proiektuak.	Bizkaiko Foru Aldundia
Giza Eskubideen aldeko herrien eta hirien sarea.	Bizkaiko Foru Aldundia
Gizarte multikulturalen erronkei buruzko azterketa eta gogoeta egiteko Giza Eskubideen Foroa.	Bizkaiko Foru Aldundia
Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen argitalpena babestea.	Bizkaiko Foru Aldundia
Giza art. Giza aniztasunari buruzko antzerki-lanak.	Bizkaiko Foru Aldundia

Giza eskubideei buruzko erakusketa ibiltaria.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Giza eskubideei buruzko antzerki-foruma.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Giza Eskubideei lotutako zinema-jarduerak.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Giza eskubideei buruzko lurralde-esparruko web-orria.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Giza eskubideen sustapenaren eta babesaren eremuan diharduten pertsonen eta/edo erakundeen esker ona adierazteko urteko ekitaldia.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen zabalkundea babestea.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Giza Eskubideak sustatzeko urteko kanpaina.	Gipuzkoako Foru Aldundia

2. ILDO ESTRATEGIKOA: Gizarte-trebakuntza

EKINTZA	ERAGILEA
<p>Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritzaren lehen tasuneko programa 2007-2010 hirurtekorako: Bizikidetzaren, Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntza.</p>	<p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritza)</p>
<p>Urteko Bizikidetzaren Planak lantzeko gida, eta EAEko ikastetxe guztietako Bizikidetzaren Behatokiaren sorkuntza.</p>	<p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritza)</p>
<p>Irakasleen prestakuntza. Ikastetxeko prestakuntza eta askotariko eskaintza indibidualak Garatu planean.</p>	<p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritza)</p>
<p>Euskadiko errealitateari arreta berezia eskainiko dion bakearen aldeko hezkuntzarako berriazko programa bat garatzea. 2006-2007 ikasturtean gauzatu diren proiektu pilotuetan (Bakea eraikitzen duen gizartea) eta 2007-2008 ikasturtean gauzatuko direnetan (<i>Bakea eraikitzen duen gizartea</i> unitatea, <i>Arrastoa uzten duten istorioak</i> unitatearekin osatua) oinarrituko da.</p>	<p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritza)</p> <p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p> <p>Herrizaingo Saila (Terrorismoaren biktimei Laguntzeko Zuzendaritza)</p>
<p>Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara bitartean bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan esku hartzeko unitate didaktikoak eta plan orokorrak lantzea.</p>	<p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritza)</p> <p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Formula propioetan prestatzeko eta bizikidetzari, bakeari eta giza eskubideei lotutako berrikuntza-proiektuetarako laguntza-ildoak.</p>	<p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritza)</p>

<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren eremuak landuko dituzten programa integralak garatzea.</p>	<p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza)</p>
<p><i>La Peña. Auzo hezitzailea</i> proiektu pilotua (Zamakola proiektua) garatzea, bakearen aldeko hezkuntzaren arloko eskola-antolamendu berrizailerako udal-eremuko programa integral gisa. Zamakola 2008-2010 proiektua orokortzea.</p>	<p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza)</p> <p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Parte-hartzeari buruzko programa garatzea Eusko Legebiltzarrean ("Eztabaidatu gurekin").</p>	<p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza)</p>
<p>Ikastetxe guztietan AJA berrikustea, bake positiboaren kulturaren printzipioetara egokitzeko.</p>	<p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza)</p>
<p>"Gazteak eta gatazkak ebaztea" gaiari buruzko prestakuntza-ikastaroak.</p>	<p>Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)</p>
Diru-laguntza ildoak, gazteengan parte-hartzea eta balioetan eta bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntzaren arloko programen garapena erraztuko duten balioak sustatzeko.	Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)
Gazteriaren Behatokiko Dokumentazio Zentroan Giza Eskubideei eta Bakearen aldeko Hezkuntzari buruzko gaikako blokeak garatzea, gazteentzako programetan.	Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuetarako laguntza-ildoak (diru-laguntza programak) gizarte-erakundeentzat.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuetarako laguntza-ildoak (diru-laguntza programak) gizarte-erakundeentzat.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)
Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko Euskadiko Elkartearen Foroarekin lankidetzara iraunkorreko hitzarmen bat lantzea.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)

<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko Baliabide, Aholkularitza, Laguntza Tekniko eta Informazioko Zentro bat sortzea.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko beka-programa.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloko laguntza-ildoak, terrorismoaren biktimen berariazko eremuan.</p>	<p>Herrizaingo Saila (Terrorismoaren biktimei Laguntzeko Zuzendaritza)</p>
<p>Prestakuntzarako bekak.</p>	<p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>
<p>Giza eskubideei buruzko lurralde-esparruko web-orria.</p>	<p>Gipuzkoako Foru Aldundia</p>

F. ZABALKUNDEA ETA SENTSIBILIZAZIOA

EKINTZA	ERAGILEA
Hezkuntza-komunitate osoa bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloan sentsibilizatzea.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza)
Formula propioetan prestatzeko eta bizikidetzari, bakeari eta giza eskubideei lotutako berrikuntza-proiektuetarako laguntza-ildoak.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza)
Parte-hartzeari buruzko programa garatzea Eusko Legebiltzarrean ("Eztabaidatu gurekin").	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza)
<p>Komunikabide publikoetatik (Euskal Irrati Telebista –EITB–) Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloan esku hartzeko programaren plangintza estrategikoa egitea. Programak, urtean, honako bost eremu hauetan garatuko ditu ekintzak:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Komunikabideetako profesionalen prestakuntza - Gizarte-sentsibilizazioa. - Haur-programazioa. - Zabalkunde eta parte-hartze soziala. - Koordinazioa eta jarraipena. 	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p> <p>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza)</p> <p>Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)</p> <p>Herrizaingo Saila (Terrorismoaren biktimei Laguntzeko Zuzendaritza)</p>
Eskola-esparruan (Haur Hezkuntzan, Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan), irakasleengan, familietan eta irakasleak ez diren langileengan Giza Eskubideak eta Bakearen aldeko Kulturaren balioak sustatzeko urteko kanpaina.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritza)

<p>Diru-laguntza ildoak, gazteengan parte-hartzea eta balioetan eta bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntzaren arloko programen garapena erraztuko duten balioak sustatzeko.</p>	<p>Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)</p>
<p>Gazteen eremuetan eta guneeetan Giza Eskubideak eta Bakearen aldeko Kulturaren balioak sustatzeko urteko kanpaina.</p>	<p>Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)</p>
<p>Estatuko eta Europako gazteekiko sentsibilizazioko eta kultura-trukeko programa.</p>	<p>Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)</p>
<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko praktika onen jardunaldia.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko praktika onen jardunaldia elkarreentzat.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko praktika onen udal-eremuko jardunaldia.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza) EUDEL</p>
<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuetarako laguntza-ildoak (diru-laguntza programak) gizarte-erakundeentzat.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuetarako laguntza-ildoak (diru-laguntza programak) gizarte-erakundeentzat.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>

<p>Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko Euskadiko Elkarteen Foroarekin lankidetzara iraunkorreko hitzarmen bat lantzea.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko Baliabide, Aholkularitza, Laguntza Tekniko eta Informazioko Zentro bat sortzea.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Bakearen eta giza eskubideen arloko hezkuntzaren Euskadiko errealitateari buruzko web-orri tematiko bat (informazio-tresna zentralizatua izango dena) sortzea.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko oinarriko testuak itzultzea eta zabaltzea.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Giza Eskubideak eta Bakearen Kulturaren balioak sustatzeko urteko kanpaina.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Indarkeriari eta bideojokoei buruzko sentsibilizazio-programa.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Giza Eskubideen nazioarteko mintegiak antolatzea.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko beka-programa.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Bakea eraikitzean gizarte parte-hartzea sustatzeko ekimena.</p>	<p>Lehendakaritza</p>

Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloko laguntza-ildoak, terrorismoaren biktimen berariazko eremuan.	Herrizaingo Saila (Terrorismoaren biktimei Laguntzeko Zuzendaritza)
Erakusketa ibiltari batean oinarritutako prestakuntza ikastetxeetan.	Bizkaiko Foru Aldundia
Giza Eskubideen arloko sentsibilizazio-proiektuak.	Bizkaiko Foru Aldundia
Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen argitalpena babestea.	Bizkaiko Foru Aldundia
Giza art. Giza aniztasunari buruzko antzerki-lanak.	Bizkaiko Foru Aldundia
Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen argitalpena babestea.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Giza eskubideei buruzko erakusketa ibiltaria.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Giza eskubideei buruzko antzerki-foruma.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Giza Eskubideei lotutako zinema-jarduerak.	Gipuzkoako Foru Aldundia

Giza eskubideei buruzko lurralde-esparruko web-orria.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Giza eskubideen sustapenaren eta babesaren eremuan diharduten pertsonen eta/edo erakundeen esker ona adierazteko urteko ekitaldia.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Giza eskubideen arloko sentsibilizazio-proiektuetarako laguntza ekonomikoa.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen zabalkundea babestea.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Giza Eskubideak sustatzeko urteko kanpaina.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntza sustatzeko lanean udalek dituzten praktika onak zabaltzea.	EUDEL

G. G. IKERKETA ETA GOGOETA

EKINTZA	ERAGILEA
Formula propioetan prestatzeko eta bizikidetzari, bakeari eta giza eskubideei lotutako berrikuntza-proiektuetarako laguntza-ildoak.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritza)
Diru-laguntza ildoak, gazteengan parte-hartzea eta balioetan eta bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntzaren arloko programen garapena erraztuko duten balioak sustatzeko.	Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)
Estatuko eta Europako gazteekiko sensibilizazioko eta kultura-trukeko programa.	Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)
Gazteriaren Euskal Behatokiko Adituen Foroa, "Euskal gazteen indarkeria" txostena eztabaidatzeko.	Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)
Gazteekin giza eskubideen eta bakearen kulturaren arloan diharduten pertsonen zuzendutako Nazioarteko Mintegia.	Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)
Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntza sustatzeko politikei buruzko Gazte Ontzi (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua).	Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)
Euskadiko errealitate soziopolitikoari buruz eztabaidatzeko, aztertzeko eta proposatzeko foroetan eta taldeetan aldizka parte hartzeko programa.	Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)

<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko praktika onen udal-eremuko jardunaldia.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p> <p>EUDEL</p>
<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuetarako laguntza-ildoak (diru-laguntza programak) gizarte-erakundeentzat.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuetarako laguntza-ildoak (diru-laguntza programak) gizarte-erakundeentzat.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko Euskadiko Elkartearen Foroarekin lankidetzara iraukorreko hitzarmen bat lantzea.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko Baliabide, Aholkularitza, Laguntza Tekniko eta Informazioko Zentro bat sortzea.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Unibertsitate-esparruan esku hartzeko eta giza eskubideen eta bakearen arloan ikerketa/gogoeta aplikatua bultzatzeko programa sektoriala.</p>	<p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>
<p>Biktimen arloko graduondoko ikasketak sustatzea (Terrorismoaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin koordinatuta).</p>	<p>Herrizaingo Saila (Terrorismoaren biktimei Laguntzeko Zuzendaritza)</p> <p>Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)</p>

Giza Eskubideen nazioarteko mintegiak antolatzea.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)
Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloko beka-programa.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)
Bakea eraikitzean gizarte parte-hartzea sustatzeko ekimena.	Lehendakaritza
Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloko laguntza-ildoak, terrorismoaren biktimen berriazko eremuan.	Herrizaingo Saila (Terrorismoaren biktimei Laguntzeko Zuzendaritza)
Giza Eskubideen aldeko herrien eta hirien sarea.	Bizkaiko Foru Aldundia
Gizarte multikulturalen erronkei buruzko azterketa eta gogoeta egiteko Giza Eskubideen Foroa.	Bizkaiko Foru Aldundia
Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen argitalpena babestea.	Bizkaiko Foru Aldundia
Prestakuntzarako beka.	Gipuzkoako Foru Aldundia
Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen argitalpena babestea.	Gipuzkoako Foru Aldundia

Pertsona indibidualek edo erakundeek giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren arloan egindako ikerketen edo lanen zabalkundea babestea.

Gipuzkoako Foru Aldundia

H. MOBILIZAZIOA

EKINTZA	ERAGILEA
Formula propioetan prestatzeko eta bizikidetzari, bakeari eta giza eskubideei lotutako berrikuntza-proiektuetarako laguntza-ildoak.	Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila (Hezkuntza Berrizatzeko Zuzendaritza)
Diru-laguntza ildoak, gazteengan parte-hartzea eta balioetan eta bakearen kulturaren oinarritutako hezkuntzaren arloko programen garapena erraztuko duten balioak sustatzeko.	Kultura Saila (Gazteria eta Gizarte Ekintza Zuzendaritza)
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuetarako laguntza-ildoak (diru-laguntza programak) gizarte-erakundeentzat.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)
Bakearen eta giza eskubideen aldeko hezkuntzaren arloko proiektuetarako laguntza-ildoak (diru-laguntza programak) gizarte-erakundeentzat.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)
Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren arloko Euskadiko Elkartearen Foroarekin lankidetzara iraukorreko hitzarmen bat lantzea.	Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Saila (Giza Eskubideen Zuzendaritza)
Bakea eraikitzean gizarte parte-hartzea sustatzeko ekimena.	Lehendakaritza
Bakearen eta Giza Eskubideen aldeko Hezkuntzaren arloko laguntza-ildoak, terrorismoaren biktimei berriazko eremuan.	Herrizaingo Saila (Terrorismoaren biktimei Laguntzeko Zuzendaritza)

III. ERANSKINA – EITB-REKIKO HITZARMENA ETA PLANGINTZA ESTRATEGIKOA

LANKIDETZA IRAUNKORREKO HITZARMENA EUSKAL IRRATI TELEBISTA ERAKUNDE
PUBLIKOAREN ETA JUSTIZIA, LAN ETA GIZARTE SEGURANTZA SAILAREN ARTEAN.

Gasteiz, 2007ko maiatzaren 2a.

HONAKOAK BATZARTU GARA:

Alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saileko (aurrerantzean Saila edo JUSTIZIA) sailburu Joseba Azkarraga Rodero jauna, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila ordezkatuz.

Eta bestetik, Euskal Irrati Telebista Erakunde Publikoaren (aurrerantzean EITB) zuzendari nagusi Andoni Ortuzar Arruabarrena jauna, Erakunde horren izenean eta hura ordezkatuz.

HONAKO HAU ADIERAZTEN DUGU:

1. Justizia, askatasuna, berdintasuna eta elkartasunaren oinarrien gainean eraiki nahi den edozein gizarte- eta politika-antolamendu eredurentzat giza eskubideak ezinbesteko erreferentea dira. Pertsona guztien giza duintasunaren balio gorena da abiapuntua, gizabanako bakoitzak gizartean dituen eskubide eta betebeharrak iruteko abiapuntua, hain zuzen ere. Horri dagokionez, ezin da zalantzan jarri pertsonaren gailentasuna, eta gizarte- eta erakunde-arkitektura, azken batean, pertsonaren garapenera eta sustapenera bideratu behar da.

Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsala (1948) garrantzi handiko erreferentzia historikoa izan zen. Izan ere, lehen aldia izan zen instantzia unibertsal batek denei errespetatu behar zaizkien eskubideak aldarrikatu zituena, hartarako arrazoi bakarra gizakiak izatea izanik. Deklarazio horren ondoren, deklarazio zehatzagoak egin ziren Nazioarteko 1966ko Itunetan. Izan ere, Itun horiek eskubide zibil eta politikoez gain, ekonomikoak, kulturalak eta sozialak ere bildu zituzten. Aldi berean, hainbat Hitzarmen espezifiko onartu da (genozidioari, arraza-diskriminazioari eta emakumeen aurkako diskriminazioari, torturari, haurren eskubideei eta abarri buruzkoak). Horri esker, batetik, giza eskubideen babesaren eremu substantiboa zabaldu da, eta, bestetik, eskubide horiek betetzea bermatzeko eta betetzera behartzeko mekanismoak hobetu eta zehaztu dira.

2. Baina eskubideen deklarazioari eta eskubide horiek ezartzeko borrokari dagokionez, orain dela gutxi arte ez gara jabetu beharrezkoa dela giza eskubideei buruzko lan *sistematiko, koordinatu eta iraunkorra egitea*. Gerra hotzaren garaiko blokeen arteko aurkaritza ideologikoa gainditzeak ekarri zuen, segur aski, aurreko mendearen 90eko hamarkadan, giza eskubideen kultura batera bultzatzeko jokaleku egokia, betiere giza eskubideak eskakizun zatiezintzat, elkarren mendekotzat eta unibertsaltzat hartuta.

Nazio Batuek bultzatutako eta Vienan 1993an egindako Giza Eskubideei buruzko Munduko Konferentzia hartu behar da inflexio-puntutzat. Konferentzia horren azken deklarazioan eta ekintza-programan zehatz-mehatz bildu zen giza eskubideei buruzko hezkuntza, gaikuntza eta informazio publikoa ezinbestekoak direla komunitateen artean harreman egonkor eta harmoniatsuenak ezarri eta sustatzeko, baita elkar ulertzea, tolerantzia eta bakea bultzatzeko ere. Horretaz gain, Konferentziak esanbidez eskatu zien Estatu eta erakundeei irakaskuntza akademikoa eta ez-akademikoa ematen duten erakunde guztien ikasketaprogrametan honako hauek biltzeko: giza eskubideak, zuzenbide humanitarioa, demokrazia eta legearen inperioa.

Vienako Konferentziaren ondorioz, NBEren Batzar Nagusiak, 1994ko abenduaren 23ko 49/184 Ebazpenean, *Giza Eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkada* izendatu zuen 1995-2004 aldia. Hamarkadan honako helburu hau lortu nahi zen: jardun koordinatu eta homogeenetan oinarritutako munduko sare-egitura diseinatzea, hizkuntza, tresna eta xede berekin jarduteko. Gainera, egitura hori plangintza estrategiko baten bitartez garatu beharra zegoen, eta plangintza horren emaitzak ebaluatu behar ziren, giza eskubideen kultura hedatzearen aldeko ahaleginak berriz ere bideratzeko eta hobetzeko. Mundu osoko eta etxeko premien diagnostiko eta ebaluazio bat ezartzeko premia hartzen zen abiapuntutzat, ondoren giza eskubideak gaitzeko, sustatzeko eta zabaltzeko programa jakinak diseinatzeko.

Giza eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkadarekin hasitako lan eskergea horrek ez zuen denbora-mugarik ezarri nahi. Horregatik, Hamarkada amaitzean eta programaren emaitzak ebaluatu ondoren, une honetan indarrean dagoen jardun-programa jarri zen abian. 2004ko abenduaren 10eko 59/113 Ebazpenean, NBEren Batzar Nagusiak giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzarako Mundu Programa aldarrikatu zuen. Programa 2005eko urtarrilaren 1ean gauzatzen hasi zen, eta ondoz ondoko zenbait etapatan egituratu da, giza eskubideen esferako hezkuntza-programak sektore guztietan gauza daitezen sustatzeko. Zehazkiago, eta Mundu Programaren lehen etapari begira (2005-2007 aldia), Batzar Nagusiak lehen eta bigarren hezkuntzako sistemetarako giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzarako Ekintza Plana onartu du, 2005eko uztailaren 14ko 59/113B Ebazpenaren bitartez.

3. Giza Eskubideetan oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Sailarteko Batzordea (2006ko urriaren 10eko Jaurlaritzaren Kontseiluaren Erabakia) sortu izana eta Giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntzaren alorreko Euskal Ekintza Plana onartzeko bideratutako lanak dira Eusko Jaurlaritzak alor horretan nazioarteko esferatik bultzatutako ekimenekin hartutako konpromisoaren erakusgarri. Horren bitartez, uztartu egiten da euskal erakundeek gaur egun arte egindako lana eta NBERen eta UNESCOren Giza Eskubideen aldeko Goi Komisarioaren Bulegoak bultzatzen dituen moduak eta ereduak. Azken batean, giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntzaren alorreko jardun guztien plangintza orokor eta iraunkor bat ezartzeko premiari erantzuten dio, betiere nazioarteko bitarteko esanguratsuenek emandakoenen ildotik.

Giza Eskubideetan eta Bakean oinarritutako Hezkuntzaren arloko Euskal Ekintza Planak ezartzen du lehen tresna eta erreferentzia-esparrua, eta koordinazio-organoak definitzen ditu, eta lehentasunak, jardun-kronograma, ebaluazio-irizpideak eta jardun estrategikorako sektoreak adierazten ditu. Eta azken horien artean, nabarmendu egiten da komunikabideei buruzkoa, ezinbesteko hezkuntza-eragileak baitira giza eskubideen eta bakearen arloan.

XXI. mendeko herrixka globalak sozietate *mediatiko* gisa dituen ezaugarriek baldintzatzen dute komunikabideak berak giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntzaren lehen lerroko eragile bihurtzea. Paisaia sozialean sendotzeko duten gaitasunaren eta sektore guztietan, batez ere gazteen artean, duten eragin gero eta handiagoaren ondorioz, funtsezko pieza bihurtzen dira komunikabideak, bertatik jardun sistematikoak eta koordinatuak planifikatu eta bultzatzeko giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntzaren sustapena bultzatzeko.

Gauzak horrela, lankidetzaren iraunkorren hitzarmen honek Euskal Ekintza Plana gauzatzen du komunikabideen alorrean, giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntzaren alorreko esferan. Zehazkiago esanda, komunikabideen Ekintza Plan Sektoriala dei diezaioketunaren lehen pieza dugu, giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntzaren alorreko esferan. Euskadin emititzen duten komunikabide guztiei zabaldua dago plan sektoriala, baina oraindik titulartasun publikoa duten komunikabideekin (EITB) soilik gauzatzen da Hitzarmen Iraunkor honetan, urrats aurreratu eta eredu garri gisa, izan ere, eredu izan behar baitu geroari begira beste komunikabide batzuekin izan beharreko lankidetzarako, betiere arlo garrantzitsu horretan beren borondatea zehaztu nahi badute.

4. Gobernu-politiken eta EITBren beraren artean lankidetzaren iraunkorren esparru bat ezartzeko premia berezi eta hertsagarriari ere erantzuten dio lankidetzaren hitzarmen honek, bereziki terrorismoaren biktimei presentziaren eta tratamenduaren gaiarekin zerikusia duten ekimen guztiak bideratu eta egituratzeko, Euskadin erantzun beharreko funtsezko piezetako bat baita hori bakean eta giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzaren esparruan.

2005eko otsailaren 17ko eta 18ko Legebiltzarreko Erabakien arabera, Terrorismoaren Biktimei buruzko Ponentzia Iraunkorren irizpenean oinarritutakoak, honako hau eskatzen da:

“EITBko Zuzendaritzari euskal gizartean zabal ditzala giza eskubideen errespetuko, tolerantziako, bakeko eta terrorismoaren aurkako balio etiko eta demokratikoak, bere ildo editorialean sakonduz, batez ere informazioaren eta eztabaidaren esparruetan.

Eskakizun hori zehazte aldera, beharrezkoa da EITBren estilo-liburu bat lantzea, nahasteak saihesteko eta etorkizunean gure irrati-telebista publikoak pedagogia aktiboa gauza dezan terrorismoaren aurka eta askatasunen defentsan, eta biktimei errekonozimenduaren alde.” (3.r. puntua)

“Era berean, EITBko zuzendaritzari, saio bereziak sor ditzala, erreportajeen, eztabaiden, sorkuntza artistikoaren edo beste edozein espresio-elementuren bidez terrorismoaren biktimen egoera eta fenomenoak sakon eta ahal den angelu guztietatik azter dezan, Euskal Herrian duen garrantzi publikoa kontuan izanda, eta, horrenbestez, gai horri buruzko gogoeta publikoa egitea.” (3.s. puntua)

5. Horrenbestez, hitzarmen honen helburua zera da, giza eskubideetan eta bakean oinarritutako hezkuntzaren arloan komunikabideei dagokien erantzukizun sozialeko kuota denboran zehar modurik al bait eraginkor eta iraunkorrenean betetzea ahalbidetuko duen egitura sortzea eta irizpide operatiboak finkatzea. Giza eskubideen arloan giza eskubideak edozein bidegabekeria larriren oinarrian daudelako, eta, hortaz, alor horretako hezkuntza oinarrizkoa da beste edozein hezkuntza espezifikoa bereziki garatzeko eta errotzeko (herritarrentzako hezkuntza balio demokratikoetan, garapenerako, arrazakeriaren aurka, bakearen alde...). Baina baita ere bereziki bakerako hezkuntzaren arloan, euskal gizartean indarkeriak denbora gehiegi iraun baitu gatazkak konpontzeko ustezko bidea zelakoan, eta horrek hurbilketa berezia behar du, errealitateaz jabetuko den hurbilketa, beharrezkoa gertatzen den toki guztietan ere ahaleginak indartzeko.

Azken ikuspegi horretatik begiratuta, lankidetzaren iraunkorreko hitzarmenak 2006ko maiatzaren 2ko Jaurkitzaren Kontseiluak onartutako Bake eta Bizikidetzaren Plana ere betetzen du; Plan horrek, bakearen aldeko hezkuntzaren arloan hartu beharreko neurrien artean, komunikabideekin lankidetzaren eta koordinazio-maila gehitzeko premia biltzen zuen, bakerako ezinbesteko eragileak baitira.

Horren bitartez, etapa berri bati hasiera eman nahi zaio bakearen aldeko hezkuntzaren arloko gobernu-politiketan komunikabideen esparruan, betiere oinarritzko bi gakoren gainean: politika horien plangintzako eta ebaluazioko organo iraunkorrak sortzea (ikus hitzarmenaren 3. klausula) eta, bigarrenik, tresna zehatzak edo jardun-ildo estrategikoak identifikatzea, adierazitako politikak diseinatzea eta edukiz hornitzea ahalbidetuko dutenak (ikus hitzarmenaren 2. klausula).

Horrenbestez, bi alderdiek Lankidetzaren Iraunkorreko Hitzarmen hau formalizatzea adostu dute, betiere honako klausula hauen baldintzapean:

KLAUSULAK

LEHENA.- HELBURUA, XEDEA ETA PRINTZPIOAK

1. Hitzarmen honen helburua Eusko Jaurlaritzaren eta EITB erakundearen arteko lankidetzaren esparru iraunkorra ezartzea da, komunikabideen bidez giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntza-politika bat modu sistematikoan, iraunkorrean eta koordinatuan indartzeko eta garatzeko.

Horretarako, Hitzarmenak definitu eta zehaztu egiten ditu giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloan urteko plangintza bat garatzea ahalbidetuko duten tresnak eta lankidetzaren organo mistoa.

2. *Giza Eskubideen esferako hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkadan (1995-2004) eta Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntzarako Mundu Programan (2005-2007) proposatutako definizioei jarraituz, Giza Eskubideen eta Bakearen aldeko hezkuntza honela definitzen da:*

"Trebatzeko, hedatzeko eta informatzeko jarduera multzoa, giza eskubideen esferan kultura unibertsala sortzera bideratua. Jarduera horiek jakintza transmitituz eta jarrerak moldatuz egiten dira, eta honako helburu hauek dituzte:

- a) Giza eskubideen eta funtsezko askatasunen errespetua indartzea;*
- b) Giza nortasuna eta gizakiaren duintasunaren zentzua erabat garatzea;*
- c) Sexuen arteko elkar ulertzea, tolerantzia eta berdintasuna, eta herrialde, herri indigena eta talde guztien arteko adiskidetasuna bultzatzea, edozein arraza, nazio, etnia, erlijio eta hizkuntza edukita ere;*
- d) Pertsona guztiek gizarte aske batean parte hartzeko aukera izan dezaten erraztea;*
- e) Nazio Batuek bakeari eusteko abian jarritako jarduerak areagotzea."*

3. Giza eskubideen eta bakearen aldeko hezkuntzaren arloan lankidetzara iraunkorreko esparru bat bultzatze aldera, haren mendeko tresnak eta organoak egituratu eta modu progresiboan edukiz hornitu beharko dira, betiere honako printzipio hauei jarraituz:

- a) Giza eskubideen esferako eta eskubide horien aldeko hezkuntza funtsezko giza eskubidea da.
- b) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak giza eskubide guztien errespetua eta babesa sustatu behar du, gizarteko kide guztientzako hezkuntza-jardueren bitartez.
- c) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak giza eskubideen elkarren mendetasuna, zatiezintasuna eta unibertsaltasuna sustatu behar du, eskubide zibil, kultural, ekonomiko, politiko eta sozialak barne, baita garatzeko eskubidea ere.
- d) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak emakumeen eskubideak eta genero-ikuspegia hartu behar ditu kontuan, eskubide horien osagai baita.

- e) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak bere garrantzia onartu eta azpimarratu behar du, hain zuzen ere demokrazia, garapen iraunkorra, legearen inperioa eta bakea sustatzeko, eta ingurumena babesteko duen garrantzia.
- f) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak onartu eta azpimarratu behar du eginkizun berezia bete behar duela eskubide horien urratzei aurrea hartzeko estrategia gisa.
- g) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak arazo larri, egiturazko eta/edo sortu berriei buruzko azterketa sustatu behar du, eskubide horiekin bateragarri izango diren konponbideak aurkitzeko.
- h) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak eskubide horiek babesteko tresna eta mekanismoei buruzko jakintza sustatu behar du, baita horiek guztiak munduan, eskualdean, nazioan eta tokian aplikatzeko beharrezko ahalmena ere.
- i) Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntzak beharrezko baliabide guztiak jarriko ditu komunitate eta pertsona guztien eskura, funtsezko eskubideen alorrean dituzten beharrak zehazteko eta behar horiek bete daitezen zaintzeko.
- j) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntzak metodo didaktikoak landu daitezen sustatuko du. Jakintza, azterketa kritikoak eta giza eskubideak sustatzeko jarreraren garapena bildu beharko dituzte metodo horiek guztiek.
- k) Giza Eskubideetan oinarritutako hezkuntzak aipatutako printzipio orokorretan oinarrituko den material didaktikoari buruzko ikerketak eta prestaketak bultzatuko eta sustatuko ditu.
- l) Giza eskubideetan oinarritutako hezkuntza ikasteko ingurune egokiak —beharrik eta beldurrik gabeak— sustatzen ahaleginduko da, parte-hartzea, giza eskubideak baliatzeko aukera eta giza nortasunaren erabateko garapena sustatzeko.
- m) Honako hauek bermatu behar ditu hitzarmen honen lanketak, gauzatzeak eta ebaluazioak:

- I. gizartearen ordezkaritza pluralista, gobernuz kanpoko erakundeak barne,
 - II. eragiketen gardentasuna,
 - III. kudeaketa publikoaren erantzukizuna,
 - IV. parte-hartze demokratikoa eta
 - V. iritziko, adierazpeneko eta informazioko oinarritzko eskubideak eta askatasunak bereziki eta zorrotz errespetatzea.
- n) Gobernu-agintari guztiek komunikabideen independentzia eta autonomia errespetatu beharko dute giza eskubideen eta bakearen eremuko hezkuntza-jarduera gauzatzen dutenean.
- o) Hitzarmen honen arabera aurrera eramandako hezkuntza-zereginak honako hauek sustatu beharko ditu:
- I. desberdintasunak errespetatu eta balioestea, eta edozein arrazoiengatiko (arrazo, jatorri nazionala edo etnikoa, sexua, erlijioa, adina, baldintza soziala, fisikoa edo mentala, hizkuntza, sexu-orientazioa eta abar) diskriminazioari aurre egitea;
 - II. hizkuntza eta portaera ez-diskriminatzaileak;
 - III. iritzi-aniztasuna errespetatzea eta balioestea;
 - IV. parte-hartzean oinarritutako trebatzeko eta ikasteko metodoak;
 - V. giza eskubideen inguruko arauak eguneroko portaeran islatzea;
 - VI. komunikabideetako profesionalak gaitzea;
 - VII. Giza Eskubideetan oinarritutako eta Bakearen aldeko Hezkuntzaren Sailarteko Batzordeak garatzen dituen jardunekin koordinatzea eta, batez ere, arlo horretako Euskal Ekintza Planarekin.

BIGARRENA.- LANKIDETZA TRESNAK

Hitzarmen honen xedea eta helburuak lortze aldera, aurreikusita dago garatu beharreko ekintzen urteko plangintza eta ebaluazioa egitea, eta honako jarduera-arloak hartuko ditu eraginpean:

1. **PRESTAKUNTZA.** Prestakuntzako, gaikuntzako eta sentsibilizazioko barne-ekimenak batera antolatzea. Prestakuntza-ekintza horien helburua komunikabideen informazioaren jarraipen zehatza egitea izango da, komunikabide bereko profesionalen parte-hartzearekin autoerregulazio-ildoak finkatzeko.

2. **GIZARTE SENSIBILIZAZIOA.** Komunikazio-estrategia bat batera lantzea gizartea modu progresiboan sentsibilizatzea lortzeko, giza eskubideen errespetuari, bakearen sustapenari eta, batez ere, terrorismoaren biktimen errekonozimenduari dagokienez. Hitzarmen honen ondoriozko urteko plangintzaren bidez, gizarte-sentsibilizazioko horrelako kanpainen egutegia zein kanpaina horiek zabaltzeko baldintza bereziak ezarriko dira.

3. **HAUR PROGRAMAZIOA.** Arreta berezia emango zaie haurrentzako BETIZU saioan balioetan oinarritutako hezkuntzara eta giza baliabideen errespetura bideratutako gaiei, Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren Sailarekin eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarekin lankidetzarekin.

4. **ZABALKUNDEA ETA PARTE-HARTZE SOZIALA.** Hitzarmen honetan bildutako arloari dagokionez produzitutako dokumentalak eta obra zinematografikoak zabaltzea. Osagarri gisa, batera planifikatuko da esparru horretan gizartearen sentsibilizazio eta parte-hartze handiagoa eragin dezaketen produkzioen zabalkundea.

5. KOORDINAZIOA ETA JARRAIPENA. Hitzarmenean bildutako gaiei dagokienez komunikabideek emandako informazioaren jarraipena eta balioespena egiteko formula bat prestatuko du hitzarmen honek, eta urtero ere kontrastatuko du Euskadin garatutako ekimen sozial eta instituzionalen multzoarekin, eta batez ere Euskal Ekintza Planari dagokionez giza eskubideen eta bakean oinarritutako hezkuntzaren arloan. Ekimenen egutegi horren aldez aurreko antolaera lagungarria izango da lankidetzaren eta hitzarmen honetan bildutako edukien jarraipena egiteko.

HIRUGARRENA.- LANKIDETZAKO, PLANGINTZAKO ETA EBALUAZIOKO ORGANO MISTOA

1. Hitzarmen honen helburua bultzatze aldera eta hitzarmenaren xedea edukiz hornitze aldera, organo misto bat eratuko da (Jaurlaritzak eta EITBk osatuko dutena), eta organo horrek izango du urteko plangintza (hitzarmenari dagokion eranskin gisa gaineratuko dena) zein onartutako plangintza bakoitzari dagokion ebaluazioa onartzeko azken ardura. Organo horrek *Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren eta komunikabideen Kontseilua* izango du izena, gutxienez urtean behin bilduko da EITBko zuzendari kudeatzailearen ekimenez, eta kontseilua osatuko dutenak honako kide hauek izango dira:

- EITBren aldetik:
 - EITBko zuzendari kudeatzailea
 - EITBko zuzendaria
 - EITB Irratiko zuzendaria
 - EITBko kabineteko zuzendaria

- Eusko Jaurlaritzaren aldetik:
 - Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzaren sailburua
 - Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburua
 - Kultura sailburua
 - Terrorismoaren biktimei laguntzeko zuzendaria
 - Giza Eskubideen zuzendaria

2. Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren eta Komunikabideen Kontseiluak organo tekniko baten laguntza izango du —Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren eta Komunikabideen Kontseiluko Idazkaritza—, eta organo hori arduratuko da urteko plangintza-proposamena bultzatzeaz eta aurkezteaz eta kontseilu horri ebaluazioaren arloan aholkatzeaz. Idazkaritza hori osatuko dutenak honako hauek izango dira:

- Giza Eskubideen zuzendaria
- Giza Eskubideen Zuzendaritzako teknikari bat
- Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzako teknikari bat
- Gazteria Zuzendaritzako teknikari bat
- EITBko kabineteko zuzendaria

Aurreko idatz-zatian ezarritakoa gorabehera, idazkaritzak behar beste agintari, aditu eta gizarte-solaskide deitu ahal izango ditu —boto-eskubiderik gabe— bere bilkuretara, haien lankidetzara beharrezkotzat jotzen badu.

Giza Eskubideen zuzendariak lanaren bultzatzaile eta koordinatzaile gisa jardungo du idazkaritza horretan, eta zuzeneko lotura izango da kontseiluarekin. Lau hilean behin bildu beharko du gutxienez idazkaritzak.

LAUGARRENA.- INDARRALDIA

Formalizatzen den egunetik izango ditu ondorioak hitzarmen honek, eta 2008ko abenduaren 31ra arteko balioa izango du. Indarraldia amaitu aurretik Giza Eskubideetan oinarritutako Hezkuntzaren eta Komunikabideen Kontseiluak egiten duen ebaluazioaren arabera, luzapena adostu ahalko da urte naturalen arabera edo, hala badagokio, egoki irizten diren alderdiak aldatu. Hori guztia non eta ez den hitzarmena suntsiarazteko honako arrazoiren bat gertatzen:

- a) Alderdietako batek hitzarmenaren amaiera iragartzea, idazki bidez, hiru hilabeteko aurrerapenarekin.
- b) Hitzarmenaren edo haren eranskinen klausulak ez betetzea.
- c) Bi alderdiak ados egotea.

Nolanahi ere, hitzarmen honen babesean hasitako proiektuak edo jarduerak amaitu egin beharko dira.

XEDAPEN IRAGANKOR BAKARRA

Hitzarmen hau sinatutakoan, eta betiere Giza Eskubideen zuzendariaren ekimenez, idazkaritza eratu beharko da 2008. urteari dagokion plangintza prestatzeko. Kontseiluak aztertu beharko du onartzeko plangintza hori, 2007. urtea amaitu aurretik horretarako eratu beharko den kontseiluak, hain zuzen ere.

Lankidetzeta-hitzarmen hau aldeok irakurri ondoren, bertan esandakoarekin bat gatzela adierazteko, bina kopia sinatzen ditugu, testuaren idazpuruak aipatutako tokian eta egunean.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza
sailburua

Euskal Irrati Telebista Erakunde
Publikoko zuzendaria

Sin.: Joseba Azkarraga Rodero jauna

Sin.: Andoni Ortuzar Arruabarrena
jauna



Herritar-balioak, errespetua eta bake-kultura sustatzea, eta giza-eskubide guztiak pertsona guztientzat direla defendatzea, eta, horrenbestez, indarkeria ezatea, eta indarkeriaren biktimei gizartearen onirizpena agertzea

giza eskubideak, biktimei laguntzea, bakea

derechos humanos, atención a las víctimas, paz

Fomento de los valores cívicos, del respeto y de la cultura de la paz y de la defensa de todos los derechos humanos para todas las personas, con lo que supone de rechazo del uso de la violencia y el reconocimiento social de las víctimas de la misma


EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO


eitb
euska! irrat! telebista

Giza-eskubideak, biktimei laguntzea, bakea •

AURKIBIDEA

- > SARRERA
- > 2008KO EKINTZA-PLANA
 - > ZABALKUNDEA ETA DIBULGAZIOA.
- EITBREN 2008KO INFORMAZIO-AGENDA
 - > SENTSIBILIZATZEKO KANPAINAK ETA INFORMAZIO-PRODUKZIOAK
 - Publizitate-kanpainak
 - Barneko informazio-produkzioa
 - EITBren programa bereziak
 - Filmak eta dokumentalak ematea
 - > HAUR-PROGRAMAZIOAN BERARIAZKO ARRETA
- > BIKTIMEK GIZARTE BARRUAN TOKIA ETA ONIRIZPENA IZAN DEZATELA SUSTATZEA
 - > INFORMAZIO-TRATAMENDUARI BURUZKO DOKUMENTU PROFESIONALA
 - > EBALUAZIOA ETA GARDENTASUNA



Giza-eskubideak nahitaezko erreferentzia dira antolaketa sozial eta politikorako erduetan, zutabeak justizia, askatasuna, berdintasuna eta elkartasuna izatea nahi bada.

Horregatik, herritarrei giza-eskubideen gaineko heziketa, prestakuntza eta informazioa ematea nahitaezkoa da pertsonen eta komunitateen artean harreman iraunkor eta armoniatsuak ezar daitezen, eta elkar ulertzea, errespetua, tolerantzia eta bakea susta daitezen.

Helburu komun horiek izanda, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzako Sailak eta Euskal Irrati Telebista (EITB) herri-erakundeak lankidetzahitzarmen bat sinatu zuten 2007ko maiatzaren bian, komunikabideetan gauza zedin Euskadiko Giza-Eskubideen eta Bakearen gaineko Heziketarako Ekintza-Plana.

EITBren zeregina bultzagile izatea da, bultzada ematea honako ildo honetatik datozen ekimenei: herritar-balioak, errespetua eta bake-kultura sustatzea, eta giza-eskubide guztiak pertsona guztientzat direla defendatzea, eta, horrenbestez, indarkeria ezatea, eta indarkeriaren biktimei gizartearen onirizpena agertzea.

Hari horretatik, EITBk urteroko plangintza bat prestatuko du, Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiei zuzendua. Plangintzak 2008an informazio-lehentasun hau izango du: gizartea jakitun jartzea eta sensibilizatzea giza-eskubideen errespetuari buruz, bakearen sustapenari buruz, eta, batik bat, terrorismoaren biktimen onirizpenari eta informaziotratamenduari buruz.

Ekintza-Plan bat zehaztuko da. Planak, alde batetik, 2008ko Informazio-Agenda jasoko du, xehetasun hauekin: informaziojarraipenak eta programa bereziak, formatu ezberdinetan hedabide ezberdinetan emateko. Beste alde batetik, barneko heziketa- eta diagnostiko-programa bat jasoko du. Horren amaieran dokumentu profesional bat landuko da, gizaeskubideen, terrorismoaren biktimen eta bake-kulturaren inguruko gaiak erabiltzeko irizpideak finkatzeko.

Halaber, Ekintza-Planaren jarraipena egingo da, beharrezko diren aldaketak egin ahal izateko, eta, horrela, finkaturiko helburuei erantzun eta etorkizuneko ekintzak planifikatu ahal izateko.



ZABALKUNDEA ETA DIBULGAZIOA. EITBREN 2008KO INFORMAZIO-AGENDA

EITBren 2008ko Informazio-Agendan lehentasunetako bat da giza-eskubideekin, biktimekin eta bake-kulturarekin lotutako ekitaldirik aipagarrienen jarraipena egitea eta zabalkunde ematea.

EITBk dokumentu honetan zehaztuko du zein ekitaldi izango diren lehentasunezkoak informazioan. Gizartean zabalkunde emateko helburuarekin, kasuan-kasuan egoki den formatua erabiliko da (albistea, erreportajea, elkarrizketa, debatea, e. a.), eta EITB taldearen euskarri guztiak erabiliko dira: telebista, irrati eta Internet.

Informazio-Agenda honen izaera irekia da, bertara ekarri beharko baitira esandako gaien harira urtean zehar gertatzen diren albistek.

INFORMAZIO-AGENDA

- > IV. Bake-Astea, Bilbon (2008ko urtarrila - otsaila).

- > Biktimen Legea tramitatuko da Eusko Legebiltzarrean (2008ko otsaila-martxoa).
- > Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna: 2008ko martxoaren 11a.
- > Giza-Eskubideen gaineko VI. Zinemaldia, Donostian, 2008ko apirilaren 18 - 25.
- > Giza-Eskubideen Nazioarteko Biltzarra, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte-Segurantzako Sailak antolatua, 2008ko ekainean.
- > Bakearen Nazioarteko Eguna: irailaren 21a.
- > René Cassin saria, Eusko Jaurlaritzak emana Giza-Eskubideen sustapen, defentsa eta zabalkundean konpromisoa erakutsi duten pertsoneri edo taldeei.
- > Giza-Eskubideen II. Saria, Donostia Hiriak emana.
- > Terrorismoaren biktimei buruzko erakusketa, Eusko Legebiltzarren ekimenez.
- > 2008ko Bakearen Nobel Saria.
- > Arte eta Bake Jardunaldiak, Gernika Gogoratuz-ek antolatuak 2008ko azarorako.
- > Indarkeriarik gabeko jolasen aldeko kanpaina, Gesto Por La Pazek abendu guztietan antolatua.
- > Giza-Eskubideen Nazioarteko Eguna. Eusko Jaurlaritzaren 2008-2011ko Bake-Heziketarako Planaren lehen ebaluazioa. Abendua.
- > Eusko Legebiltzarrak Cristina Iglesias eskultoreari agindutako monolitoaren inaugurazioa.

SENTSIBILIZATZEKO KANPAINAK ETA INFORMAZIO-PRODUKZIOAK

Informazio-Agendan jasotako ekitaldiez gainera, EITBk 2008ko lehen kausari indar handiagoa ematearren, kanpaina eta informazio-produkzio bereziak emango ditu, gizartea areago sentsibilizatzeko asmoz.

Publizitate-kanpainak

2008. urtean hiru sentsibilizazio-kanpaina egingo dira, komunikazio-euskarri gisa publizitatea erabiliz.

- > 2008ko apirila: Biktimekiko elkartasuna.
- > 2008ko iraila: Bake-Kultura.
- > 2008ko abendua: Giza-Eskubideak.

Barneko informazio-produkzioa.

EITBren programa bereziak

- > Biktimen omenaldiak: EUDEL Euskal Udalerrien Elkartearekin batera, biktimei omenaldia eta onirizpena agertzeko ekitaldi garrantzitsuenak zein diren zehaztuko da. EITBk informazio-materialen produkzio berezia egingo du, telebistaren, irratia eta Interneten bidez zabaltzeko.
- > Zuzenean ematea 2008ko maiatzean biktimei omenaldia eta onirizpena agertzeko Erakundeek egingo duten ekitaldia.
- > "24 ordu bakearen alde". EITB Taldearen hedabide guztien produkzio monografikoa, irailaren 21eko Bakearen Nazioarteko Egunarekin bat egiteko.
- > Giza-Eskubideen gaineko Foruma. Irrati eta telebista bidezko debatea, giza-eskubideen, biktimei emandako laguntzaren eta bakearen gainean.
- > Euskaditik kanpoko biktima-elkarteek egiten duten lanari buruzko erreportajea, Terrorismoaren Biktimen Europako Eguna dela eta.
- > Gernikako Bakearen Museoko erakusketen informaziojarraipena. Filmak eta dokumentalak ematea
- > "La noche de..." saioak "La vida es bella" filma emango du Bilboko IV. Bake-Astea egiten den egunetan.
- > "Hotel Ruanda" emango da Donostiako Giza-Eskubideen gaineko VI. Zinemaldia egiten den egunetan.
- > Telebistan barne-produkzioko dokumental hauek emango dira: "Corazones de hielo", "Hombres de guerra, hombres de paz", "Vidas en construcción" eta "Sin vendas en la memoria".

HAUR-PROGRAMAZIOAN BERARIAZKO ARRETA

Herritar-balioek, errespetuak, tolerantziak eta bake-kulturak berariazko arreta izango dute, aurrerantzean ere, EITBren haur-programazioan. Proiektu hau, Betizu Klubaren bitartez, 2008. urtea baino harago doa, EITBren betekizun eta bereizgarri iraunkorra izan dadila nahi da eta.

- > Eusko Jaurlaritzako Heziketa-Sailarekin batera, eskolaumeen artean herritar-balioak sustatzeko ekimenak diseinatuko dira.
- > Betizu Klubak programa berezi bat prestatuko du, azaroan Donostiako Udalak Haurren Giza-Eskubideen Egunean antolatzen duenarekin bat eginda.
- > Umeen Gabonetako Parkeari berariazko informaziotratamendua emango zaio, Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte-Segurantzako Sailaren standean antolatzen diren ekitaldien bitartez.

BIKTIMEK GIZARTE BARRUAN TOKIA ETA ONIRIZPENA IZAN DEZATELA SUSTATZEA

Biktinek gizarte barruan onirizpena eta estimazioa aurkitzea da EITBren 2008ko "informazio-lehentasuna" osatzen duten elementuetako bat. Horregatik berariaz zainduko da biktinek parte hartzea –norberaren izenean zein talde baten izenean– antolatzen diren ekitaldietan.

- > Hiruhileko bakoitzean plangintza bat antolatzea, informazio-jarraipena egiteko Covitek, Gesto Por La Pazek, Fundación Fernando Buesak eta beste biktimaelkarteek antolatzen dituzten ekitaldi eta jardunaldiei.
- > Biktimak eta biktima-elkarteak aktiboki azaltzea biolentzia terroristaren inguruko programetan eta informazioetan.
- > Informazio-edukiak lantzean, biktimen eta biktimaelkarteen iritziak azaltzea, batik bat giza-eskubideen urraketa, bake-kultura eta balio-heziketa aztertzen duten programa eta informazioetan.
- > Terrorismoaren biktimen ikuspegia azaltzea Euskal Herriaren azken berrogei urteko historiari buruzko gaiak erabiltzen dituzten informazio, programa eta dokumentaletan.

INFORMAZIO-TRATAMENDUARI BURUZKO DOKUMENTU PROFESIONALA

Informazio-lehentasun modura giza-eskubideen sustapenari, biktimenganako gizartearen onirizpen eta estimazioari eta bake-kulturari zabalkundea emateak berekin dakar hainbat ekimen antolatzea enpresa barruan, EITB Taldeak azterketa eta gogoeta egin dezan, eta erabakiak har ditzan, informazio-eskubidea, komunikabideetako profesionalen independentzia eta esandako informaziolehentasuna bateratzeko irizpideez.

- > EITBren hedabideek eta beste komunikabide publiko zein pribatu batzuek gaiari ematen dioten tratamenduari buruzko diagnostikoa egitea.
- > Hasierako diagnostikoa erreferentziatzat hartuta, barneko heziketa-plan bat diseinatzea eta burutzea.
- > Dokumentu profesional bat lantzea, aldian behin azertu eta berriztatuko dena, hau da, betiko "estilo-liburu" bat baino gehiago izango dena, giza-eskubideen, biktimen eta bake-kulturaren inguruko gaien tratamenduari dagozkion irizpideak finkatzeko helburuarekin.
- > Ekitaldi edo jardunaldi profesional bat antolatzea, informazio-tratamenduaren gaineko dokumentua ezagutzera emateko.
- > Ekintza-Plan honen jarraipen dokumentatua egiteko asmoz, txosten zehatza egingo da 2008an informaziotratamenduari buruz.
- > Txostenean, aurretik markatutako helburuekin alderatuko da egindakoa, eta oinarri modura hartuko da 2009. urterako.

- > Hiru hilean behin aurrerapen bat aurkeztuko zaio Giza-Eskubideen eta Komunikabideen gaineko Heziketarako Kontseiluari, Ekintza-Plana zein neurritan betetzen doan aztertzeko.
- > Eusko Legebiltzarreko EITBren Kontrolerako Batzordea
 - > Eusko Legebiltzarreko Giza-Eskubideen Batzordea.
 - > Eusko Legebiltzarreko Giza-Eskubideen Batzordea.
 - > EITBren Administrazio-Kontseilua.
 - > Giza-Eskubideen eta Komunikabideen gaineko Heziketarako Kontseilua.

